


Teknologia onenaren erakusgarria

Fagor Arrasatek Volkswagen taldearendako abiadura handiko lerroa osatzeko sei prentsa landu ditu; European instalatzen den mota horretako lehen lerroa da / 2



Markel Olano, Jose Mari Balzategi eta Arantza Tapia, Fagor Arrasaten. L. K.

Boluko etxeetara sartuko dira gaur bizilagunak, udaltzainen eta suhiltzaileen laguntzarekin / 24

Holokaustoaren bi biktima elgetar omenduko dituzte gaur, egubakoitza, baten senideekin / 32

SINADURAK

 ESTEPAN PLAZAOLA / 6	 IKER ELEXPURU / 23
 IBON ARRUPE / 10	 MARJE UGALDE / 29
 INAXIO GARRO / 17	 AGURINE BARRUSO / 48



Holokaustoaren Debagoieneko biktimak

Imanol Galdos oñatiarrari elkarriketa



100 urte

Gernikako Arbolaren kimu bat Oñatin landatu zuteneko mendeurrena da otsailaren 2an / 34

Fagor Arrasateren teknologia onena

Fagor Arrasatek ate irekiak egin ditu aste osoan bere emaitza garrantzitsu bat aurkezteko: Volkswagen taldearendako egin dituen sei prentsa. Eguaztenean aurkeztu zizkien agintariei; Arantza Tapiari eta Markel Olanori, besteak beste

Leire Kortabarría ARRASATE

Hain zuzen, European instalatzen den abiadura handiko lehen lerro hibrido serbo-konbentzionala osatzen dute sei prentsa horiek. Kooperatibako ardura-

dunen esanetan, Fagor Arrasateren teknologia onenaren erakusgarria da produktu hori. Guztiz automatizatua da, eta haren ezaugarri nagusia da aurrerapauso esanguratsua daka-

rrela produktibitateko presazioetan.

Proiektua VW taldeko Seat-en Martorell-eko (Bartzelona) lan-tegian instalatuko dute aurten; seguruenik, urte bukaeran. Sea-



Arantza Tapiari, komunikabideak atenditzen; atzean, prentsa berria. LEIRE KORTABARRIA

tek, batez ere, Audi A1 autoaren panelak fabrikatzeko erabiliko du lerroa; eguazteneko aurkezpenean, prentsa martxan ikusteko aukera izan zen, eta horrelako panel bat erakutsi zuten.

Urteurren hasiera bikaina

Fagor Arrasatek 60 urte betetzen ditu aurten, eta urteurrena ospatzen hasteko modu ezin hobea izan da eguaztenekoa. Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Ekonomia garapen eta lehiakortasun diputatu Arantza Tapiari, Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olanok eta Ekonomia Sustapeneko diputatu Ainhoa Aizpuruk, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena, Mondragon Korporazioko presidente Iñigo Uzin eta Fagor Arrasateko gerente Jose Mari Baltzategi. Komunikabide asko bertaratu ziren. Ahaldu nagusi Markel Olanok komunikabideei egindako adierazpenak hasi zituen Fagor Arrasateri "zorionak" emanez eta berretsiz bisitaren helburu nagusia kooperatibari bere urteurrenean "babesa" erakustea zela.

Arduradunek Fagor Arrasateren lana eta emaitzak gorai patu zituzten, eta baita kooperatiba euskal ekonomiaren lehen lerroan kokatuta egotea ere. Hala, ahaldu nagusi Markel Olanok honako hau esan zuen: "Enpresa hau dago mundu mailako industriaren punta-puntan. Iraultza isil baten gaude murgilduta, laugarren Iraultza Industrialean; automatizazio prozesu bat ari da gertatzen, industria guztira hedatzen ari dena,

eta testuinguru horretan Fagor Arrasate dago punta-puntan. Makina hauekin, eurak dagoeneko egiten ari dira etorkizuneko industria".

Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailburu Arantza Tapiari hauxe azpimarratu zuen: "Erabat euskalduna den enpresa bat horrelako proiektu garrantzitsuetan dagoela ikusten da, eta kontsideratu behar dira bi arlo nagusi, zeharo desberdinak: bat, automobilgintza, munduan izugarritzko hazkundera duena, eta beste bat, altzairugintza. Biak dira une honetan sektore garrantzitsuak. Beraz, lana ondo egiten denean eta produktu garrantzitsu bat jartzen denean munduan, merkatua eta hazkundera datoz".

Hornitzaileak eta I+G zentroak

Ordezkarri politikoei Fagor Arrasateren enpresa-traktore izaera ere txalotu zuten, beste enpresa txikiago batzuei lana emanez, eta hori, bi zentzutan: batetik, Gipuzkoako eta Euskadi osoko hornitzaile askori; eta, bestetik, Ikerkuntza eta Garapen zentroi. Tapiari iritziak, hornitzaileek "garrantzi handia" dute Fagor Arrasaterendako: "Enpresak aurrera egiten duenean; kalitatea, aurrerapena, berrikuntza mahai gainean jartzen dituztenean, hainbat eta hainbat ekimen dituztenean, hornitzaileak berekin eramaten ditu, eta hornitzaileak ere hobetu egiten dira, kalitatea eta berrikuntza jartzen dute eta nazioartera ateratzen dira". Eta Olanok I+G

erabili euskara

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@
udaleuskaltegia.eus

**BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta,
18-behea, Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

**ARRASATEKO
UDAL
EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

**BERGARAKO UDAL
EUSKALTEGIA**
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

**"LAN ON ETA
KALITATEZKOA EGITEN
DENEAN, HAZKUNDEA
DATOR"**

ARANTZA TAPIA, SAILBURUA

**"LAUGARREN
INDUSTRIA IRAULTZAN
DAGO FAGOR
ARRASATE"**

MARKEL OLANO, AHALDU NAGUSIA



Mondragon Korporazioko eta erakundeetako ordezkarien talde-argazkia. LEIRE KORTABARRIA

-ren papera nabarmendu zuen: "Fagor Arrasatek badauka bere I+G departamentua, baina badauka ere lotura handia ikerketa eta garapen zentroekin; badago ezagutza sare bat Gipuzkoan, eta horrek ematen dio aukera horrelako enpresa bati benetan punta-puntan egoteko eta lehiakorra izateko".

Bisitak aste osoan

Eguaztenean aurkeztu zuten prentsak duen diseinuarekin, inbertsioaren kostua ahalik eta gehien optimizatzea lortu du Fagor Arrasatek; eta hori gako

izan zen Seat-ek Fagor Arrasate aukeratzeko orduan, 2016ko urtarrilean. Izan ere, prentsen lerroaren kontzeptua aspaldi erabiltzen da ibilgailuen karrozerien piezak egiteko, baina instalazio honen berezitasuna da burualdeko prentsa -2.100 tonakoa- serboa izango dela, eta gainerakoak -1.200 tonako bost prentsa-, ohiko prentsak. Lerroa guztiz automatizatua dago eta horretarako Suitzako Güdel enpresarekin egin du lan Fagor Arrasatek.

Produktu garrantzitsu hori aurkezteko, ate irekiak egin

ditu aste osoan Fagor Arrasatek. Hala, hilaren 23tik 28ra, langileek, Mondragon Unibertsitateko eta beste unibertsitate batzuetako ikasleek eta irakasleek, ikertzaileek eta, batez ere, automobil-ekoizleek eta estantpatzaileek Fagor Arrasateko instalazioak bisitatu dituzte. Erakundeen bisiten bezperan, hilaren 24an, hornitzaileak izan ziren protagonistak, eta prentsa bertatik bertara ezagutu zuten. Egun berean, urteko hornitzaile onenaren saria eman zuten; Xubi Engranajes SLri eman zioten.

Mondragonen aurkako auzia, berriz atzeratuta

Mondragon Korporazioa, batetik, eta Ordaindu eta Eskuratu elkarrekin, bestetik, aurre-audientzia batu ziren martitzenean, Bergarako epaitegian. Helburuetako bat epaiketaren hasiera data zehaztea zen, baina ez zen halakorik gertatu; izan ere, Mondragon Korporazioaren abokatuak zenbait akats azpimarratu zituzten Ordainduk eta Eskuratu ipinitako salaketan. Epaileak

arrazoia eman zien eta esan zuten zehaztasun jakin batzuk egitea ezinbestekoa dela Mondragon Korporazioak bere burua egoki defendatu ahal izateko. Horrenbestez, beste aurre-audientzia batera deitu zituen, apirilaren 11rako. Ordaindu eta Eskuraturen abokatuak ondo baloratu zuten epaileak gaia "sakon ezagutzeko" erakutsitako interesa. Mondragon Korporazioak, berriz, idatzi bidez, aurre-audientziaren aurretik, "gertakariak erabat argitzen laguntzeko asmoa" duela berretsi zuen.

Lazpiur eta Armeria Eskola, elkarrekin

Bergarako Lazpiur enpresak elkarlana hasi du Eibarko Armeria Eskolarekin, eta horren berri eman zuen prentsa ohar bidez. Eskola hogeitabat enpresarekin lankidetzan dabil, enpresen eta ikastetxearen arteko harremanak hobetzeko. Lazpiurren kasuan, lankidetzaren horrek lehentasuna emango dio praktikak edo formazio duala eskaintzeko, eta Armeria Eskolako

ikasle ohien lan-poltsara jo ahal izango du. Gainera, ekimen, ekitaldi, zuzendaritza lidergoarekin zerikusia duten topaketa, aurreratutako industriaren gaineko ekintzak... horietan eta beste arlo askotan elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu dute.

Armeria Eskolak 100 urtetik gorako historia du. Lanbide Heziketa ikasketak ematen ditu, eta bertan ikasitakoak dira 400 enpresa zuzendari eta buru baino gehiago.

DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"GUZION ESKOLA, GUZION ARTEAN"



URTARRILAREN 30ETIK OTSAILAREN 10ERA



605 77 39 92 goieskola@gmail.com

goieskola
erakundeetako eskola publikoa



baikara
Eusko Legebiltzarra

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH INFORMAZIO BILERAK eta ATE IREKIAK

ARAMAIO, San Martin Eskola

ELGETA, Herri Eskola

ANTZUOLA, Herri Eskola

Informazio zuzena eskolan bertan

BERGARA

San Martin Agirre Eskola

Ipintza Institutua

Urtarrilaren 31n, 18:00etan Haur Hezkuntzako eraikinean

Otsailaren 4an, 11:45ean Haur Hezkuntzako eraikinean Ate Irekiak

Urtarrilaren 31n, 18:00etan

ESKORIATZA

Luis Ezeiza Eskola

Urtarrilaren 27an, 17:00etatik aurrera Ate Irekiak

ARETXABALETA

Kurtzebarri Eskola

Kurtzebarri Institutua

Urtarrilaren 26an, 18:00etan

Urtarrilaren 31n, 18:00etan

ARRASATE

Arrasate Herri Eskola

Arrasate Institutua

Urtarrilaren 26an, 18:00etan Musakolan

Urtarrilaren 31n, 18:00etan Bedoñaben

Otsailaren 2an, 18:00etan Erguinen

Urtarrilaren 30ean, 18:00etan Arrasaten

Urtarrilaren 31n, 18:00etan Aramaion

OÑATI

Errekalde Eskola

Zuazola - Larraña Institutua

Urtarrilaren 28an, 17:00etatik aurrera Ate Irekiak

Urtarrilaren 31n, 18:00etan

HHI-EPA ARRASATE

HHI-EPA BERGARA

Matrikula zabalik



Saharaldeba elkarteko kideak elikagai kutxak erakusten. UBANE MADERA

Lau tona elikagai saharar kanpalekuetarako

Debagoieneko Saharaldeba, Bergarako Bubisher eta Antzuolako Anelkar elkarteak ibili dira bilketa egiten Debagoiengan, abenduaz geroztik; pozik daude kanpainak eskuratutako erantzunarekin eta eskerrak eman gura dizkiete parte hartu dutenei

Ubane Madera DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, bidaliko dituzte *Piztu itxaropena* kanpainaren barruan saharar kanpalekuetan bizi diren pertsonen laguntzeko Debagoiengan batu diren lau tona inguru elikagai eta produktu. Olia, atuna, lekaleak, konpresak, fardelak, sardinak kontserban... batu dira, bereziki. Hain justu ere, mota horretako produktuak dira saharar kanpalekuetako errefuxiatuek gehien behar dituztenak eta, era berean, halakoak dira, baita ere, epe ertain-luzera begira ondoen kontserbatzen direnak.

Partaidetza handia

Debagoiengan batutako produktuak Euskal Herrian batutakoei gehitu eta kamioietan bidaliko dituzte guztiak Alacantera, karaban. Otsailean izango da hori. Eta ondoren, Alacantetik bideratuko dute batutako guztia saharar kanpalekuetara.

Saleh Salek-ek, Sahararaldeba elkarteko presidentek, eskerrak eman gura dizkie kanpainan parte hartu duten guztiei: "Arrasateko Udalarri, elikagaiak gordetzeko lokala uztearren; kanpainan elikagaiak ematen parte hartu duten pertsona guztiei eta kanpainan elikagaiak batzen zein informazioa helarazten lagundu

duten pertsona guztiei, baita EH Bildu eta Podemos alderdiei ere, fisikoki emandako laguntasunarengatik, eta, besteak beste, baita saltoki handiei ere –Eroskiri, bereziki–, elikagaiak bertan bazten uztearren. Babes humanitarioa izateaz gainera, sahararren kausa moralki ere babesten da mota horretako ekimenekin".

Egoera okertzen

Salek-ek gogora ekarri du oso gogorra dela saharar kanpalekuetako bizimodua. "Pentsa, hemen egiten dabilen hotzarekin... han kanpin dendetan bizi dira. Gogoan dut 80ko hamarkadan ere egin zuela halako hotz bolada bat eta orduan goizean jaikitzen ginenean kupeletako ura izoztuta egoten zen", dio Saharaldeba elkarteko presidentek. Kontatu du, halaber, abenduan izan zela bertan eta igartzen dela laguntza humanitarioa asko gutxitu dela azken denboraldian. "Aurten, adibidez, nabarmen txikitu dute NBEtik (Nazio Batuen Elkarte) banatzen dituzten oinarriko elikagaien kopurua eta hilean behin barik, orain bi hiletik behin banatzen dituzte. Espainiako estatuak, adibidez, ematen zuenaren %20 ematen du; eta munduan beharrak ere handitu egin dira, oro har".

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako ikastaroak

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak bi ikastaro berri antolatu ditu urtarilean hasita. Menpekotasuna duten pertsonen zaintzari zuzendutakoak dira ikastaro biak, arreta sozio-sanitarioa eskaintzeko. Bata erakunde sozialetan –370 ordukoa– eta bestea, etxean –480 ordukoa–; bi ikastarok saio praktikoak ere izango dituzte. Urtarrilaren 30ean

dira hastekoak biak ala biak, eta bukatzekoak, berriz, maiztean lehena eta ekainean, bigarrena. Ferixalekuan izango dira klaseak.

Bi ikastaroak gazteleraz izango dira eta lehenasuna izango dute langabetuek –derrigorrezkoa izango da Lanbideko bulego baten izena emanda egotea–. Izena emateko edota informazio gehiago gura duenak www.arizmendipro.eus webgunean sartu edota 943-77 20 25 telefono zenbakira deitu beharra dauka.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Haider Elokza

Aretxabaleta.
Enpresen Administrazioa
eta Zuzendaritza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO - OTSAILAK 4

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE - OTSAILAK 11

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA - URTARRILAK 28

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO - OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI - OTSAILAK 11

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA - OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAleta - OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA - OTSAILAK 9

OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436

Gidarik osatuena eta eguneratuena eskuragai

Oraingo astean bukatu dute Goienagida 2017 banatzen; 18.800 ale banatu dituzte, paper formatuan; edozein modutan, 'goiena.eus/gida' helbidean ere kontsulta daiteke, baita 'Goiena app'-a deskargatuta ere; 3.000 sarrera ditu aurten

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Debagoieneko telefono gidarik osatuena eta eguneratuena da, bereziki, Goienako lantalde komertzialak urtero-urtero eguneratzen duelako, hainbat hila betetako lana hartuta".

Zehazki, lan horren emaitza da Goiena Komunikazio Taldeak aurten argitaratutako gida komertzialak eskualdeko 3.000 enpresaren, negozioren, zerbitzuren, elkarteren... telefono zenbakiak jarri dituela erabiltzaileen eskura. Eta horiek erabiltzeko edo kontsultatzeko hiru bide ematen ditu.

Paperean

Bata da gidaren paperezko formatua; kasu horretan, 18.800 ale banatu dituzte Debagoieneko bederatzi udalerritan -Aramaio barne-.

GOIENA aldizkariaren harpidedunek eta gidan bertan publizitatea egiten dutenek

jaso dute. Hain justu ere, bederatzi udalerririk hiru gidatan banatuta landu ditu Goiena Komunikazio Taldeak: Leintz ibarrekoa -Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio: 9.300 ale-; Bergara aldekoa -Bergara, Antzuola eta Elgeta: 6.200 ale-; eta Oñati aldekoa -3.300 ale-.

'Goiena.eus' eta Goiena APP


Goienagida 2017 kontsultatzeko beste bide bat da Internet era-

bili eta goiena.eus/gida helbide-tik bertaratzea.

Eta hirugarrena da *Goiena app*-a deskargatu eta bertatik kontsulta egitea. Azken kasu horretan, gainera, norberak kontsultatu duen telefono zenbaki horretara zuzenean deitzeko aukera eskaintzen du; hala esplikatu du Mireia Larrañagak, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari komertzialak.

Zelan eskuratu

Gidaren paperezko formatua jaso ez duenak hiru bide ditu eskuratzeko: *harpidetza@goiena.eus* helbidera mezua bidalita, 943 25 05 05 telefono zenbakira deituta edo Goienaren egoitzara bertarata -Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate-. Halaber, harpidedun ez direnek ere badute gida eskuratzeko aukera: 10 euroren truke Goienaren egoitzan bertan edo posta arruntez eskatuta ere jaso dezake.



Hemeretzi pertsona, 23.000 ale banatzeko

Batu-Banatu enpresak banatu du Debagoieneko Merkataritza Gida 2017, etxez etxe eta negozioz negozio. Izan ere, eskualdeko enpresa hori arduratzen da Goiena Komunikazio Taldearen produktu guztiak banatzeaz. Izatez ere, Goiena Komunikazio Taldearen banaketa enpresa da Batu-Banatu. Hemeretzi langilez osatuta dago -hamabi gizonezko eta zazpi emakumezko- eta astero banatzen dute GOIENA aldizkaria -19.000 ale, bederatzi udalerritan, aldizkariko harpidedun direnen artean- eta *Puntua* aldizkaria -4.000 ale, Goiena Klubeko bazkide direnen artean-.

Asteroko lanaz gainera, esandako moduan, Goienaren



gida komertziala ere banatzen dute Batu-Banatu langileek, eta kanpoko enpresendako eta erakundeendako banaketez ere arduratzen dira: udalendako, ikastetxeendako, eta abarrendako. Bestalde,

banaketa pertsonalizatuak egiteko aukera ere ematen dute, kartelak ipintzekoa... Batu-Banaturen zerbitzuak erabiltzeko: banaketak@batubanatu.eus / Telefonoa: 943-08 10 50 / 688 69 00 07.

Bergarako parking publikoa itxi egingo dute, zatika, lanengatik

Mantentze-lanek irauten duten bitartean, ondoan dagoen Seminarioko atarian egokituko dute aparkatzeko gunea

U.M. BERGARA

Begarako lur azpiko aparkalekuan mantentze-lanak egin behar dituzte; datorren eguaztenean, otsailaren 1ean, hasiko dira. Hain justu ere, Bergarako Udalak jakinarazitakoaren arabera, eguaztenean eta eguenean, aparkalekuaren erdia itxita egongo da. "Hori eginda parking publikoan 32 aparkaleku erabilgarri geldituko dira, 20 plaza galduz. Otsailaren 4ean, aldiz, aparkalekua guztiz itxita egongo da, erdiko pasilloa margotu eta garbitzeko", zehaztu dute.

Mantentze-lan orokorrak

Izan ere, orokorrean "euri urren hodi guztien garbiketa eta libratzea, pareten, ateen, seinaleen eta eskegita dauden hodien garbiketa, sabaien eta baranden margoketa, lurraren garbiketa eta lurreko seinalizazio hori-

zontalaren pintaketa" egingo dituzte.

Hori guztia egiteko bizpahiru aste beharko dituztela kalkulatu dute, "eta otsailaren 6 eta 12 bitarteko astean beste bi egunetan ere aparkalekua ixtea aurreikusten" dutela gaineratu dute. Data zehatzak jakin bezain laster horren berri emango dute.

29 plaza egokituko dituzte

Era berean, eta lanek iraun bitartean, Bergarako Udalak ondoan duen patioan, Seminarioko atarian, alegia, "gune bat ahalbidetuko du bertan aparkatu ahal izateko". Kopurutan, 29 plaza egokituko dituzte bertan.

Doakoa da Ibargarai kaleko lur azpiko aparkalekua. Bergarrez gainera, bertaraten diren debagoienar ugarik erabiltzeko ohitura dute; are gehiago, udalerraren erdialdean egonda.

Otsailaren 1etik aurrera, arreta emateko gune berriak

Eskualdeko lau udalerritako aurrez aurreko arreta zerbitzuak dira lekuz aldatuko direnak

U.M. DEBAGOIENA

Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan dauden hondakinen informazio bulegoek eskaintzen duten aurrez aurreko zerbitzua lekuz aldatuko dute eguaztenean. Bestela esanda, hondakinekin lotutako edozein gertakari, arazo, zalantza edo informazio behar izanez gero, arreta puntu berriak erabili beharko direla gogora ekarri du Debagoieneko Mankomunitateak -ondoko taulan kokapen berriak eta bakoitzaren funtzionamenduari dagokion ordutegia-.

Telefono bidezkoa

Aurrez aurreko arretaz gain, telefono bidezkoa ere eskainiko du Mankomunitateak: astelehenetik barikura, 08:00etatik 15:00etara, 943 50 47 21 telefonora deitu ahal izango da.

Arreta zerbitzuak

Bulegoak

- **Arrasate:** Debagoieneko Mankomunitatea. Astelehenetik Ostiralera. 09:00-14:00.
- **Bergara:** Bergarako Udaletxea (Ur Zerbitzuko bulegoa: 08:30-13:30).
- **Aretxabaleta:** Arkupe kultura etxea (10:00-13:00 eta 16:00-20:00).
- **Eskoriatza:** Eskoriatzako Udaletxea (Hirigintza Saila: 09:00-14:30).
- **Telefonoz** Astelehenetik ostiralera, 08:00-15:00: 943 50 47 21.



ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

Oh, Katalunia!

Kataluniako prozesuaz interesatuta nago. Azken urteotan jakin-minez irakurri ohi ditut, sarean, bertako hedabideak: independentziazaleak (*Ara, Vilaweb...*) zein kontrakoak (*La Vanguardia, El Periodico...*). Baita prozesuari buruz Euskal Herrian eta Espainian agertzen diren albisteak ere.

Puigdemont eta bere gobernukideak Europako Parlamentuan prozesua azaltzen izan diren egun berean, Espainiako Circulo de Enpresarios-eko presidente Javier Vega de Seoanek esandakoa zabaldu dute hedabide nagusiek: enpresariak ihesi doaz Kataluniatik izurritetik bezala (*como de la peste*)... "Enpresariak ziurtasun juridikoa behar dute", esan du.

Ez du ematen zentzugabea denik enpresariak *ziurtasuna* behar dutela esatea.

Baina Vega de Seoaneri buruz gehitxoago jakiteko gogoia sortu dit albisteak eta jakin dut Donostian jaioa dela, aita eta aitajauna Donostiako alkate eta Realeko presidente izan zirela eta gaur egun hainbat enpresatan -tartean Tavex

Algodoneran- diharduela.

EZ DUTE BIDE ERRAZA; EZ ZAIE FALTAKO GEZURRA ETA BELDURRA EREIN ETA ZABALDUKO DUENIK

Eta topatu dut Javier honek esandako beste kontu bat ere: "Ohitu beharra dago soldata finkorik izango ez den eta zalantzazkoagoa izango den bizitza modu batera". To ziurtasuna!

Kontua da Espainiako

Enplegu Ministerioaren arabera, Katalunia izan dela 2016an langabezia murrizketarik handiena izan duen komunitateetako bat: Kataluniak 2,8 puntu, Madrilek 1,1 eta Espainiak guztira 2,3 puntu.

Ez dute bide erraza katalanek; ez zaie faltako gezurra eta beldurra erein eta zabalduko duenik.

Eta gure inguruan ere ez dut sumatzen horri aurre egin eta katalanei babesa emateko ahalegin berezirik.


Cançó a Catalunya ederrean zioen Xabier Letek:

*Itsas ilun honetatik zure argi haundira
Bihotz-begiak zabalik nagokizu begira
Urteak eta mendeak zuzan iraupen dira
Eraman gaitzazu azkar askatasun berrira.
Oh, Katalunia!*

Eta euskaldunok... zer egin dezakegu euskaldunok Katalunia *askatasun berrira* irits dadin? Zer egiteko prest gaude?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



ZEUK ESANA

Errusian, 2014tik aurrera jaiotakoek ezingo dute tabakorik erosi!

KONTRABAND
ARRASATE

Ba, pagotxa ederra kontrabandoan aritzen direnentzat.

Kontrabandistek, betidanik, dirutza irabazten dute tabakoa, alkohola, armak eta era guztietako gauzak trafikatzan. Eta, gainera, mota horretako debekuek badakigu zer dakarten: gehiago trafikatzeara.

Beraz, neurri hori hartuta uste badute tabako kontsumoa jaitsi egingo dela euren

herrialdean, a ze inozoak diren errusiarrak...

ERREDURA
DEBAGOIENA

Erre egin gura duenak erre egingo du, debekatuta egon edo ez.

Erre egin gura duenak izango du non erosi, merkatua oso zabala da eta.

Erre egin gura duena delitugile izango da, erre egingo duelako.

Erre egin gura duena apestatu hutsa izango da,

erretzea debekatuta egongo delako.

Baina, hala ere, erre gura duenak erre egingo du, batera edo bestera.

LABEZOMORROA
DEBAGOIENA

Hemen debekatu egin zuten tabernetan-eta erretzea.

Eskerrak. Gaur egun, lasai asko egon daiteke taberna barruan umeekin, inork ez du-eta barruan erretzen.

Lagunok, barre egin dezagun!

Ba, Errusian, antzera; hau da, berdin-berdin erreko du jendeak, debekatuta egonda edo ez.

HURRENGO ZENBAKIAN: AUSTRALIAN, TOUR DOWN UNDER ZIKLISMO PROBA PROFESIOLEAN, EZ DA AZAFATARIK IZAN SARIAK EMATEN. Iritzia emateko: berriak@goiena.eus / goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Ordu bereizketa duten argindar tarifak dira onenak"

XABIER LIZARRALDE GOIENERREKO BOLUNTARIOA

Mireia Bikuña ARRASATE

Argindarraren prezioa ikaragarri igo da aste honetako hainbat egunetan. Bereziki, 20:00etatik 22:00etara arteko tartean. Igoera horren arrazoiak eman ditu Goiener kooperatibak bailaran duen boluntario Xabier Lizarralde. **Zergatik garestitu da derrepentean argindarraren prezioa?**

Lau faktore dira nagusi. Lehena Frantziatik dator. Urrian zentral nuklear asko itxi zituzten han eta beste herri batzuetako energia behar du. Bigarrena da energia berriztagarri gutxi dagoela. Hirugarrena, hotz bolada handiak. Halakoetan eskaera handia egoten da eta gasa garestitu egiten da.

Horien guztien ondorioz dator laugarren faktorea: teknologiak garestiagoak dira eta prezioa hazi egiten da.

Aspaldiko erabakiek ekarritako ondorioa da?

Baietz esan daiteke. Espainiak ez du apustu egin efizientzia



Xabier Lizarralde, Goiener kooperatibako boluntarioa. XABIER LIZARRALDE

energetikoaren alde. Hau da, kontsumoa edo eskaria jaitsi, bizi kalitatea galdu barik. **Argindarra garestiagoa da ordu batzuetan beste batzuetan baino. Nola erabakitzen dira tarifa horiek? Zeren arabera?**

Eskaintzaren eta eskariaren arteko gurutzatze prozesuaren ondorioa da. Goizeko orduetan argindar gutxiago behar dugu. Gauean, aldiz, asko igotzen da beharra, baina argindarra ematen

duten enpresen kopurua berbera izaten da. Gurutzatuko azken eskaintza da argindarraren prezioa ezartzen duena. Horren ondorioz, erabiltzaileak haserre daude igoyerarik handiena 20:00etatik 22:00etara arte izaten delako.

Tarifa horien arabera, komeni zaie erabiltzaileei argindarra merkeen dagoenean erabiltzea? Aldaketa horren nabarmenak dira, preziorik hoberena zein orduetan dagoen jakiteko esfortzua egitea ez du merezi. Hortaz, ordu bereizketa duten tarifak dira gomendagarrienak.

Aste honetan egon dira prezioak garestien. Zein izan da maximoa? Orduko kilowatt bakoitza 100 eurotan ordaindu dugu aste honetan.

Zenbat euroko igoera nabarrituko dugu hurrengo fakturan? Hilabeteko batez besteko prezioa da koska. Eta prezio hori azken fakturaren %35 da. Adibidez, urtarrilean 200 kilowatt orduko kontsumitu baditugu, eta, batez besteko prezioa 80 eurotan geratu bada, energia kontzeptuagatik hamasei euro ordainduko dugu. 2016ko martxoan prezioa 30 euro zen. Kontsumo bera izan bagenu, sei euro ordainduko genituzke kontzeptu berarengatik.

HAU BE BADOGU!

#WomensMarch indartsu sare sozialetan



Trumpen aurka milaka emakume irten ziren Washingtoneko kaleetara.

@maddaleniriarte: "Emakumeok aldatuko dugu benetan mundua. Ahulenen eskubideen alde beti. #WomensMarch".

@Pablo_Iglesias: "Milaka emakume #WomensMarch-en Trumpen matxismoari ezetz esaten eta euren eskubideen alde. Eskerrik asko" (itzul).

@itxasoatutxa: "Nik bat egiten dut #WomensMarch matxarekin. Zuk?".

Goienaren eredu, #Topaldia-n



Euskararen normalizazioan aurrera egiteko elkarlanaz eta zubigintzaz hausnartzeko Topaldia egin dute. Bertan, besteak beste, Goienaren eredu azaldu du Iban Arantzabal zuzendari nagusiak.

@mikel_axeri: "@iarantzabal Goiena-ko eredu aurkezten. Bazkideak, %54 herrietako Euskaltzaleen @topagunea-k, %27a Udalak eta %19a langileena #Topaldia".

Herrietako berriak, Facebook bidez ere bai

Aurrerantzean, Debagoieneko herri bakoitzeko albisteak, argazkiak, bideoak edota azken ordukoak Facebook sare sozialaren bidez ere jarraitu ahal izango dituzte erabiltzaileak. Goienak herri bakoitzeko orrialdeak berriitu ditu eta egunero partekatuko ditu berriak erabiltzaileekin.

ITURRI ONETIK

Korrikaren gaineko erakusketa

Beti da berezia Korrika. Aurten, baina, are bereziagoa izango da, 20. aldia duelako. Hori dela eta, badabilta urtemuga horren bueltakoak prestatzen Euskal Herrian: ospakizuna, dokumentala... Eta baita Debagoienean ere. Kasu honetan, erakusketa egin gura dute 20 ediziotan Korrikak Debagoieneko udalerririk zeharkatzen erakusten dituzten argazkiekin. Horretarako laguntza behar dute, argazkiak batzeko-lagatzeko. AEKren Arrasateko egoitzan eskertuko dute laguntza hori.

GORA ETA BEHERA



Dekorazio "berritzailea"

Pozik idatzi du GOIENA aldizkariko irakurle batek Arrasateko Olarte kalera doazen eskaileretan margotu duten murala dela eta. "Marraskia aukeratu zenean, ez zitzaidan proposamena askorik gustatu, baina emaitza bai. Are gehiago, oso ideia ona iruditzen zait herrietako paretak -ez guztiak, batzuk bakarrik- marrazkien bitartez *dekoratzea*, horrela zuri utzi barik", dio.



JOKIN BEREZIARTUA

Matalaz iraultzailea**JON OTERO URIBARREN**

ARRASATE

Xiberuako matxino iraultzaile gogorra eta eredugarria izan zen Matalaz. Egiak, haren azken hitzak, hil hurren exekutatu, izan ziren: "Dolurik gabe hiltzen naiz, bizia Xiberuarentzat ematen baitut". Oi, Xiberua! Y mañana zer? Eskuera berreskuratzen erne ibili beharko dira jada aitzinean.

Guk Xiberuarentzat begirunea dugu, noski, errazkiago joan arren beraiek iparralderantz hegoalderantz baino, mendiak medio. Ez ote gara gai izango elkar komunikatzeko Auñamendi madarikatu batzuegatik? Egunen batean, Iparraldea abertzaletu egingo da eta Euskal Herria Euskadi independentea izanen. *H* hizkiak elkarri egurra ematera eramane zituen mendebalde eta ekialde iparra. Gutxi zirelakoan, begirunez onartu genuen hizki hori euskara batuan. Baina ni debagoiendarra naiz, eta, hemen ez dugunez bereizten z hizkia eta s hizkia ahoskeran, agian, gaizki ulertuko dut Matalaz, eta haren mezua, eta...

Zoritxarrez, gaztelera badakit Konstituzioaren 3. artikulua beharturik.

Eta... hor bukatutzat emango dut.

Hiztun 0+ak**LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI**

HTTPS://GOO.GL/FOYVMU

Azken boladan atentzioa eman didaten elkarrizketa bi entzun ditut, pasadan, nahi barik, leku egokian momentu konkretuan nengoelako, kasualitatez.

Biek zituzten antzeko osagaiak, biek dute zer hausnartua.

Lehenengoa trenean nindoala entzun nuen. Atzeko konpartimentuan aita-amaamak zihozten iloba txikiarekin.

Berba egiteko moduagatik umeak 6-7 urte izango zituela kalkulatu dut. Gaztelaniaz ari ziren eta ilobak amamari esan zion:

-Tú no sabes euskera, amama.

-No, no me enseñaron.

-Pero aita sí sabe.

-Claro, me encargué yo de mandarle a una escuela donde le enseñaran.

-Aita ya sabe.

-Por eso tienes que hablar en euskera, porque lo sabeis.

Beste elkarrizketa supermerkatuan entzun nuen. Aita-alabak aitaren lagun batekin zeuden.

Alaba txikiak 5 bat urte izango zituen. Aitak eta lagunak erdaraz ziharduten eta umeak aitaren lagunari halaxe esan zion:

-¿Tú sabes euskara?

-No, maitxia, no sé. Pero tú que sabes tienes que hablar en euskara.

Denbora gutxian halako bi entzuteak zer pentsatua eman dit. Euskaraz ez dakiten bik, eta honezkerok ikasiko ez dutenek umei esanez euskaraz egin behar dutela, nahiz eta eurek ez jakin.

Egia da askotan erdaldun elebakarrak oztopo zaizkigula euskaraz jarduteko, baina beste hainbatetan ahazten edo batzuk, behintzat, laguntzaile izan ditugula, bai treneko amama horren moduan sasoi batean ikastolak eraikitzen, umeak eredu euskaldunetan matrikulatzen, eta abar. Eta beste batzuk, supermerkatukoaren moduan, besteok euskaraz egin dezagun bultzatzen eta babesten.

Txepetxek hiztun tipologia egin zuenean erdaldun hauei

0+ izena eman zien. Zero ez zekitelako, baina +, positibo hori aldekoak direlako, ezin bestekoak zaizkigulako euskarak aurrera egin dezan.

Egia esatera, halako gehiago behar genituzke, euskara biziberritzeko. Korrika eta halakoak espaloitik txalotzen edo halakoetan laguntzen ez ezik, erabil dezagun animatzen.

Halako gehiago alde behar ditugu, irribarrez, askotan ahazten zaigu eta zein garrantzitsuak diren. Gure esker onenarekin, euskara euren ere badelako.

Galdera bat**MIREN AMURIZA**

HTTPS://GOO.GL/YXLAIZ

Sevillako jarraitzaileek Sadarren eskegitako pankartaz ari ginen lagun batek oraintsu gertatua kontatu zigunean: bere semearen futbitoko entrenatzailea Ruben Castroren kamisetarekin agertu zen partida batera. Gure lagunak listua irentsi eta diplomaziaz azaldu zion: "Aizu, barkatu, ez dakit badakizun, baina Ruben Castro neskalagunari tratu txarrak emateagatik auzipetuta dago. Kamiseta

horrekin genero indarkeriaren apologia egiten ari zara eta ume hauen erreferentia zarenez, arduraz jokatzeko eta berriz ez janzteko exijitzen dizugu...". Zer gertatu zen? Bada, morroia harrotu egin zela eta ondorengo astean, entrenamendura ez eze, eskolara bere haurrak jasotzera ere elastiko harexekin joan zela.

Zerbaitek huts egin zuen lagunaren mezuan, agian zer esan ondo pentsatu zuelako eta ez hainbeste nori ziotson -aldean zer zeraman soberan zekien gizon probokatzaileari-. Agian esan izan balio: "Aizu, Ruben Castro *maltratadore* bat da eta kamiseta horrekin andrazkoen kontrako biolentziaren propaganda egiten ari zara. Mutiko hauekoren batek zure alabari ipurdia uki diezaiokeela ondorioztatuko balu, zer? Ez berriro umeengana horrela agertu, salatu egingo zaitugu bestela".

Zerbaitek huts egiten du indarkeria matxistaren kontrako diskurtsoan; konbentzitzeke daudenentzako baino, jada konbentzituta daudenentzako moduan komunikatzen dugulako agian?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eu

**Aste honetako Puntua aldizkarian**

Holokaustoan hildako hiru debagoiendar

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.

Puntua aldizkaria astero etxean.

Deskontuak Goienako iragarki sailkatu eta eskeletan.

Zozketetan eta promozioetan parte hartzeko aukera.

Urteko kuota: **55€** | 943 25 05 05



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IKASTOLA EREDUA HEZKUNTZA ERALDATZEN



Matrikulazio
epa zabalik:
Urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era

www.ikastola.eus



943 76 90 71
www.aranzadiikastola.eus



943 77 20 25
www.arizmendi.eus



943 78 12 04
www.txantxikuikastola.eus

"Euskara eta herria batuz, guztiok dugu zer eskaini"

OIHANE PILDAIN ETA BEÑAT OSINAGA EKIN EMAKUMEAK ETA AED

"Euskaldun izatetik euskaltzale izateko" kontzientzia hartu duten bi gazteek mezu argia dute: "Euskararen alde egitea norberaren eguneroko konpromisoa izan behar da"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Zurekin Arrasate euskaldunago kanpainarekin dihardute AEDk, Ekinek eta Txatxilipurdi ezagutza emateko aukera eskaintzen du. Herritarrok, askotan, hain gaude sartuta gure gauzetan, ez dugu denborarik gure inguruan dauzkagun baliabideez ohartzeko. Kanpaina jendearengana hurbildu eta barneak astintzeko aitzakia izan daiteke, eta baita elkarrekin sustatzen diren ekimenak balioan jartzeko ere.

Zein arrazoi izan ditzake herritar batek elkarrekin batzeko?

B.O.: Orain dela urte eta erdi batu nintzen AED elkartera, eta ordura arte lokartuta nituen bi interes sustatzea lortu dut: euskara eta herrigintza. Betidanik nire burua euskalduntzat izan dut eta musikarekiko interesak jorratuz ekintza puntualetan parte hartu izan dut. Baina AED-ra batu naizenetik, pertsona berriak eta interesgarriak ezagutzeaz eta asko ikasteaz gain, handiagoa den zerbaiten parte naizela jabetu naiz. Euskalduna izatetik, euskaltzale bihurtzeko kontzientzia hartu dut. Euskarak eta herriak batzen gaitu eta guztiok daukagu zer eskaini.

Zer nabarmenduko zenukete euskarak Arrasaten bizi duen egoeraz?

B.O.: Euskarak hizkuntza gutxitu bat izaten jarraitzen du. Euskaraz hitz egiteko aukera dagoen horietan ere, gaztelaniara jotzen da kontzienteki edo ez. Euskararen alde egitea norberak eguneroko bete behar duen konpromisoa izan behar da.



Oihane Pildain eta Beñat Osinaga, Kulturaten, eguazten iluntzean. JOKIN BEREZIARTUA

Oihane Pildain: Beharrezkoa da euskarak jaso izan duen eta jasotzen jarraitzen duen zapalkuntzaz sentsibilizatzea eta jabetzea. Soilik orduan izango da posible euskararekin bat egin eta norabide horretan borroka-

tzea. Eta hor, AED, Ekin eta Txatxilipurdi bidelagunak dira. **Kanpainak eman al du fruiturik?**

B.O.: Poliki-poliki, bazkide egin diren eta bazkide egiteko asmoa erakutsi duten pertsonak hurbiltzen ari dira. Gainera, kan-

paina gauzatzeko, hainbat bazkideren laguntza esanguratsua eta eskertzekoa izan da.

O.P.: Kanpainak, gainera, AED, Ekin eta Txatxilipurdi ezagutza emateko aukera eskaintzen du. Herritarrok, askotan, hain gaude sartuta gure gauzetan, ez dugu denborarik gure inguruan dauzkagun baliabideez ohartzeko. Kanpaina jendearengana hurbildu eta barneak astintzeko aitzakia izan daiteke, eta baita elkarrekin sustatzen diren ekimenak balioan jartzeko ere. **Zein arrazoi izan ditzake herritar batek elkarrekin batzeko?**

B.O.: Orain dela urte eta erdi batu nintzen AED elkartera, eta ordura arte lokartuta nituen bi interes sustatzea lortu dut: euskara eta herrigintza. Betidanik nire burua euskalduntzat izan dut eta musikarekiko interesak jorratuz ekintza puntualetan parte hartu izan dut. Baina AED-ra batu naizenetik, pertsona berriak eta interesgarriak ezagutzeaz eta asko ikasteaz gain, handiagoa den zerbaiten parte naizela jabetu naiz. Euskalduna izatetik, euskaltzale bihurtzeko kontzientzia hartu dut. Euskarak eta herriak batzen gaitu eta guztiok daukagu zer eskaini.

O.P.: Egongo dira euskararen egoerarekin kezkatuta daudela edota herrigintzak erakarritako etorriko direnak. Baina baita haur edo gazteen aisialdiaz arduratzen direnak, aniztasunean euskaraz bizitzea posible dela

sinesten dutenak, pertsona guztien aukera eta eskubide berdintasuna aldarrikatzen dutelako gerturatzen direnak. Guztiak ongietorriak izango dira.

Interesa duenarentzat: nola batu daiteke elkarrekin?

B.O.: Hainbat aukera daude, norberaren interesen eta aukeren arabera. Bazkide izateaz gain, kuota arrunta edo norberak finkatutakoa ordainduta, badaude elkarrekin izateko beste aukera batzuk. Baliteke hau irakurtzen dabilen pertsona batek urtean zehar antolatutako ekintza zehatz baten parte hartzeko interesa izatea. Horrelako kasuetarako, norberaren denbora edota lan boluntarioa eskainita izan daiteke elkarrekin. **Ekitaldi berezirik aurreikusi duzue?** **B.O.:** Egun ezberdinetan kalera irtengo gara. Gainera, epe motzera, lehiaketa bat antolatuko dugu sare sozialen bitartez, ekarpenak edota proposamenak jasotzeko *Zurekin Arrasate Euskaldunago* lelopean. Aipatzekoa da martxoaren 25ean egingo den festa handia prestatzen ari gara. Baina egun hori iritsi bitartean, beste sorpresa batzuk egongo dira.

"BAZKIDE EGIN DIREN EDO EGITEKO ASMOA DUTEN PERTSONAK HURBILTZEN ARI DIRA POLIKI-POLIKI"



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Gora Arrasate! Biba Mondraue!

Arrasate da gure herria eta Arrasaten bizi gara. Mondrautarrak gara eta harro gaude. Hala, azken bi urteotan, GOIENAN, euskaldunok bihotz-bihotzetik maite ditugun zenbait elementu goratzeko aukera izan dut: San Juan, errekek, zuhaitzak, gure gazteluak eta eraikinak, mendiak eta baita Baskonia ere. Baina ez dezala inork pentsatu niri bururatutako elementuak izan direnik aurrez goratutakoak, guztiak agertzen baitira Arrasateko

armarrarian. Erdi-erdian, gaztelu ederra mendi tontorraren gainean, alboetan zuhaitz bana eta erreka azpian. Tartean, berriz, herensugea, gure kondaira eta sinesmenen

"ARRASATEKO HERRIAK, BERE ARMARRIAREN BITARTEZ, BASKONIAREN PARTE DELA HARRO ALDARRIKATU DEZAKE"

ezaugarri. Eta, azkenik, gaztelua inguratuz, Nafarroako Erreinuaren armarrarian agertzen diren kate berberak. Arrasateko herriak, bere armarrarian bitartez, Baskoniaren parte dela harro aldarrikatu dezake. Donibane Garaziko armarrarian ez bezala, gurean ez da San Juanik agertzen. Haatik, herensugeen eta piztien aurkako mondrautarron zaindariaren irudi ederra badaukagu Arrasaten eta zein harro ateratzen dugun kalera San Juan bezperan.

Udaleko batzordeak herritarrei irekitzea eskatu du Baleikek

Baleike udal taldeak "herritarren parte-hartze zuzenerako eta gardentasunerako" eskaera formal egin dio Udal Gobernuari. Batzorde informatzaileetan herritarrek parte hartzeko aukera izatea eskatu dute. Horrez gain, batzorde horietako aktak publiko egitea ere nahi dute, bertan izaten diren akordioak herritarrei "modu erraz eta gardenean" eskuragarri jartzeko. "Urrats handiak" dira horiek, diotenez. "Udal administrazioa erakunde irekiago bilakatuko luke, herritarrei erakundeekiko fiskalizazioa eta kontrola erraztuz. Finean, udal demokrazia herritarrei zabalduko litzaieke", gaineratu dute ohar bidez.

ARRASATE IRRATIA

Kooltur: Atom Rhumba

Otsailaren 2an Atom Rhumba taldeak joko du Kooltur Otegunak ekimenaren barruan. Bada, taldeko kide Joseba Iratzoki etorriko da *Igo autobusera!* saiora, eta, besteak beste, taldearen eta eguneko kontzertuaren nondik norakoak azalduko ditu. Kontzertuaren egun berean bi sarrera zozketatuko dira. Parte hartzeko: 943 25 05 edo irratia@goiena.eus.

Asteko elkarrizketak

Astelehenean egubakoitzera *Igo autobusera!* saioa entzuteko aukerarik ez dutenek aste bukaeretan asteko elkarrizketen bilduma entzuteko aukera izango dute. Beraz, asteburuetan ere FMko 107.7 sintonizatu!



Udaletxean domeka goizaldean sartu ziren giltzak ostu ostean; ez zuten balio handiko ezer eraman. JOKIN BEREZIARTUA

Udal eraikin gehienetan sartu dira urte eta erdian

Udaletxean eta Etxaluzen lapurretan egin dute asteburuan eta aurretik Emakume Txokoan, Kulturaten, Azoka Plazan eta gazte txokoetan ere sartu izan dira; alkateak uste du "gogoeta sakon" bat behar dela neurriak hartzeko: "Erantzun bat eman behar dugu"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Lapurretak albiste dira berriro ere Arrasaten. Oraingoan, gainera, bereziki azpimarragarria da lapurrak udaletxean sartu direla; domekan izan zen, hilak 21, goizaldeko bostak inguruan. Gaueko txandan lanean zeuden udaltzainak ordu horretan konturatu ziren beheko sarrerako ate bat erdi irekita zegoela. "Hipotesia da giltzak erabilia sartu zirela. Giltza batzuk falta zirela bagenekien eta uste dugu lapurtutako giltza horiekin sartu direla; izan ere, beheko ateko hesia behartu barik ireki zuten", dio Maria Ubarretxena alkateak.

Alkatearen arabera, "hankaz gora" topatu zuten domeka goizean alkatetza eta idazkaritza: "Nire bulegoko kaxoi eta armairu guztiak irekita zeuden, dena nahastuta, baina balio handiko gauzarik ez dute eraman. Nik, adibidez, argazki kamera bat eta txanpon batzuk ditut mahai ondoko kaxoian, baina ez dute halakorik eraman". Horregatik,

ez dute argi zein izan zen lapurretaren helburua; dokumentu batzuen bila-edo etorriko zirela uste dute; Ertzaintza ikertzen dabil. "Atzo [domeka] etorri ziren, goizeko lehen orduan. Hauts beltz berezi batekin hainbat aztarna atera dituzte, eta analizatzeraz eraman. Oraingoan, ez daukagu berri gehiago", dio alkateak.

Erantzun beharra, "ezinbestean"

Domeka gauean Etxaluzen ere sartu ziren. Gogora ekarri behar da Abaroa erretiratu elkarteko bazkideak bertan elkartzen direla. Udaletxeko giltzekin batera Etxaluzekoak ere bazeuden eta uste dute hori aprobetxatu zutela lapurrek diru-kutxa eramateko. 300 bat euro lapurtu zutela kalkulatu da. Atzera eginda, hainbat izan dira lapurren *bisita* jaso duten udal eraikinak. Urte eta erdian sartu dira Emakume Txokoan, Kulturaten, Azoka Plazan, gazte txokoan, ludotekan, Etxaluzen, udaletxean... "Ustedut momentua iritsi dela haus-

narketa sakon bat egiteko eta birpentsatzeko ea udal eraikinek segurtasun neurri egokiak dituzten edo ez", dio Ubarretxenak.

Segurtasun kamerak jarriko diren galdetuta, honakoa dio alkateak: "Ez dakigu kamerak jarriko diren edo ez. Hainbat eraikin izan dira oso epe laburrean, eta erantzun bat eman behar zaio ezinbestean. Teknikariekin eta segurtasunaz dakiten adituekin adostu beharko dugu zein izango den hartu beharreko neurriarik egokiena".

EH Bildu: "Gehiago egin zitekeen"

EH Bilduren arabera, duela ia hamar egun udal langile batzuei lapurtu zizkieten giltzak: "Ez duguna ulertzen da giltzen falta salatu ostean zergatik ez diren aldatu beharreko sarraila denak aldatu. *Negligentzia* hitza dator kigu burura. Lapurreten aurkako borrokan lehen neurria norbere buruaren zaintza arduratsua da. Zaintza arduratsu hori bera eskatuko diogu gobernari".

San Balerixo jaiak ospatuko dituzte asteburuan Meatzerrekan

Mus txapelketa gaur: 18:00etatik 22:30era eman ahalko da izena (943 79 97 37); 30 euro bikote bakoitzeko

J.B. ARRASATE

Gaur hasi eta domekara arte jai giroa izango da nagusi Meatzerreka auzoan. Jaien hasiera iragartzeko suziriak jaurti ostean (18:00), Arantza Otadui historialariak *Meatzerekoak* izeneko hitzaldia eskainiko du (19:00). Ondoren, jaietako plater nagusietako bat izaten den mus txapelketa jokatu dute, 22:30ean hasita, auzoko elkarrean. 36. edizioa izango da aurtengoa; izen-ematea gaur bertan irekiko dute, 18:00etatik 22:30era (943 79 97 37). Zortzi erregetara

jokatuko dute eta lehen lau bikoteek jasoko dute saria. Bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko du.

Bihar, zapatua, umeendako eta gaztetxoendako jolasak eta txokolate-jana (16:00), txerri harropaketa (18:00) eta auzotarrendako afaria (21:00) izango dituzte. Domekan, amaitzeko, meza izango dute San Balerixoko ermitan Gesalibarko eta Gargartzako koruen parte hartzearekin (11:00), eta, jaiak borobiltzeko, Txikitxu dantza taldearen emanaldia izango dute (11:30).

Eskailera grisa zena, artelan

Herriko muralisten MuralArt taldeak amaitu du Otolara Lizentziaduna eta Olarte kalea lotzen dituen eskaileretako murala. Udalarekin elkarlanean egin dute; arrasatearrek sei zirribororen artean aukeratu zuten MuralArt-ek gauzatu duena. Gaztelu baten harresia irudikatzen du irudiak; proiektuak 2.305 euroko aurrekontua izan du.



JOKIN BEREZIARTUA



IMANOL SORIANO

Urteurrenean ere, jaizalez josita

Jai Zale tabernaren bigarren urteurrenarekin "oso pozik" daude Euskal Herrian Euskaraz taldekoak. Ekintza guztiak jende asko erakarri zuten: Iker Lauroba eta Leire Berasaluze, Kamarheroiak –argazkian–, Eider Garro eta Leire Etxezarreta, Albiste Kaskarrak taldea, Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariak... Martxoaren 18an Arrasaten egingo da Euskaraz Bizi Eguna.

Eraldaketarako gunea, parekidetasuna helburu

Emakume Txokoaren eta Jabetze Eskolaren urtarriletik maiatzera arteko ikastaroetan eta tailerretan izena emateko "jende asko eta berria" hurbildu da: "Berrien artean asko gazteak dira eta hori poztekoa da"; gaur 15:00ak arte eman daiteke izena (943 79 41 39)

Jokin Bereziartua ARRASATE

Telefona jo eta jo aritu da asteon Emakume Txokoan. Urtarriletik maiatzera bitarteko egitarauaren barruan, ikastaroetako eta tailerretako izen-ematea ireki zen astelehenean eta gaur, egubakoitza, itxiko da -15:00ak arte eman daiteke izena, 943 79 41 39 telefono zenbakira deituta-. "Jende askok deitu du telefonoz eta beste asko hona etorri dira. Interes handia piztu dute ikastaroek eta jende askok eman du izena. Pozik gaude", dio Emakume Txokoko teknikari Esther Lizarralde.

Eskaintza zabal da oso. "Ikastaro batzuk arrakasta handiagoa izaten dute hainbat arrazoirengatik: modan daudelako, behar bat dagoelako... Orduan, dagoen lekua baino jende gehiagok ematen badu izena, zozketa egiten dugu". Taldeak mugatuak dira, modu egokian lan egiteko kopuru mugatuak izatea "ezinbestekoa" dela ulertzen dutelako: "Izen abizen guztiak hartzen ditugu eta saiatzen gara aukera ematen emakume guztiei behintzat ikastaroren baten parte har dezaten". Izan ere, lehentasuna dute Arrasaten errolatuta dauden emakumeek eta aurretik ikastaro hori egin ez dutenak: "Orain arte pare bat ikastarotan gertatu da hori, eta halako kasuetan zozketa egiten dugu". Alderantziz ere gertatzen da, hau da, ikastaroak aurrera egin ahal izateko nahikoa parte hartzaile ez direla lortzen.

Elkartu, hausnartu eta trebatu

Urtean zehar, urtarriletik maiatzera eta irailetik abendura arteko plangintza izaten dute. 2017ko lehen plangintza honi *Asko eta askotariakoak gara, gora feminismoak!* leloa jarri diote. Ikastaro bakoitzaren helburu zehatzaz harago, helburu orokorrak dira emakumeak elkarrekin egotea ahalbidetzea, eztabaida-



lazio ikasturte amaierako topaketa, ikastaro ezberdinetako partaideekin. EMAKUME TXOKOA

IRIZPIDE NAGUSIA DA LEHENTASUNA EMATEA ARRASATEN ERROLDATUTA DAUDEN EMAKUMEEI

zteza, hausnartzea eta trebatzea. Zentzu horretan antolatzen dituzte ikastaroak, Udaleko Berdintasun Saileretik gizarte eraldaketa bat bultzatu gura delako non gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortuko den: "Antolatu ditugun ikastaroen eta tailerren bidez erreparatuko diogu gure errealitateari ikuspegi feminista batetik, saiatuko gara kultura birdefinitzen ikuspegi horretatik, eta eskuratuko ditugu parte hartze sozial eta politikorako tresnak".

"Elkar laguntza eta giro ona"

Era berean, jendarte parekidea- ren bidean, Jabetze Eskolak "eraldaketarako gunea" bat eskaintzen duela diote antolatzaileek: "Espazio bat, oinarri dituen askatasuna, konfiantza, konplizitatea, elkar laguntza eta giro ona".

Jende berria gerturatu da

Azken urteetan ikastaro horien ganako interesak gora egin duen kalkulatzea zaila bada ere, Lizarralde nabarmendu du jende berria ari dela gerturatzen: "Ez dira *betikoak* bakarrik izena eman dutenak. Orain arte parte hartu ez duen jende askotxo dabil gerturatzen. Jende berri horren barruan gazteak dira asko eta hori poztekoa da". Izen-ematea zabalik dago oraindik eta horregatik ez dute daturik, baina pozik daude Emakume Txokoan oraingoan "kopuru polita" lortuko dutelako.

Plangintza antolatzeko lan metodologia dinamikoa dute Emakume Txokoan, izan ere, aurretik antolatzen diren ikastaroek nolako bilakaera izan duten aztertzen dute, parte hartzaileen balorazioak eta eskaerak aintzat hartuta.

Era berean, Jabetze Eskolan lan ildoak eta lehentasunak markatzen dituzte. "Aurretik badago balorazio lan bat gaur egun martxan dauden ikastaroak antolatzeko. Batzuetan gehiago asmatzen dugu eta beste batzuetan gutxiago", argitu du Esther Lizarralde.



Ume kuadrilla Biteri plazako izotz pistaz gozatzen. AMAIA TXINTXURRETA

"Nabarmen" igo da aurten izotz pistaren erabiltzaile kopurua

Udala "pozik" dago Biteriko pistak izan duen "harrera ona eta arrakasta" ikusita; 4.242 sarrera saldu dira

J.B. ARRASATE

Aurten bigarren urtez Biteri plazan izotz pista jarri du Udalak, abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra bitartean. Guztira 4.242 sarrera saldu ziren. Iazko datuekin alderatuta, saldutako sarreraren kopurua "nabarmen" igo da, eta, horregatik, Udal Gobernuak "pozik" azaldu da ekimen berritzaile honek aurten ere herritarren artean izan duen "arrakasta eta harrera ezin hobea" gertatzen.

Aurten, pistaren azalera handiagoa izan da -20 metro luze eta 14 metro zabal, hain justu-, hainbat ikastaro eta ekintza antolatu dira -hockey txapelketak antolatu dira, besteak beste- eta pistaren eremua Egu-berritako argiez eta musikaz girotu da. "Horri guztiari esker, izotz pista are erakargarriagoa egitea lortu da", azaldu dute

ohar bidez. Erabiltzaile gehienak haurrak izan arren -3.981 ume, hain zuzen ere-, aurten iaz baino gazte eta heldu gehiagok hartu dute parte, zehazki 261 lagunek. Erabiltzaileei eskerrak emateaz gain, hezitzaileen eta ekintzen dinamizatzailen inplikazioa goraipatu dute.

Errepikatu, ekimen berriekin

Maria Ubarretxena alkatea, gainera, izotz pistaren erabiltzaileek egin duten "balorazioa oso ona eta baikorra" izan dela adierazi du, eta honako hau gaineratu: "Datorren urtera begira ekimenari jarraipena eman eta ekintza berriak sustatzen saiatuko gara, are gehiago, herritarren parte hartze eta harrera ezin hobea ikusita".

Sevillako Extraice enpresari esleitu zitzaion izotz pista, 31.097 eurotan (BEZa barne).

Edukiontzia gehiago eskatu dizkio Udalak Mankomunitateari

Hondakinen bilketaren inguruan atzeman diren arazoak aintzat hartuta, Udalak Mankomunitateari eskatu dio edukiontzia gehiago jartzeko Arrasaten: "Hainbat edukiontzia beteta egoten dira eta zaborra lurrean edonola botata eta pilatuta geratzen da". Arazo horri "irtenbide azkarra" emateko eskatu dio Udal Gobernuak Mankomunitateari.

Santa Agenda bezpera eguna prestatzeko batzarra eguaztenean

Otsailaren 4an da Santa Ageda bezpera, koruak kantuan irteten diren eguna. Hori dela eta, datorren eguaztenean, otsailaren 1ean, koruek batzarra egingo dute Amaieur elkartearen -Eusko Alkartasunaren egoitza-, gaueko bederatzietan. Bestetik, jakinarazi dute iaz 5.630 euro jaso zituztela; urtero moduan, Caritasi eman zioten dirua.



MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

HAUR HEZKUNTZAN ETA
LEHEN HEZKUNTZAN

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Bilera informatiboak:

- Urtarrilaren 31n, 18:00etan **Bedoñaben**
- Otsailaren 2an, 18:00etan **Erguinen**
- **Musakolan** bilera eginda

(Bileretara ezin bazarete etorri deitu eskolara eta arretaz hartuko zaitugu.)

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu
integrala irailean, uztailan eta gorriz ez
diren eskolako opor egun guztietan

GUZTION ESKOLA, GUZTION ARTEAN



Lan erdiak egin ditu MUK, beste erdia geratzen da

Lehenengo itzulian bost garaipen batu ditu talde arrasatearrak, eta bigarren itzulian beste horrenbeste egin gura dute; gezurra badirudi ere, iaz, talde sendagoarekin, garaipen bat gutxiago zuten. Bihar, Easo Loquillo izango da Iturripen (18:30)

Xabier Urzelai ARRASATE

Zelan diren kontuak, hilabeteak MUKo saskibalo taldean dituzten hutsuneak gogorarazten – Barberena, Barbero...– eta, hala ere, lehenengo itzulia amaitu berritan, taldearen zenbakiak iazkoak baino hobekak dira, Josu Larreategik Arrasate Irratian ondo gogorazti duenez. Hala, lehenengo itzulia amaitu duten honetan, geldialdia egiteko unea da, eta egindakoa errepasatzeko momentua. Eta datuek diote arrasatearrek bost garaipen dituztela, Tolosaren (76-64), Venta de Bañosen (66-96), Valle de Eguesen (72-58), Ulacia Gruporen (57-64) eta Grupo de Santiago Automocionen kontra (70-75) lortutakoak.

Gazteek, pauso bat aurrera

Hala, gazteak izan arren taldean urteak daramatzaten jokalarien aurrerapausoa espero du entrenatzaile eskoriatzarrak: "Badirudi 30 urte dituzten jokalarien



Jon Ugarteburu, Venta de Bañosen kontrako lehiarian. EKAITZ FILARMENDI

gainean gabiltzala berbetan, baina ez, 25 urte edo gutxiago dituzte. Gazteak dira, baina dagoneko esperientzia pilatu dute EBAn, askorendako hirugarren urtea delako, eta horiek pauso bat eman behar dute aurrera".

Easoren bisita, zapatuan

Bigarren itzulia hasiko dute bihar MUKoek (18:30, Iturripen) eta laugarren dagoen Easo izango dute aurrean. Lehen itzuliko partiduan, donostiarrak gailendu ziren (81-66).

Zelan dago taldea, liga erdi jokotuta?



JOSU LARREATEGI
MU-KO ENTRENATZAILEA

"Ez dugu aitzakiarik jarriko; egia da jendea falta zaigula, baina daukagun taldearekin egingo dugu aurrera. Datu bat emango dut: iaz jokalaria gehiago genituen, baina aurten baino garaipen bat gutxiagorekin amaitu genuen lehenengo itzulia".



MARTXEL BALZATEGI
MU-KO JOKALARIA

"Bagenekien urte gogorra izango zela, eta, partidu asko irabazi ez ditugun arren, garrantzitsuenak irabazi ditugu; horrek ilusioa ematen digu bigarren itzulirako. Taldekide batzuen hutsunea igartzen dugu, baina ez daudenengan pentsatzeak ez du zentzurik".



GORKA AREJOLALEIBA
MU-KO JOKALARIA

"Pielagos, Estela, Ardoi... Badaude talde batzuk ez direla gure ligakoak; hau da, beste maila batean daudela. Fitxatzeko gaitasuna dute, kanpotarrak dituzte... Baina beste batzuk gure mailakoak dira, eta horiei irabazi egin behar diegu bai edo bai".



Mondrateko jokalaria Kevin, Jaixkiren kontrako garaipenean. IMANOL SORIANO

Bost garaipen jarraian batuta, geldiezin dago Mondrate

Denboraldian izan duen bolada onenak lehenengo postura eraman du areto futbol taldea, eta lider da

X.U. ARRASATE

Denboraldi osoan partidu bakarra galdu dute. Orain arte, Egarrri taldea baino ez da izan gauza zuri-moreak gerarazteko, eta alde txikiagatik izan zen (5-4). Gainontzeko taldeek lehenengo itzulian amore eman behar izan dute, edo berdinketa batekin konformatu –ISU Leihoak eta

Iurre Taberna–. Hala, 35 puntu batuta, arrasatearrak Gipuzkoako Txapelketako liderrak dira, eta zazpi puntuko aldea dute bigarrenarekiko. Garbi dute datorren urtean Eskoriatzarekin eta Aretxabaletarekin egon gura dutela Euskadiko Txapelketan. Hurrengo koska, Ibarra, domekan (11:30), Laubururen kontra.

Ford Mugarriren bertsiorik onena, liderraren aurrean

Eskubaloari dagokionez, lehen postuan sendo zegoen Basauri mendean hartu zuten joan den astean arrasatearrek (25-23). Eta, normala den moduan, Patxi Garcia entrenatzailea gustura azaldu zen taldeak egindako partidarekin. "Une oro, partiduan zentratuta egon gara. Defentsan gogor, eta erasoan pazientzia izan dugu luze jokatzeko, baloia

ondo mugituz eta jokaldiak gauzatu", adierazi zion GOIENARI.

Bost garaipen jarraian

Lehenengo itzuli irregularra egin dute arrasatearrek, eta, azken bost partiduetan garaipena lortu badute ere, Ford Mugarri laugarren postuan jarraitzen du. Bigarren itzulian, baina, lehenengoan baino itxura askoz hobea erakusten dabilta. Hasteko, Pulpo eta Basauri menderatu dituzte. Hurrengo erronka, Muskizen (domeka, 12:00).

Arrasate-Udalatxeko izen-ematea hamasei ordutan bete zen

Joan den asteko aurreikuspenak bete egin ziren; izan ere, Arrasate-Udalatx lasterketako izen-ematea zabaldu zuten egubakoitz gauerdian, eta hamasei ordutan 300 dortsalek jabea zuten. Hala, kanpoan geratu diren korrikalariak oraindik badute itxaropena, antolatzaileek itxaron zerrenda jarri dute-eta.

Errugbi taldeak kontrario gogorra du zain Elorriren

Joan den astean Bilboko Unibertsitateko bigarren taldeari jipoi ederra eman ostean (69-0), Jokin Dolarak aurreratu zuen asteburu honetan erronka handiagoa izango dutela: "Elorriora joango gara, eta han bestelako kontuak izango dira, kontrario gogorra, lokatza...". Zapatuan 16:00etan jokatu dute.

"Obrak hainbat gai ditu bihotza ukitzen dutenak"

ANDER LIPUS AKTOREA

Domekan 'Francoren bilobari gutuna' obra egongo da Amaian (19:30), Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Theatre de Pain taldeen arteko elkarlanari esker

Jokin Bereziartua ARRASATE

Ander Lipus (Markina-Xemein, 1971) *Francoren bilobari gutuna* obrarekin dabil buru-belarri. Ekainera arte Euskal Herriko hainbat txokotatik pasatuko dira. **Oñatiko emanaldiarekin oso gustura geratu zen jendea. Eta zuek?** Gu ere bai. Aktoreok izan dezakegun sari ederrena plaza bete ikustea da eta Oñatin ere ia goraino bete zen aretoa.

Obra bihotzera heltzen dela diote.

Gaia oso potoloa da, sakona. Frankismoak eragindako minak ageri dira, besteak beste. Ospitale baten gertatzen da; ospitale baten denetarik dago, heriotza zein bizitza. Hortaz, baliatu di-



Lipus, Oñatiko emanaldian. I.S.

tugu ospitale bateko pertsonaia eta istorio ezberdinak garai hura islatzeko. Batzuetan, samurtasunetik eta umoretatik, eta, beste batzuetan, tragediatik. Ordu eta 45 minutu irauten du antzezlanak, baina oso erritmo bizia du, pertsonaia askorekin.

Hiru taldek elkarlanean egindako obra. Pozteko albistea al da hori?

Guretzat, pozgarria eta pizgarria da. Hirugarren aldia da, aurretik *Errautsak* eta *Hamlet* taularatu genituen. Hiru urtean behin erabiltzen dugun formula da eta jendea adi egoten da gu ikustera etortzeko. Frogatu dugu probintzia ezberdinetakoak izanda ere elkarlanean euskarazko obra

bat egin dezakegula. Frogatu dugu hori posible dela.

Eta gidoilari lanetan bertsolari bat jarrita; Igor Elortza, kasu honetan.

Bertsolariek gauza asko dituzte onak. Batetik, oso ondo ezagutzen dute Euskal Herria eta oso jantzita egon ohi dira arlo askotan. Ahozkotasunaren eta bat-batekotasunaren trebezia dute, eta euskararena, zer esanik ez. Oso pozik gaude Igorren lanarekin eta uste dut ikusleak igarri duela atzean dagoen lana.

Atzeko lan horrekin pozik zaudete?

Oso pozik. Antzerkiaren funtsik inportanteena da agertoki gainean ageri diren aktoreez gain, atzean jende asko dagoela. Zuzendari bat badago, azken hitza eman duen horren figura beharrezkoa delako, baina guztion arteko sorkuntza lan bat da.

Ikerketa lan bat ere badago atzetik.

Propio sortutako webgunean [www.franco.eus] irakur daiteke eta gaiekin zein pertsonaiekin islatzen da. Gure herriaren historia ari gara: *trabajadoriak*, kontzentrazio esparruak, ume lapurtuak, torturak, euskararen aurkako jazarpena... Hainbat gai daude bihotza ukitzen dutenak.

'El elixir de amor' operarako sarrerak, domekatik aurrera

Ozenki elkartearen eskutik, *El elixir de amor* opera martxoaren 21ean (20:00) helduko da Amaia antzokira, Kultura Saileko egitarauan martxoaren 22an helduko dela iragarri arren. Sarrearak domekan jarriko dituzte salgai, 30 eurotan: Kutxabanken, Udalaren webgunean edota ozenkielkarrea@hotmail.es helbidera idatzita eskura daitezke.

ArtGazki elkartearen erakusketa ikusteko aukera bihar arte

Herriko ArtGazki elkarteak Kulturategiaren klastroan ikusgai duen *Udazkena Euskal Herrian* erakusketa bihar, zapatua, itxiko dute. Erakusketako argazki batzuk salgai daude oraindik; jasotako dirua Aspanogirentzat –Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarrea– izango da. Domekan egingo dute sari bana-keta ekitaldia, 12:00etan.

ARRASATEKO UDAL HAUR ESCOLA

UMEZAINNTZA

0-3 URTE
San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI
0-3 URTE
Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25 www.arizmendi.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua



arizmendi
ikastola



matrikula
epea zabalik
.....
urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era
.....



Dei berezia herritarrei, odola eman dezaten

Jakinarazi dute ohiko erreserbek behera egin dutela azken hilabetean. Arabako odol bankuko autobusa etorriko da Durana kalera datozen hiru astelehenetan, 16:45etik 20:00etara, eta ohiko odol-emaileez gain berriak erakarri gura dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Urtarrilaren 31n eta otsailaren 6an eta 13an etorriko da Arabako odol bankuko autobusa Durana kalera. Eta 16:45etik 20:00etara bitartean egongo da han odola emango duten aretxabaletarren zain.

Erreserbak behera

Euskadiko odol emaileen elkarrekin jakinarazi du odol erreserbek behera egin dutela eta ospitaleetan duten premia asetzeko, esaterako, erreserba horiek hobetu beharrean direla. "Istripuak direla, negu partean izan ohi diren gaixoaldiak direla, behera egin du erreserbak", dio Ruben

Alonsok, Aretxabaletako odol-emaileen koordinatzaileak. "Odola, gainera, ezin da fabrikatu, eta ez du askorik irauten: plaketek, bost egun; globulu gorriek 42 egun; plasmak, urtebete".

Aretxabaletan 264 emaile daude eta deialdi bakoitzean 120 bat lagunek ematen dute odola. Ohiko emaile horiek etxean jaso dute odola ematera joateko deia,

ARETXABALETAN 264 ODOL EMAILE DAUDE ETA DEIALDI BAKOITZEAN 120 INGURUK EMATEN DU

baina, horiekin batera, ohiko ez direnak gura dituzte, eta, bereziki, gazteak.

Zalantzak argitzeko medikua

Emaile izateko 18 urte behar dira, 70 urtetik behera, eta 50 kilo, gutxienez. "Horiek dira oinarritzko baldintzak. Bestelako zalantzarik izanez gero -antibiotikoak hartzen egon izana, tatuaje bat izatea, bakunaren bat hartu izana...-, bertan egoten den medikuak argitzen ditu", dio Alonsok. Eta gaineratu du: "Ez da komeni baraurik joatea; ezta jatordu bat egin berritan ere, ordu pare bat behar dira digestioa egiteko".

"Gazteak animatu gura ditut ematera"

RUBEN ALONSO
KOORDINATZAILEA

Erizaina da Alonso, eta orain dela urtebetetik Aretxabaletako odol-emaileen koordinatzailea. **Zelan erantzun izan diete aretxabaletarrek deialdiei?** Nahiko ondo. Arduradunek diotenez, emaitza politak jaso izan dira. Pentsa, azkeneko joan nintzenez ematera, ordu eta erdi itxaron beharko nuela esan zidaten.

Zeintzuk animatuko zenituzke, bereziki, odola ematera?

Gazteak; izan ere, arrazoi bategatik edo besteagatik ez dute askok ematen -tatuajeak dituztelako, *pearing*-ak, bikotekide egonkorrik ez...-. Horrek ez du esan gura ez direnik solidarioak, ezjakintasuna ere egon daiteke



M.A.

atzean. Horregatik, ikastetxeetan kanpainatxo batzuk egin gurako nitzuzke guraso elkarrekin bitartez. Etxean bizitakoak ere badu zeresana; gurasoak emaileak izanez gero, ume horiek emaile izan daitezke gerora, etxean hori jaso dutelako.

Oraingoan, autobusa etorriko da, zergatik?

Bai; herritarrek ohartarazteko da, batez ere. Ohiko odol emaileek etxean jasoko dute deialdia, eta, autobusarekin, ohikoak ez direnak ekarri gura ditugu. Uste dugu kartelekin baino gehiago erakarriko ditugula horrela. Gainera, oso autobus erosoak da, bost lagunek batera eman dezakete odola han.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka@euskalnet.net
www.pausoka.eu

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

Bulego ordutegia:
09:00-14:00 / 16:00-18:00

matrikulazio epea zabalik

zeuria
zeuena
geuria



Kantuan egiteko aitzakia azken egubakoitzetan

Kantu Poteo taldeak kale bazterak girotuko ditu gaur, hilabeteko azken egubakoitza, kantu eta doinu alaiekin. Dagoeneko hiru urte daramatzate, eta, gorabeherak izan badituzte ere, gogotsu jarraitzen dute; atek zabalik dituzte edonorendako

Mirari Altube ARETXABALETA

Hileko azken egubakoitz guztietan legez, Kantu Poteo taldeko kideek kale bazterak girotuko dituzte gaur, 19:30ean hasita. Dagoeneko hiru urte daramatzate horretan, eta, herrian ez ezik, kanpoan ere ezagutu dituzte; Iruñean, Sartagudan eta Donostian, besteak beste.

Bigarren kantu liburua

Elkartean kantuan jardutetik plazara kantatzera egin zuten salto Kantu Poteoko lagunek: "Hilabeteko azken egubakoitzetan egiten den presoen aldeko elkarretaratzeak indartzeko asmoarekin hasi ginen eta hemen jarraitzen dugu", dio Josu Mendieta kideak. Kantuan hasi zen taldeari musikariak batu zitzaizkion eta trikitilariak eta Leikaixoka bertso eskolako kideekin borobildu izan dituzte ekitaldiak: "Guk kantuan egin, eurek bertso batzuk bota...". Dagoeneko bigarren kantu liburua darabilte eskuartean: "Gazteak ekarri gura ditugu taldera, baina abesti zaharrek hori zaila dela diot nik. Bigarren liburuan gaur egungo taldeen abestiak ere sartu ditugu". Onartu du gorabeherak izan dituela taldeak eta hiru urtean indarra galdu duela: "Hasieran, entsegu



Taldea Iruñeko kaleetan iaz. KANTU POTEOA

asko egiten genituen, baina saltsa askotan gabiltza guztiok eta ez da samurra elkartzea".

Herriko tabernen diru-laguntza jaso ohi dute, eta gero taberna horietara joaten dira kantuan. Eta poteoa ezin bukatu elkartean afaldu gabe: "Batzuetan gehiago eta hurrengoan gutxiago elkartzen gara, baina hogeitaz lagunetik gora gehienetan, behintzat afaltzeko". Poteoan bakarrik ez, aurten zaharren egoitzan ere izan dira lehenengoz: "Hunkigarria izan zen ekitaldia eta sarriago joateko gogotsu agertu ginen guztiok".

Kanpoan kantuan

Iruñean, Sartagudan, Donostian... ere izan dira: "Sartagudakoa egun-pasa benetan polita izan zen, pena handiarekin itzuli ginen etxera gauetan. Donostian, osterara, diskorik ote genuen saltzeko esan ziguten", dio Mendieta. Han eta hemen lagun asko egin dituzte eta udaberri inguruan Aretxabaletan elkartu gurako lukete horiekin guztiok: "Topaketa dotorea izango litzateke, gu geu ere indartuko gintuzke horrek. Baina aurretik kontu asko lotu behar dira, hortaz, ikusi egin behar...".

Taldeari eskainitako kantua

Bizirik sentitu
abestia Aitor Ziardegi aretxabaletarrak taldearendako sortu zuen.



Saiatuta be ondio ez gare milagrorik egitten hasi baina bizitzan dana ei danez ikusi eta ikasi. Aspaldi dala bateron batek

ura ei zauen ardotu guk orain baietz haren ardua abesti eder bihurtu.

Herrixak herrixarentzat egin dagigun kantu kantuz egitten gara batu eta bizirik sentitu.

Herri kulturaren gure alia jartzeko gure manera. Gure artien falta dienak

present egoteko era. Sinisten dogu egin leikela era honetan herrigintza nahi dogulako herri aske bat eta koloreanitzta.

Kantatzen dauen txorixa ez da kaiolan ere ixiltzen bere kantua berez da libre ta dau bera libre egitten. Kantatzen dauen herri hau inoiz ixilarazi ez daixien jarrai dezagun Euskal Herrixa kantu librez laztantzen.



NIRE USTEZ

INAXIO GARRO

Bakarrak munduan...

Raimundo Sarriegi maisuak konposatutakoaren arabera, Sebastian bat da zeruan, eta Donostia bakarra munduan. Ez naiz ni izango horren inguruan eztabaida piztuko duena. Besteak beste, gehienoi Donostia zoragarria dela iruditzen zaigulako.

Kalerik kale danborra joaz ibiltzen dira umore ona zabaldu nahian, penak zokora botaz eta herritarrak festara joan daitezen animatuz. Izan ere, Inauteriak datoz...

Beste mailatxo batean, neuk ere gauza bera egin nahi dut honen bitartez. Guk Aretxabaletan ez daukagu danborrada jendetsu eta miresgarririk, baina oso geureak diren ohiturek bizi-bizi diraute, eta horiek balioan jarri nahi ditut. Bateko Santa Ageda neska-mutilak, besteko Txapel Txin jaia eta hango Inauteri Domeka eguna Aretxabaletan izanda, guk inori inbidiarik badiogu, ala?

Raimundo Sarriegiren kantarekin bat eginez, irten gaitezen aretxabaletarrak geureaz ere gozatzera. Ospa dezagun gu ere bakarrak garela munduan!

Anjel Bergaretxek ordezkatzeko du Oihane Etxebarria udaletxean

M.A. ARETXABALETA

EH Bilduko Oihane Etxebarria zinegotziak kargua uzteko eskaera egin zuen eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran, eta udalbatzak onartu egin zion. Kontu pertsonalak izan dira kargua uzteko arrazoia.

Etxeberriaren ordezkari Anjel Bergaretxe sartzea proposatu du EH Bilduk; hain zuzen ere, udal hauteskunde zerrendan hurrengoa. Hauteskunde-batzordeari egin diote eskaera eta haren onespena jasotakoan sartuko da.

Urte eta erdian egindako lana eskertu nahi izan dio Udal gobernuak Etxebarriari: "Norberaren denbora xahutzen duen



Anjel Bergaretxe. EH BILDU

arren, sarritan esker txarrekoa den kargu honetan borondate onenaz lanean aritu izanagatik. Gure desiorik onena Oihane-entzat eta ongiatorria Anjel Bergaretxeri".

Bihar jarriko dituzte salgai Aratusteetako bazkarirako txartelak

Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak bihar, zapatua, 09:00etan, jarriko dituzte salgai, Arkupen. Kuadrillaka eman behar da izena, eta, horretarako, kide bakoitzaren izen-abizenak idatzita eroan beharko dituzte, baita horren arduradunaren telefono zenbakia ere. Helduen menua 17 euro da eta umeena, 13 euro.

Oier Bernalen omenezko jaialdia bihar Gasteizen

Oier Bernal gaztea izango dute gogoan bihar, zapatua, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan egingo duten musika jaialdian; lau talde izango dira; besteak beste, Crisix kataluniarra eta Governors. Sarrera 10 euro da aurretik eta 13 euro leihatilan, eta jasotako dirua minbiziaren aurka lan egiten duen HCxHC elkartearendako izango da.

Aretxabaleta liderra helburu berriekin dator

Aste bukaera honetan Aretxabaleta areto futbol taldeak Scalibur taldearen aurka jokatu du, 16:30ean, Ibarra kiroldegian. Bigarren itzulia hasiko dute jardunaldi honetan, eta, helburu berriekin, orain arte egin duten bide beretik jarraitu nahi dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleta areto futbol taldea liderra da Euskal Ligan, 32 puntuekin, eta, postuari eutsi nahian, zapatuan Scalibur taldea garaitu gura dute, sailkapenaren gorenean jarraitzeko.

Ibarra kiroldegian izango da partidua, zapatuan, 16:30ean, eta Arkaitz Ribera entrenatzaileak zaleak animatu gura ditu, taldeari animoak ematera joan daitezela. "Duela bi jardunaldi Pasaiako Afantxo Pescados Ferreres taldeari –sailkapenean bigarrena– irabazi ostean jarri ginen lidergoan, eta lehenengo itzulia lehen postuan bukatzea pozgarria izan da. Orain, bigarren itzulia hasiko dugu eta bide beretik jarraitu nahi dugu. Denboraldia hasi zenetik hona, helburuak aldatu egin ditugu taldearen ibilbide ona ikusi ostean, eta lehenengo hiru postuen artean geratzea da asmo berria".

Partidu bakarra galdu, bi berdindu eta gainerakoak irabazi egin dituzte denboraldi honetan Arkaitz Riberen mutilek, eta talde lehiakorra osatu dutela adierazi du: "Denboraldi ona egiten ari gara. Hamabost fitxa ditugu guztira, hainbat pertsona ari dira taldeari laguntzen boluntario gisa, eta, taldean ez egon arren, entrenatzaera etortzen diren jokalaria ere baditugu. Hala, talde lehiakorra osatu dugu, errotazioek oso ondo funtzionatzen dute, eta ordezko asko ditugu".

Atezain berria taldean

Igor Etxenagusia Aretxabaleta-ko atezaina ez da taldearekin izango denbora batez, ebakuntza bat egin behar diotelako. Hala, beste atezain baten bila aritu ostean, aurkitu dute ordezkoa. "Ander Ibañez Potras izango da atezaina; fitxa egingo diogu, eta maila ona emango duelakoan gaude. Aldaketa horretaz gain, bigarren itzulirako *Matiku* ere



Aretxabaleta areto futbol taldeko jokalaria talde argazkian. ARKAITZ RIBERA

"Nire ustez, gogoa jartzean dago gakoa"

JOSEBA FRAILE
KAPITAINA

Joseba Fraile *Barban* Aretxabaleta areto futbol taldeko kapitaina lesionatuta dagoen arren, bueltatzeko gogoz dago.

Denboraldi bikaina egiten ari zarete; zein da trukoa?

[Barre] Ez dugu trukorik. Asko entrenatzen gara, gogoa jarri eta suerte pixka bat ere izaten dugu noizbehinka. Gogoa jartzean dago gakoa.

Bigarren itzulirako zein asmo duzue?

berreskuratu dugu, eta taldean izango dugu berriz".

Mailaz igotzea, kolokan

Aretxabaletak bide honetatik jarraitzen badu, aukera asko ditu Nazional Mailara pasatzeko, baina entrenatzaileak azaldu



GOIENA

Oso ondo jokatu dugu denboraldian, eta sailkapenean ahalik eta ondoen geratzea da asmoa.

Lesionatuta zaude; noiz bueltatuko zara kantxara?

Oin-zolako faszitisa daukat; bi hilabete geldu egon ostean, oraindik beste hilabete bat itxaron beharko dudalakoan nago. Sekulako gogoa dut kantxara bueltatzeko, eta, inpotentzia eman arren, bitartean taldea animatuko dut.

du erabaki hori hartzea zaila dela: "Sailkapenean ahalik eta goren geratu nahi dugu, baina, mailaz igotzeko aukera badugu, ez da samurra izango erabakia hartzea. Izan ere, taldearentzako kostua handiagoa izango zen, eta aztertu egin beharko genuke".

Arizmendi-UDAko seniorrak igoera faserako sailkatu dira

Zapatuan Anaitasunaren aurka eta datorren astean Mondren aurka jokatu ostean bukatuko dute denboraldia

Mirari Altube/I.B ARETXABALETA

Eibarri 0-3 irabazita, Euskal Ligarako igoera fasea jokatuko sailkatu dira Arizmendi-UDAko seniorrak. Denboraldi bikaina egin dute: bukatzeko bi partidu falta dira, eta ez dute norgehiagokarik galdu.

Esti Loitik, Tituk eta Tito Etxeandiak hartu zuten taldearen gidaritza abuztuan, eta denboraldi benetan polita egin dute. Lesioak izan dira albiste txar bakarrak, baina horiek ere ez dira oztopo izan, eta oraindik ere ez dute partidurik galdu.

Hain zuzen, hamar puntuko aldea ateratzen diote bigarren sailkatuari, Mutrikuri. Gainera, urtarrilean hiru urte beteko dituzte etxean partidurik galdu barik.

Zapatuan, etxean

Zapatuan, Azkoitiko Anaitasuna taldea hartuko dute etxean, eta goizeko hamaiketan jokatu dute partidua.

Bestalde, datorren astean bukatuko dute denboraldia, Mondren aurkako derbia jokatu; Mojategin izango da.



Talde Eibarren, atzo arratsaldean. ARIZMENDI-UDA

Sergio Encinasen eta Archie Bezosen bakarrizketa saioa

Bakarrizketa saioa eskainiko dute gaur, egubakoitza, Sergio Encinas eta Archie Bezosen komikoen; Arkupen da, 20:00etan –sarrera, 4 euro–.

Bakarrizketa saioen aldeko apustua egin du Kultura Sailak, eta, beste behin, eskarmentu handiko monologistak dakartza. Encinas Valladolideko da eta 16 urtez geroztik dabil bakarrizketak egiten; gainera, Marca irratiaren kolaboratzailea da eta hainbat komedia kanaletan agertu izan da. Bezosen, osterara, madrildarra da eta umore garrantza eta politikoki ez zuzena du gustuko; LGTB komedian aitzindaria dela diote askok. Biak ala biak barre eragitera etorriko dira.

Korrika batzordeak martitzenetan egiten ditu bilerak

Korrika batzordea Aretxabaletan ere hasi da elkartzen eta martitzenetan egiten ditu bilerak, 18:30ean, udaletxe zaharrean. Bi astean behin elkartzeko asmoa agertu dute kideek, eta hurrengo urtarrilaren 31n izango da.

Martxoaren 30ean Otxandion hasi eta apirilaren 9an Iruñean bukatuko da *Bat Zuk* leloa duen 20. Korrika. Aretxabaletatik apirilaren 8an, zapatua, pasatuko dela iragarri dute, 13:37 aldera. Ordurako kontuak eta aurretik girotzeko egingo direnak antolatzeko sortu dute Korrika batzordea, beste behin. Inork interesa izanez gero, bertan ager dadila.



Olaeta plaza atzealdeko maldan, Antontxu bidean hasi dituzte lanak. I.B

Hasi dituzte lanak Olaeta plaza atzeko maldan

Sastraka garbiketa egin dute Olaeta plaza atzeko maldan, eta orain bi sare jarriko dituzte bertan lur erorketak saihesteko. Etxebizitzetatik gora Antontxu bideraino jarriko dute bat, eta beste bat, errefortzu handiagoarekin, bidetik gorako maldan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hasi dituzte Olaeta plazako atzealdeko maldan mendi-hegala egonkortzeko eta atontzeko lanak. Aurrekontua 150.000 euro ingurukoa da, eta zerbait momentutan Antontxu bidetik Mazmela auzo aldera doan bidea itxita egongo da bertatik pasatzen direnentzat.

Lur-jausi txiki batzuk egon izan dira leku horretan, baina, ezbeharrak gertatu aurretik, lur zati eremu hori behar bezala jartzea erabaki dute. Hala, dagoeneko hasi dira bertan dauden sastrakak, zuhaixkak-eta kentzen eta enborrak pilatzen, besteak beste.

Proiektuak bi zati

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak azaldu du hiru edo lau aste iraungo dutela lanak, eta proiektuak bi zati nagusi dituela azpimarratu du: "Dagoeneko hasi dira bertako sastrakak garbitzen eta Antontxu bidetik behe aldera euste sare bat joan-

go da lur erorketak ekiditeko, batetik, bidetik goiko alderako maldan, beste sare mota bat egongo da, autobidean jarri zutenaren modukoa, erori daitekeenari ondo eusteko."

Prebentzio neurriak

Lu-jausi batzuk izanak dira pasabide horretan, eta, ezbeharrak gertatu aurretik, lehenetasuna eman nahi izan diote egin beharreko lanei. "Eginak zeuden lur-jausiak gure legealdia baino lehen leku horretan, eta guri eremua garbitzea tokatu zitzaigun legealdiaren hasieran. Bestalde, duela urte batzuk Aranburuzabala kalean izan zen lur erorketa bat, eta bizilagunek irten beharra izan zuten beren

HIRU EDO LAU ASTE INGURU BARRU AMAITUTA EGONGO DIRA OLAETA ATZEKO MALDAKO LANAK

etxeetatik. Hala, bazegoen lehenetik aztertuta inguru hori arriskutsua zela, eta proiektu bat proposatu zen bere garaian. Denbora joan zaigu proiektu hori gauzatzen; izan ere, 2016ko aurrekontuei lotutako proiektu bat da. Hala ere, hasi gara martxan, eta, eguraldiak laguntzen badu... lehenbailehen amaitzea da asmoa".

Eskaera herritarrei

Martitzenean egin zuten koordinazio bilera, eta, obrak hasi berri, alkateak adierazi du "gustura eta pozik" dagoela bilerak emandakoarekin. Hala ere, herritarrei deia helarazi nahi die lanek irauten duten bitartean bertatik ez pasatzeko. "Orain, eskatu beharra daukagu, bidea zerbait momentutan moztuta egongo dela-eta, herritarrek bertara ez gerturatzeko, arriskua egon daitekeelako. Bertako langileak ezin dira ibili lan egiten eta oinezkoak kontrolatzen; beraz, pazientzia eskatu nahi dut".

Adostasuna izan da bilkuran landutako gai guztietan

Herritarren partaidetzarako erakunde arteko gunera atxikitzeko erabakia aho batez onartu zuten

I.B ESKORIATZA

Urtarrileko ohiko osoko bilkura Mazmelako auzo-alkate berriaren kargu hartzearekin hasi zen. Aurreko auzo-alkateak karguari uko eginda, Iñaki Zurutuza izango da berria, auzotarren erabakiz eta udalbatzaren oniritziarekin. Bestalde, izan zituzten gaietatik, azpimarratzeko bat izan zen: Gipuzkoako lurralde historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko gunera atxikitzeko erabakia, hain zuzen ere.

Adostasuna adierazi zuten alderdi guztiek gai horren inguruan. Izan ere, erabaki horren helburua herritarren parte-hartzaile aktiboagoak izatea da. Honela azaldu zuen Joserra Zubizarreta alkateak: "Herritarren partaidetza bideratzea eta bultzatzea ezinbestekotzat jotzen da. Horretarako, gune bat sortu nahi da, eta gune horretara Gipuzkoako udal bakoitzak atxikitu behar du, baliabide batzuk jarri, hori gero herri mailan bultzatzeko. Esperientzia txikiak batuz, aztertuz, ikusi zeintzuk diren baliagarriak, zeintzuk ez...".

'Zarata mapa' eskaera

Galde-eskeetan, Nestor Arana Bilduko zinegotziak, Rafa Bernal Irabaziko zinegotziarekin batera, herriko *zarata mapa* bat egitea proposatu zuen. Arauak dauden edo ez galdetuz, hauek aztertzeko edo ezartzeko asmoz, herriak duen egoera zein den ikusteko. Horren harira, ordenantza bat egiteko kontsulta bat egin behar dela adierazi zuen idazkariak, eta EAJk Hirigintza batzordean aztertzen hasiko direla adierazi zuen.

Eskaera horretaz gain, Herri Eskolatik garraio iraunkor baten alde bideratutako patinetean aparkalekuen proposamena ere atera zuen mahai gainera, eta Udal Gobernuak adierazi zuen aztertuta dutela gaia eta proposamena gauzatzea bakarrik falta dela.

Hondakinen informazio bulegoa

Otsailaren 1etik aurrera, hondakinen informazio bulegoa udaletxean izango dela aipatu zuten. Egun horretatik aurrera, beraz, herritarrek udaletxera joan beharko dute, Ibarraundiara beharrean.



ARIZMENDI

Jose Aranako lanak, amaituta

Uztailean hasitako obrei abenduan eman zaie amaiera, eta urtearekin batera estreinatuta dute Jose Arana eraikin berritua Eskoriatzako haurrek. Haur Hezkuntzako eredu proiektuari egokiago erantzuteko egin dira obrak, eta eraikinak duen balio kultural-artistikoa dela-eta bereziki zaindu da obren diseinua, prozesua eta gauzatzea.



Iaz egindako mozorro desfilean tribua dantzan. GOIENA

Hainbat berrikuntza Inauterietako desfilean

Betiko ibilbidea egingo du –Luis Ezeizatik Herriko Plazara– eta hainbat sari egongo dira: mozorro onenarentzat, originalarentzat eta giro onena jarri duenarentzat; banaka eta bikoteka doazenentzat, talde txikientzat eta talde handientzat

Imanol Beloki ESKORIATZA

Inauteriak otsailaren 25ean, zapatuan, eta otsailaren 28an, martitzenean, ospatuko dituzte Eskoriatzan. Berrikuntza eta aldaketekin datoz, gainera, aurtengoak; batez ere, mozorro desfilean eta horrek dakarren lehiaketan.

Urtarrilaren 19an, Inauteriak antolatzeke bilera egin zuten, eta bertan ezarri zituzten nondik norakoak. Desfilea, esaterako, 12:30ean hasiko da, Luis Ezeizan, eta plazarainoko bidea egingo dute. Hala ere, parte-hartzaile batzuk Santa Marinara bidertuko dituzte eta beste batzuk, berriz, San Juan kalera, herriarrek ondo ikus ditzaten. Desfilea amaitzean, DJ Motok giro-tuko du plaza, eta sari banaketa 19:00etan izango da.

Paella herri bazkarian

Herri bazkaria 14:30ean izango da, urtero moduan, pilotalekuan, eta plater bakarria izango da: okela-paella. Helduek hamabost

euro ordainduko dituzte eta 14 urtetik beherakoek, zazpi euro. Edatekoaz eta postreaz gain, sagardo kupela ez da faltako, azken urteetan moduan. Ondoren, Imanolek eta Unaik giro-tuko dute trikiti eta pandero doinuekin bazkalostea, eta nahi duenak dantza egiteko aukera izango du.

Bazkarirako txartelak, aldiz, otsailaren 6aren bueltan hasiko dira saltzen, Inkernun eta Goxotxikin, eta mahaiak erreserbatu nahi dituenak kultura etxera deitu beharko du, 943 71 46 88 telefono zenbakira.

SARI GEHIAGO IZANGO DIRA AURTENGO INAUTERIETAKO MOZORRO LEHIAKETAN

jarriko dituzte. Osteen, dantzaldia izango da, 18:00etan, Herriko Plazan, Luhartz erromeria taldearekin, eta dantzatu ostean mozorro desfilearen sari banaketa egingo dute.

Sari ugari mozorro lehiaketan

14 urtetik gorakoetan, banakako eta bikoteentzat hiru sari egongo dira: mozorro onenarentzat, originalarentzat eta giro onena jarri duenarentzat. Horrekin batera, zazpita arteko talde txikien artean ere hiru sari horiek banatuko dira eta zortzitik gorako taldeen artean ere berdin. Horiez gain, 14 urtetik beherakoek ere hiru sari jasoko dituzte, bi pertsonatik gorako taldeek.

Martitzenean, otsailaren 28an 10:30ean, umeen jaialdia izango da Herriko Plazan. 17:00etan, berriz, kukumarruak irtengo dira, eta, amaitzeko, 18:00etan, DJ Andonik, Josu Rodriguezek eta Tirapuk giro-tuko dute plaza.



Iaz, Zuhaitz Egunean, zuhaitzak landatzen. GOIENA

2016an jaiotako haurren izenean, zuhaitz landatzea

Domekan, hamabost zuhaitz landatuko dituzte Arbiñoste inguruan; lizarrak eta haltzak

I.B ESKORIATZA

2016an, 29 haur jaio ziren Eskoriatzan, eta 2006a ezkeror datorren ohiturari jarraituz, zuhaitzak landatuko dituzte gurasoek haurren izenean.

Guztira, hamabost zuhaitz landatuko dituzte, Ibarraundi museo teknika-riekin laguntzarekin; lizarrak eta haltzak izango dira. Arbiñoste inguruan landatuko dituzte, baina Ibarraundin izango dute lehenbiziko hitzordua, goizeko hamaiketan, gero, handik, zuhaitzak landatuko dituzten eremura joan daitezkeen guztiak batera.

Hainbat helburu

Saioa Altzua Ibarraundi museo teknika-riak adierazi duenez, ekimen horrek euskal herritarrokin lotura handia dauka: "Zuhaitzek gure bizitzan duten garrantzia azpimarratu nahi dugu ekimen honekin. Euskaldunentzat sinbolikoak dira...".

Azken hamar urteetan, hainbat txokotan landatu dira zuhaitzak herrian: Ibarraundi museo ondoan, Aingeru Guardian, Elorean, Dorleta auzoan... eta, ekimen polita izateaz gain, familiarekin egun ederra pasatzeko aukera ematen du.

'Putinen guardasola' antzerkia izango da domekan Zaldibarren

Putinen guardasola Ramon Agirrek eta Inazio Tolosak taularatu duten euskarazko lana da. Domeka honetan izango da antzezlan, Zaldibar antzokian, 19:00etan, eta musikaz eta umorez betetako ikuskizunaz gozatu ahaliko dute ikus-entzuleek.

Asier Sotak zuzendutako lan horretan, Ray eta Nik izeneko bi musikari dira Agirre eta Tolosa. Euskaldun guztiak batuko dituen ereserki bat egin gura du lehendakariak, eta, bilera luze baten ostean, erabaki dute lan hori bi musikari horiei enkargatzea. Sarrerak dagoeneko salgai daude, lau eurotan, kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.

Testamentuen gaineko hitzaldia, erretiratuek antolatuta

Eskoriatzako Olazar erretiratu elkarteak *Euskal Herrian, ondorengotzaren legean aldaketak; testamentuak eta herentziak* hitzaldia antolatu du. Datorren martitzenean izango da, urtarilaren 31n, Zaldibar antzokian, 18:00etan.

Jose Luis Amerigo Garciak egingo du eta sarrera doakoa izango da. Hala, interesa duen edonor bertaratu daiteke bertara. Honela adierazi du Olazar erretiratu elkarteak presidentea Jose Mari Kortazarrek: "Uste dugu testamentuen eta herentzien gaia interesekoa dela, eta herritar guztiei gonbidapena egin gura diegu bertaratu daitezten".

"Ibilbide berrian, gogor entrenatzen hasi naiz"

IKER ESKIBEL TXIRRINDULARIA

Eskoriatzako txirrindularia Fundacion Alberto Contador taldean arituko da aurtengo denboraldian, amateur mailan, eta gogotsu dago bide berriari ekiteko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Madrilgo Fundacion Alberto Contador taldean lehiatuko da Iker Eskibel eskoriatzarra aurtengo denboraldian, amateur mailan. Entrenamendu gogorragoeti eta egutegi zorrotzari aurre egiteko prest azaldu da hura.

Zer aurkitu duzu taldean?

Talde gaztea da, eta nire aurreko taldearen antzeko filosofia daukate. Bai ziklistek eta baita zuzendaritzakoek ere. Entrenamenduak gogorrak dira, baina lan egiteko gogoz nago.

Entrenamenduak gogorrak dira, aipatu dituzu; zer dela eta?

Iaz beranduago hasi nintzen entrenamenduekin, belaunean lesioa nuelako; aurten, aldiz, denbora luzeagoa daramat. Batez ere, gimnasioan ari naiz lantzen, eta sentsazio onekin nago.

Gertuko entrenatzailea, gainera.

Nire entrenatzaile eta zuzendaria izandakoa da Gorka Beloki, duela hiru urte. Bertakoa izateak



Iker Eskibel. GOIENA

asko laguntzen du, eta ezagun batekin beste talde batera joatea errazagoa da aspektu guztietan. Bestalde, Rafa Diaz ere zuzendaritzan dago; biekin oso ondo. Azken hau iaztik dagoen zuzen-

daria da eta harekin ere oso gustura nago.

Egutegi gogorra aurtengoa?

Gutziz finkatu barik dagoen arren, Espainiako Koparekin hasiko gara. Euskal Herriko lasterketa batzuk ere egingo ditut. Bestalde, beste lasterketa batzuetarako gonbidapenak ere jaso ditugu profesionalekin batera egiteko; Normandiako Tourra, adibidez.

Helburu zehatzik?

Urtea ondo hastea da nire helburua, oraingoz. Almeriara goaz gaur, bi astez denboraldi-aurrea egitera, Espainiako txapelketan ere maila ona eman nahi dut... Orokorrean, maila ona ematea da nire asmoa.

Eta profesionalera pasatzeko?

Profesionalek bidalitako gonbidapenak jasotzen ditugu gure mailan. Gutxi batzuek jasotzen dituzte, baina, aukera izanez gero, dena eman beharko dugu kasu horretan, eta ea datorren urtean zer gertatzen den...

Hasierako helburuei agur esanda, puntu bila kantxara

Planteamendu berriarekin, Batzarreren aurka hasiko dute denboraldiko bigarren itzulia eskoriatzarrek

I.B ESKORIATZA

Eskoriatza areto futbol taldeak Gasteizko Batzarre taldearen aurka jokatu du zapatuan, 19:30ean. Pasa den aste bukaeran atsedean hartu ostean, puntu bila joango dira kanpora, deskantsatuta.

Azken bi partiduak irabazi egin dituzte, eta jokatuak azkenak garrantzia izan du, haien aurretik doan Elorrietako taldeari irabazi baitzioten. Hala ere, sailkapenean zortzigarren postuan direla, denboraldiko bigarren itzulia gogor hasi nahi



Eskoriatza, jokoan. IMANOL SORIANO

dute Antonio Tenaren mutilek. Honela azaldu du entrenatzaileak: "Ez genuen denboraldi-aurre onik egin, eta hainbat aldaketa egin genituen. Gauzak ez zaizkigu pentsatu bezala irten, eta orain, beste buelta bat ematen ari gara taldeari".

Bigarren itzulirako helburuak

Zapatuko partiduekin, denboraldiko bigarren itzulia hasiko dute eskoriatzarrek, eta, hasiera batean zituzten helburuak alde batera utzita, ahalik eta puntu gehien lortzen saiatuko dira: "Agur esan diegu hasiera batean genituen helburuei. Hau da, lehen postuetan egoteari eta mailaz igotzeari. Hori horrela, orain ezin dugunez halakorik lortu, bigarren itzulia lehena baino hobea eginen saiatuko gara".



Atzo, eguena, onartu zen 2017rako behin-behineko aurrekontua. ENEKO AZURMENDI

2017rako 50.000 euro gehiago izango ditu Gatzagako Udalak

Eusko Jaurlaritzak diru kantitate hori Gatz Museora bideratuko du, bertako gatz merkaturatzeko asmotan

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

526.050,53 euroko aurrekontua izango du 2017rako Leintz Gatzagako Udal Gobernuak, eta inbertsioetarako 94.153,00 euro aurreikusten dira. Hori horrela, 2016an baino 50.000 euro gehiago izango dira aurrekontuan. "Urtero oso antzekoa izaten da aurrekontua; izan ere, diru sarreraren arabera egiten dugu eta hori, normalean, ez da askorik aldatzen, urtero ia berdina dira. 2017ari begira, aurrekontua handiagotu egingo zaigu, Eusko Jaurlaritzak 50.000 euroko diru-laguntza emango digulako", adierazi du Ixidor Salaberrik, Ogasun zinegotziak.

Izan ere, HAZI fundazio publikoarekin hitzarmena sinatzea onartu zen atzoko osoko bilkuran, eta, hitzarmen horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduko du Gatz Museoa bertan ekoizitako gatz Euskal Herri mailan merkaturatzea.

HAZI, esandako moduan, sektore publikoko fundazio bat da, helburutzat honako hau duena: lehen sektorearen lehiakortasuna, berau sustatuz, bultzatuz eta indartuz. Horrez gain, landa, itsasertz eta elikagaien sustapena lantzen du, ondare kulturala eta naturala zainduz.

GATZ EKOIZPENA ETA MERKATURATZEA MARTXAN JARTZEKO KONPROMISOA HARTU DU UDALAK

Hitzarmen horren bitartez, bi aldeek hainbat konpromiso hartzen dituzte.

Batetik, Leintz Gatzagako Gobernuak hartutako konpromiso nagusia hau da: herrian ekoizitako gatz merkaturatzeko proiektua abian jartzea, horrek dakarren guztiarekin –azterketa, bideragarritasun plana, gatz ekoizpena, diseinua, marketina, eta abar–.

Bestalde, HAZI fundazio publikoak konpromisoa hartu du, batetik, proiektuaren garapenean eta gauzatzean Udal Gobernuarekin kolaboratzeko eta, bestetik, proiektua diruz laguntzeko, aipatutako kantitatearekin.

50.000 euro horien %60 hitzarmena sinatzen den momentuan bertan eskuratuko du Udal Gobernuak, hitzarmenean bertan jasotakoaren arabera. Gainontzekoa, %40, berriz, proiektua bukatzean eta egin diren gastu guztiak justifikatuta egotean.

Hasiera batean, urtebeteko iraupena izango du hitzarmenak, baina luzatzeko aukera dago, justifikatutako arrazoia bada.

Behin-behineko onarpena

Atzoko osoko bilkuran behin-behinean onartu ziren 2017rako aurrekontuak. "Buletinera bidali beharko da aurrekontua, jendeak informazioa eskuragarri izan dezan eta, alegazioen bat egin nahi badu, aukera izan dezan. Ez bada alegaziorik aurkezten, ontzat emango da gaur sinatutakoa", azaldu du Gotzon Goikoetxea idazkariak.



Arabako Bertsolarien Elkartearen lehen urratsak egin ziren duela 35. urte Arabako El Tunel tabernan. ARABAKO BERTSOLARIEN ELKARTEA

Arabako bertsolari txapelketa, hasteko prest

Zapatuan egin zuten aurkezpen ekitaldia, Laudion, duela 35 urte Arabako Berto Eskolaren lehen urratsak hartu zituen El Tunel tabernan. Otsailetik apirilera arte iraungo du, eta lehian dauden hamazortzi bertsolarien herena aramaioarrak dira

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Hasteko irrikaz dago Arabako Bertsolari Txapelketaren 13. edizioa; are gehiago, pasa den zapatuko aurkezpen ekitaldiaren ostean.

Leku berezian egin zuten, gainera: Laudioako El Tunel tabernan, hain zuzen. Hura izan zen 1982an, duela 35 urte, Arabako Bertsolari Eskola bilakatuko

zenaren lehen urratsak teiltatuz hartu zituen ostaturia. Urteurren borobil hura aitzakia hartuta, hantxe atera zuten familia-argazkia partaideek eta antolatzaileek.

Sei finalurreko eta finala

Azken edizioan legez, aurtun sei finalurreko jokatu dira sailkatutako hamazortzi bertsolarien

artean; bakoitzak bi saiotan abestuko du.

Lehen hiru finalurrekoetan abestuko duten bertsolariak aurrez definituta daude, eta, bertan lortzen duten puntuazioaren arabera, laugarrenean, bosgarrenean edo seigarrenean abestuko dute. Faktore hori garrantzitsua izan daiteke bertsolari aramaioarrentzat, seigarren

13. edizioko jardunaldien egutegia

Sei finalurreko eta finala izango ditu Txapelketak.

1. Itzulia

- **1. finalurrekoa**
Otsailak 5, Langraitz:
17:30ean, Gizarte Etxean.
- **2. finalurrekoa**
Otsailak 12, Zigoitia:
17:30ean, Kultura Etxean.
- **3. finalurrekoa**
Otsailak 19, Dulantzi:
17:30ean, Kultura Etxean.
- **4. finalurrekoa**
Martxoak 4, Legutio:
17:30ean, Kultura Etxean.
- **5. finalurrekoa**
Martxoak 11, Laudio:
17:30ean, LHUIko zine-aretoa.
- **6. finalurrekoa**
Martxoak 18, Aramaio:
17:30ean, Kultura Etxean.
- **Final handia** Apirilak 1,
Gasteiz: 17:30ean,
Printzipal antzokian.

finalerdia Aramaion bertan jokatu baita, eta etxekoan babilago izan dezakete finalerako txartela poltsikoratzeko.

Lehen finalurrekoa datorren zapatuan jokatu da, Langraitzen, eta han abestuko dute Manex Agirrek eta Peru Abarrategik. Bigarrena Zigoitian izango da, Xabi Igoaren, Iker Agirreren eta Andere Arriolabengoaren presentziarekin. Hirugarrenean, berriz, Paula Amilbururen txanda izango da, oraingo honetan Dulantzin.

Hamazortzi bertsolari trebe

Azken edizioko bost finalistek eta kanporaketa fasean puntuazio altuenak jaso dituzten hamahiru bertsolariak izango dute 2017ko txapela janzteko aukera.

Gaztetasunaren eta esperientziaren arteko lehia ez da falta. Peru Abarrategi aramaioarra izango da bertsolaririk gazteena, 20 urterekin. Zaharrena, aldiz, Rikardo Gonzalez de Durana, 58 urterekin. 2015eko finalean bi aramaioar izan ziren, Agirre eta Xabi Igoa, eta zifra hori hobetzea marka itzela izango litzateke. Zorte on denei!

Santa Agedarako entseguetan parte hartzeko deia

Aramaioako Bizente Goikoetxea abesbatzak, Trikiti Taldeak eta Bertso Eskolak elkarlanean antolatutako ekitaldian parte hartzera animatzeko eskatu dute hiru elkarteek.

Pasa den egunean egin zuten lehen entsegua, eta jende gutxi agertu izanak kezka piztu zuen. Azken entsegua, hurrengo egunean, 19:00etan, Kultura Etxean.

Herritarrenganako komunikazio plangintza, eginda

Herritarrei ahalik eta informazio zehatzena eta argiena eskaintzeko, Udalak komunikazio plangintza diseinatu du.

Udalaren ekintzei zein herriko kultur talde eta eragileek sortzen dituztenei buruz modu eraginkorrean komunikatzeko asmoz, herriko webgunean sendotzea eta sare sozialak erabiltzea du xede plangintza berriak.

2016ko diru laguntzak 39.377 eurokoak izan dira

Aramaioako Udalak diru laguntza deialdiak izan ditu 2016an zehar, herritarrei esparru konkretu batzuetan laguntzeko asmoz. Hauek izan ziren egin ziren deialdiak: euskara ikasteko, eskolako garraiorako, Ukrainako haurrak udan etxean hartzeko, errotulazio eta enpresaren irudia euskaraz jartzeko eta Hirigintza Sailetik etxeetako fatxada edo teiltatua berritzeko zein irisgarritasunarekin lotutako lanak egiteko.

Diru laguntzak desglosatuta

Era honetan banatu zituen Udalak laguntzera bideratutako 39.377 euroak: 3.000 euro garraiorako, euskara sustatzeko 647,20 euro, Ukrainako haurrak hartzeko 1.650 euro eta hirigintza lanetarako beste 3.000 euro.

Horiez gain, kultur taldeei eta auzoetako jaiei zuzendutako deialdietan 17.580 euro eman ditu Udalak herriko eragileentzat, eta auzoetako jaien kasuan 13.500 euro.

35 urteko ibilbide oparoa

1982an antolatze lanak hasi baziren ere, 1993an sortu zen. Diru-irabazi asmorik gabeko elkarte soziokulturala da eta bertsolaritzaren etorkizuna ziurtatzea du helburu.

Lan profesionala eta borondatezkoa uztartzen ditu eta gainontzeko elkarte eta herri instituzioekin elkarlanean lantzen ditu proiektuak, Arabako herrietako bertso-eskolekin

baterean lan eginez. Era berean, Euskal Herriko Bertsotale Elkartearen partaide da Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldearekin batera.

Arabako Bertsotale Elkarteak 150 bazkide inguru ditu eta Gasteizko Amaia Zentroan du egoitza, 2002a ezker.

Egun, herrialde osoan lantzen da bertsolaritza ikastetxez ikastetxe, hainbat herritan

bertso-eskolak daude, eta bertsolaritzaren lanketa, sustapena eta transmisioa eskualde guztietara zabaltzen da. 2009ko Arabako Bertsolari Txapelketa arrakastatsua ilusio eta indar berriez bete zuen Bertsolarien Elkarte 2010era begira, eta, hazteko gogoz, Arabako kuadrilla artekoa antolatu zen. 2011n, Arabako Txapelketa laugarren garaian sartu zen, eta, geroztik, bi urtean behin jokatzeko da.



Errolda datuen arabera, Aramaioko biztanleria duela hamar urte baino gazteagoa da. XABI GOROSTIDI

Aramaioarren batez besteko adina, beherantz

2007an 51 urte bueltakoa zen eta azken bi urteetan, aldiz, 44koa. Biztanle kopurua 1.499ko zifran mantendu da iaztik hona, eta, hazkunde naturala negatiboa izan den arren, etorritakoen eta joandakoen datuarekin orekatuta geratzen da

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Aramaioko Udalak aditzera eman ditu 2017. urte hasierako erroldatze datuak. Datua urtarrilaren leian ateratako argazkitik dator, eta, iazko data berarekin alderatuta, Aramaioko biztanle kopurua berdin mantentzen da: 1.499. Hain zuzen, %52,84 gizon-gezkoak dira eta %47,16 emakumezkoak, eta iaztik hona hiru gizon gehiago daude.

Bajak eta altak berdinduta

45 alta eta 45 baja egon dira azken urtean. Altei dagokienez, zortzi jaiotako eta 37 etorritako izan dira. Bajak desglosatuz gero, hamar hildako eta 35 joandako daude. Hazkunde naturala, beraz, negatiboa izan da, baina etorritakoen eta joandakoen datuarekin orekatzen da.

1.499 biztanle izatea zifra esanguratsua da, kontu administratiboetarako eragina izan deza keelako. Bake epaitegien finantziazioan kasuan, adibidez, 1.500 biztanletik gora edo behera

egoteak jasotzen den diru kopurua aldatzen du.

Auzokako desglosea

Datuak auzoka aztertuz gero, ez da gorabehera aipagarririk izan. Azken urtean igoera handienak izan dituztenak Ibarra eta Oleta izan dira, bederatzita eta zortzita biztanle gehiagorekin, hurrenez hurren. Jaitsiera nabarmenenak,

aldiz, Arexolak eta Barajuenek izan dituzte, bost biztanle gutxiagorekin.

Ibarra da biztanle gehien dituen, 893rekin, bigarrena Azkoaga (157), eta hirugarrena Oleta (120).

Batez besteko adina, beherantz

Azken urtean demografia datuak ez dira askorik aldatu, baina, begirada hamar urte atzera botaz gero, aldaketak daude, batez ere, aramaioarren batez besteko adinean.

2007ko datuei erreparatuta, gizonzkoen batez besteko adina 51koa zen eta emakumeena 52koa. Beherantzko tendentzia horren erakusle da 2012an batez bestekoa 47 urtekoa zela, bai gizonzkoetan, bai emakumezkoetan. 2016ko eta 2017ko datuek aramaioarren batez besteko adina 44 urtekoa dela erakusten dute. Albiste ona izan daiteke, baina azken hamar urteetan 30 urtetik beherako portzentajea %30ean mantendu da.

Datuak auzoka

Auzoa	Biztanleak	%
Arexola	54	%3,60
Azkoaga	157	%10,50
Barajuen	87	%5,80
Etxaguen	21	%1,40
Gantzaga	25	%1,66
Ibarra	893	%59,50
Oleta	120	%8,00
Untzilla	73	%4,86
Uribarri	76	%5,07
GUZTIRA	1.499	%100



NIRE USTEZ

IKER ELEXPURU

Zeruari begira

Bai, faltan botatzen dut baserriarren jakinduria eta bizimoldea, naturarentzat eta naturari begira bizi ziren haiek. Aitzurra lepoan hartuta etxetik ateratzen ziren haiek, ondoko soro eta basoko urak ondo bideratzeko, urari bidea egiteko. Iluntzean tenpora garaian, etxe atarian, zerura begira zeuden haiek, laino eta haizeak zainduz. Haiek bai jakintsuak! Urte gutxian, asko aldatu da kontua, modernitate eta etorkizun hobe bat lortu bai, baina atzean asko galdu dugulakoan nago. Eta noizean behin naturak gogorarazten digu beraz ahaztu egin garela, seinaleak bidaliz ari da behin eta berriz.

Korrika eta presaka bizi gara; nonahi eraiki, itsasoari eta mendiari lekua kendu, ibaiei bidea moztu. Itsaso bizia denean negar egiten dugu etxeraino sartzen denean. Baso aldapatsua sustraietatik atera eta hondamendi itzela! Konturatu orduko basoa dugu etxe barruraino sartua. Unibertsitateetan irakasten ez den eta irakatsi beharreko ikasgaia falta dugu, gure arbasoen herri jakinduria, behaketan oinarritutakoa. Has gaitezen bada! Ikas dezagun naturari begira bizitzen eta gozatzen!

Alaiak elkartekoen Mus Txapelketa datorren barikuan

Musean jaun eta jabe izan nahi dutenek aukera polita izango dute hurrengo egubakoitzean, Alaiak Jubilatuen Elkartek antolatutako txapelketan.

Bikote bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu izena emateko. Behin txapelketa amaituta, sari banaketa egingo dute eta afaria izango da parte hartzaile guztientzako.

Gureia auzoko hobekuntza lanak laster hasiko dituzte

Abenduan egindako ezohiko osoko bilkuran esleitu zitzaizkion euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitate, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura proiektua Excavaciones Arrasate SL enpresari.

Eguaztenean bilera egin zuten auzokideekin, lanen nondik norakoak azaltzeko.



JUANJO FERNANDEZ GALAN

Zabolan izotza jaun eta jabe

Irudian ikusten den moduan argitu zuen eguna Zabolan pasa den egubakoitzean. Elurrik ez, baina izotzaren edertasunak estali zituen bertako zuhaitz eta larreak.

Zuhaitzaren arramak sorginduta daudela dirudite, Mururen eta Udalatxan begiradapean.

Etxeak ikustera sartuko dira Boluko bizilagunak

Gaur goizean bertaratzeko deia jaso dute, suhiltzaileen eta udaltzainen laguntzarekin beharrezko dituzten gauzak ateratzeko. Perituek gaur goizean bertan ikuskatuko dute etxebizitzaren egoera barrualdetik. Asteburuan makinek lanean jarraituko dute

Maite Txintxurreta BERGARA

Joan den asteko astelehenean gertatu zen lur-jausia Itsasmendiko maldan, Bolua kaleko hainbat bizilagun etxetik aterarazi zituena. Bada, bizilagunen gehiengoa joan den astean bertan etxeetara itzuli ahal izan den arren, desberdina da atari kaltetuenean -59. ataria- bizi diren zazpi familien kasua. Izan ere, horiek, artean, ez dakite noiz itzuli ahal izango diren euren etxeetara.

Zazpi familia horietatik lauk Udalari adierazi zioten etxera itzuli bitartean ordezko etxebizitza baten beharra zutela. Hala, Udalak bere jabetzakoak diren pisu bana jarri du familia bakoitzaren eskura. Bi familia egubakoitzean sartu ahal izan ziren, eta gainontzeko biek, berriz, astelehenean jaso zituzten giltzak, asteburuan zehar langileak ur beroa eta argindarra instalatu behar izan baitzuten.

Hala, bi familia dagoeneko sartu dira etxe horietara, baina beste bi oraindik ez. Izan ere, familietako bat zain dago, jakin arte ea itxaronaldia luzerako izango den edo epe motzean itzuli ahal izango diren Boluko etxera. Bestearren kasuan, Lourdes Rubio bizilagunak dio giltzak jaso dituela, baina berogailuak ez duela ondo funtzionatzen, eta hori konpondu zain dago sartu ahal izateko.

Perituek gaur sartuko dira

Gaur goizean, egubakoitza, suhiltzaileek eta udaltzainen lagunduta, 59. atariko bizilagunak euren etxeetan sartu ahal izango dira beharrezko dituzten zenbait gauza hartzera. 11:00etan bertaratzeko deitu dituzte.

Era berean, perituek ere gaur sartu ahal izango dira etxebizitzaren egoera barrutik zelakoa den ikuskatzera.

Bizilagunak azterketa horien zain daude, jakin ahal izateko



Makinak goiko trenbidean lanean, asteon. M.T.

ASTEBURUAN ETXEAREN ATZEALDEKO LOKATZA ETA ARRAMAK KENDUKO DITUZTE

ea aseguruak kalteak estaliko dizkien edo ez.

Bestalde, luiziaren ondorioz behera etorritako enbor eta harriek bi zulo egin zituzten teilatuan. Bada, bihar goizean lona bat jarriko dute bertan komunitateko bizilagunek, bertatik ura sartzea ekiditeko.

Luiziaren eremuko lanak

Aste honetan Elurlan enpresako langileek goiko trenbidean eta lur-jausiaren eremuan lanean jarraitu dute. Luiziaren mihiaren eremuan eta inguruan zeuden arbolak eta jausitako arramak edota enborrak erretiratu dituzte lehenik, modu horretan, berritro ere euria egiten duenerako arriskua ekidite aldera.

Bestetik, maldaren eta Bolua kaleko etxebizitzaren artean dagoen tartean ere eroritako zuhaitz ugari zeuden pilatuta,

harri batzuez eta lokatzaz gain. Leku estua da hori, eta langileek ezin izan dute bertara Boluko plazatik igaro eta zuzenean enborrak atera. Hori dela eta, kableen bidez trenbidera igo dituzte enborrok, eta handik kamioietan atera dituzte.

Hurrengo pausoa gunehorretan pilatuta dagoen lokatza eta arramak ateratzea izango da. Horretarako, beste makina berezi bat behar dute -20 metroko garabi bat-, eta asteburuan izango dute erabilgarri. Hain zuzen, asteburuan egingo dute lan hori, eta, hala, maldako lanik handienak bukatuta izango dituzte.

Lanon jarraipena egiten diharduen Udaleko zinegotzi Lander Arregik azaldu du aste honetan baldintza onak izan dituztela lanerako, eta arriskurik gabe jardun ahal izan dutela, ez baita mugimendu gehiagorik izan maldan.

Arregik dio adituen txosten teknikoaren zain daudela, eta aurrerago baloratuko dituztela maldaren egonkortasuna bermatzeko neurriak. Dena den, lursail hori ez da Udalaren jabetzako, eta jabeak ere neurriak hartu beharko ditu.



Kirol enbaxadoreak programako parte hartzaileak eta bultzatzaileak. XABI GOROSTIDI

Kiroldegia nagusiendako lekua ere badela erakutsi nahi dute

65 urtetik gorakoendako 'Kirol enbaxadoreak' programak indarra landuz bizi kalitatea hobetzen laguntzea du xede

X.G./M.T. BERGARA

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak eta BPXPORT kirol aholkularitzak *Kirol enbaxadoreak* izeneko programa jarri dute abian. BPXPORT taldeko monitoreek Agorrosingo kiroldegian jarduten dute kirolariei aholkularitza ematen, eta, orain, 65 urtetik gorakoekin zahartzarolari eta patologiei aurre eginez bizi kalitatea hobetzeko proiektuari helduko diote.

Zortzi pertsonak hartuko dute parte egitasmoan, 67 eta 87 urte bitarteko lau emakumezko eta lau gizonezko: Pili Arin, Luis Mari Belastegi, Arantxa Beraza, Iñaki Arregi, Maria Orellana, Nati Ugarte, Roberto Arantzabal eta Pello Garitanok.

Programaren atalak

Urtarrilaren 19an monitoreek bilera egin zuten parte hartzaileekin, eta orain, gaurtik otsailaren 12ra bitartean, osasun azterketak egingo dituzte banan-banan. Otsailaren 6an hasiko dira guztiak plangintza praktikan jartzen.

Hortik aurrera, astean hiru entrenamendu saio programatuko dituzte BPXPORTko teknikariarekin. Bakarkako saioak izango dira horiek, eta, teknikariaren aholkuak jarraituz, zahartzaroak dakartzan patologiak arinduko dituzte indarra lantzeko ariketa desberdinen bitartez.

Aipatu bezala, otsailaren 6an hasiko dira programa berezi horrekin, baina oraindik ez da-

kite noiz bukatuko duten. "Programak sortzen dizkien onurak ikusita eta bakoitzaren erritmoak baloratuz zehaztuko dugu noiz bukatuko den", adierazi zuen egitasmoaren aurkezpenean Igor Oiarbidek, Kirol zinegotziak.

Agorrosin, guztiondako

Kirol enbaxadoreak izeneko programa horrek helburu bikoitza dauka: batetik, aipatu bezala, ariketen bidez adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzea; baina, horrez gain, Agorrosin kiroldegia adin guztietako herritarrendako zabalik dagoela erakutsi nahi dute bultzatzaileek, eta ezagutzera ematea nagusiendako egokiak diren tresnak, makinak eta jarduerak ere badirela bertan: "Gazteen-tzat eta helduentzat aukerak izateaz gain, pertsona adinuentzat onuragarriak diren ekintza asko ditugu hemen. Kiroldegira etortzeak onura asko sortuko dizkie, eta probatzera animatu nahi ditugu", zioen Kirol zinegotziak.

87 urterekin, sasoi betean

Bergaran kirol enbaxadore ari-tuko diren zortzi edadetuen artean, nabarmentzekoa da Maria Orellanaren kasua. 87 urte ditu, guztietan nagusia da, eta Agorrosin kiroldegiko ohiko erabiltzailea da. Programa pilotu horretan parte hartzeko proposamena jaso zuenean ez zuen zalantzarik izan baiezkoa emateko.

Zurekin historia egiten jarraituko dugu



Ate Irekiak


otsailaren 4an, 10:00-14:00

Bilera Informatiboak:
11:00 edo 12:00

Ibilbide Gidatuak:
11:30 edo 12:30

www.mlagundia.net

Espolonia Kalea, 1 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)  943 76 25 40



Ignazio Ernabide. MAURO SARAVIA



Andres Egaña. MAURO SARAVIA

Azken batailoia-aren aurpegiak, Aroztegin

Mauro Saravia txiletarraren argazkiekin Intxorta 1937 Kultur Elkartek dakarren erakusketak 36ko gerrako 29 gudari eta milizianoaren erretratuak jasotzen ditu. "Faxismoaren erresistente horiei omenaldia egitea" da mostraren helburuetako bat

Julen Iriondo BERGARA

Gaurtik otsailaren 5era bitartean hartuko du Aroztegi aretoa *Azken batailoia* izeneko erakusketak, Mauro Saravia argazkilaria txiletarraren eta Intxorta 1937 Kultur Elkartearen arteko elkarlanetik sortutakoa. 2015eko Elgetako Erresistenten Eguna- ren jiran gertatu zen Saraviak eta elkarrekin, batera, proiektu hau aurrera eramatea pentsatzea.

Artistaren interesa, aurrekoa

Horren aurrekoa zen, hori bai, argazkilaria txiletarraren interesa, Txilen bertan bizi zenekoa –gaur egun, Euskal Herrian bizi da–; birraitona, gerra tarteko, Nafarroatik hara erbesteratu izanak ere bazuen eraginik horretan: "Beti entzun izan nituen, ume-umetatik, istorioak; etxean, eta baita euskal diasporako nire lagunaren partetik, edo Kataluniako jatorria dutenengandik".

Baina gertatutakoaren gainean eta haiek bizitakoaren eskutik

gura beste azalpen zehatzik lortu ezin –"kontinente berriaren zerotik hasten zirelako, eta ez zutelako hitz egiten; hemen bizi izandakoak ahaztu eta bizimodu berria hasten zutelako"–, eta Saraviaren zalantzek eta jakin-minak hor zirauten: "Zer gertatu zen jakin nahi nuen, lehen eskutik".

Horrela hasi zen duela bi urte pasa egitasmo honekin, faxismoaren aurka jardundakoei argazkiak egiten eta haien gaineko informazioa jasotzen. Eta Intxorta 1937 Kultur Elkartekoei harremana eginda, erakusketan ikus daiteke orain lan horren uzta.

Bizirik geratzen ziren 29 gudari eta milizianoaren argazkiak eta haiei buruzko azalpenak dira –zirenenak, lanean hastetik hona bederatzit hila eta–; hildakoen horien gainekoak ere badatoz erakusketan, laburtuta; Euskal Herriko lau herrialdeetako gudari eta milizianoenak, askotariko joeratakoak, Intxorta 1937

Kultur Elkarteko Juan Ramon Garairen arabera: "Abertzaleak, komunistak, anarkistak, errepublikanoak eta sozialistak". Tartean dira bi bergarar ere, Ignazio Ernabide eta Andres Egaña, Loiola batailoian ibilitakoak.

Inaugurazioa, 19:00etan

Erakusketaren helburuei dago kienez, zera dio Juan Ramon Garaik: "Faxismoaren erresistente hauei omenaldia egiteaz gain, egia eta justizia aldarrikatzea. Kolpe militar faxista bat egon zen, euskaldunoi sufrimendu handia ekarri ziguna, eta zauriek itxi gabe jarraitzen dute oraindik".

Bergaran baino lehenago, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan, Ugaon eta Elgetan egon da erakusketak. Bergarako gaur inauguratuko dute, 19:00etan, erakusketako protagonisten ordezkariak bergararrarekin eta Elena Lete alkatearekin, besteak beste.

EH Bilduk aurrekontuen lanketa prozesuari kritika egin dio

Udal Gobernuak ez duela "ez beste alderdien, ez batzordeetan parte hartzen dutenen" iritzirik jaso diote

Maite Txintxurreta BERGARA

Astelehenean, urtarrilak 30, ohiko osoko bilkura egingo dute udaletxean (19:30). Bertan, 2017rako EAJren eta PSE-EEren Udal Gobernuak proposatutako aurrekontuak bozkatuko dituzte.

Oposizioak hilaren 18ra arteko epea izan du emendakinak aurkezteko. EH Bilduk ohar bidez azaldu ditu bere ekarpenak.

Prozesuarekin ados ez

Koalizioetik azpimarratu dute ez daudela pozik Udal Gobernuak aurrekontuak lantzeko aurrera eramandako prozesuarekin, "ez baitute ez beste alderdien, ez batzordeetan parte hartzen duten herritarren iritzirik jaso".

"Bereziki aipatzekoa" iruditu zaie "auzoetako ordezkarietara izandako hutsunea. Auzo batzordean aurrekontu proposamenik aurkeztu eta beraien ekarpenik jaso gabe aurrekontuak onartzeko asmoa dute EAJ/PSEren boto bakarrek gehien goa baliatuz. Beraiek markatutako datetara mugatzeak asko zaildu du akordioetara iristea".

EH Bilduk zalantzan jarri du gobernuak "akordioetara iristeko benetako interesa" duenik.

Koalizioaren proposamenak

Hala, EH Bilduk aurrekontuei hainbat ekarpen egin nahi izan dizkie, hamaika puntutan.

Lehenik, "Udala Arrizuriagaren jabe egin ondoren eta eraikinaren egoera eskasa ikusita",

etorkizuneko proiektua idazteko partida bat beharrezkotzat dute.

Enpleguaren sustapenaren bueltan, laguntzak eskatu dituzte "lan harreman demokratikoak eta erabakigune horizontalak bermatzen dituzten lanpostuak sortzen dituzten enpresentzat".

Seminarioko aretoa nolakoa izango den erabakitzeke parte hartze prozesu baterako partida bat ere eskatu dute.

San Joxepeko magalean baratze urbanoak ezartzea ere proposatu dute, dagoeneko garatuta dagoen proiektua exekutatu.

Umeendako jolasune estali bat ere jasotzen du oharrak.

Beste partida bat, "Osintxun, gerora bere birgaipenerako erabiliko diren eremuak udalaren esku jartzeko".

Herriko urak kolektorera isurtzeko proiektua exekutatzeko jarraitzeko partida handiagotzea ere proposatu dute, isuri puntu gehiago ekidite aldera. Horrekin lotuta, herriko urak sarean txertatu eta bertatik kudeatzeko moldaketak egitea eskatu dute.

Burujaibetza enertegiarantz bidea egiteko aukerak aztertzekeo partida bat ere nahiko lukete.

"Herri lurrak berreskuratu eta basoetan landaketak egiteko partidari gehitzea, iazkoa mantenduz"; hori da beste puntu bat.

Bukatzeko, "herrian parte hartze prozesu zabal eta erabakigarri bat burutzeko" partida proposatu dute, "gobernuan dagoen alderdia dagoela" bete beharrekoa.

Badago lekua Miguel Altunako ikastaro subentzionatueterako

Miguel Altuna Institutuan datozten asteotan hasiko diren ikastaroetarako oraindik ere bada- go izena emateko aukera. Guztiz subentzionatutako ikastaro hauek fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika eta administratza alorrekoak dira. Informazio gehiagorako, bi bide hauek: 943-76 70 49 edo ikastaroak@maltuna.com.

Helduen Eskolako matrikulazioa, hilaren 3ra bitartean

Helduen Eskolak irekita dauka ikasturteko bigarren lauhileko- rako matrikulazioa. Otsailaren 3ra arte eman daiteke izena, Irizar jauregian edo 943-76 44 52 zenbakian. Bigarren Hezkuntza- ko graduatua ateratzeko bada- de lekuak libre, eta baita gazte- lera, ingelesa edo frantsesa ikasteko ere. Ekainera bitartean izango dira eskolak.

HEZKUNTZA ERALDATZEN; ARANZADI BERRASMATZEN

BERRITZAILEA
FAMILIARRA
HUMANISTA



IZEN EMATEA
Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era.

■ Urtarrilak 30, 18:30,
Aranzadi ikastolan

HITZALDIA:
*HAURRA IKUSTEKO MODU
DESBERDIN BAT*
Hizlaria: Rafael Cristobal

■ Otsailak 1, 18:30,
Aranzadi ikastolan

BILERA INFORMATIBOA:
IKASTOLAREN AURKEZPENA

■ Otsailak 5, 11:30-13:30,
Aranzadi ikastolan
ATE IREKIAK



Bisita gidatu pertsonalizatua egiteko
deitu 943 76 90 71 telefonora.
Idazkaritzako ordutegia: 07:00-18:00

www.aranzadiikastola.eus
bergara@ikastola.eus

**ARANZADI** *ikastola*
Kalitatezko Euskal Heziketa


ikastolenelkartea

Hilzoriko Kristoa kutxan sartuta eroan zutenekoa

Irudia Sevillan da. Zaharberritu egingo dute han aurrena, eta komentu bateko erakusketan erakutsiko dute gero. Udaberrian egongo da bueltan Juan de Mesaren artelan handia, eta ordurako ohiko kokalekua ere txukunduko diote San Pedro elizan

Julen Iriondo BERGARA

Andaluziako Ondare Historikoko Institutuan zaharberritu, eta Juan de Mesaren maisu izan zen Martinez Montañesen eta haren irakasle izandako Pablo de Rojasen beste bi lanekin batera erakutsiko dute Hilzoriko Kristoa Sevillako karmeldar oinutsen komentuan.

Irudiaren balioa aintzat hartuta, tentu handiz egin zituzten astelehenean hura San Pedro parrokiako bere kokalekutik kendu eta bidaiarako prestatzeko lanak. Ahaleginak merezi izango du, Sevillako erakusketak bisitari asko izatea -70.000, 100.000..., irudiaren bila etorritako enpresako Luis Garduñoren

arabera- aurreikusten dute-eta, eta, gainera, itxura hobetuta itzuliko da Hilzoriko Kristoa. Hori horrela, etxeko txokoa ere -erretaula- txukundu egin gura diote, argiztapena hobetu... "Gurutzea konponduz gero, ezin da berriz ere kapera honetan kapera dagoenetan jarri", zioen Jon Molina parrokoak.

Lekualdatzea, tentu handiz



Lekualdatzea Azken aldiz 1982an atera zen Hilzoriko Kristoa Bergaratik, orduan ere Sevillara -han egin zuen Juan de Mesak, 1622an-.



Lantaldea Galeria Garduño enpresa espezializatuko bost lagunek hartu zuten parte astelehen goizeko operazioan.



Neurrira Irudiarentzat propio egindako eta hari zehatzago ezin egokitutako kutxa batean sartu zuten. Kutxaren neurriak, metroan: 4x2x1.



Bidaia San Pedro parrokiatik irten eta 860 kilometro zituzten Sevillaraino, dozena bat ordu errepidean, orduko 90 kilometrora, badaezpada.

Pol-Pol mendizale taldeak 75. urteurrena ospatuko du aurten

Egitarau mamitsua prestatu dute, eta martxoaren 19an egingo dute ospakizun handia; liburua ere aterako dute

Maite Txintxurreta BERGARA

Urtemuga berezia du aurten Pol-Pol mendizale taldeak; 75.a, zehazki. Egitarau mardula gertatu dute horren bueltan.

Lehen hitzordua martxoaren 15ean izango da, urteurrenaren egunean. Mahai inguru bat egingo dute Irizar jauregian, 19:00etan.

Herri bazkaria eta bestelakoak

Hala ere, egun handia martxoaren 19a izango da. Azkarate-Bergara mendi irteera egingo dute goizean, eta ondoren, bazkaria, musikaz girotuta. Txartelak 35 eurotan erosi daitezke otsailaren 28a baino lehen, toki hauetan: Gracianen, Pol-Pol tabernan, Lazkanon eta Pol-Polen bulegoan.

Martxoaren 21ean eta 23an mendiko filmen emanaldi bana izango da. 26an, berriz, Udal Bandak kontzertua emango du, eta *Pol-Pol martxa* joko dute.

Geroago, maiatzaren bukaeran, Bergaran egingo dute Puntaik Punta mendi jaialdia, eta, horren baitan, Pol-Pol zerbait antolatzeko gogoz dago. Pentekosteetan, berriz, La Palmara irteera berezia egingo dute (Kanariak). Hori, oraingoz, aurreikusitako hitzordua.

Elkarrearen historia, liburuan

Taldearen historia bilduko duen liburua ere argitaratuko du Pol-Polek. Dena den, aurtengo argazkiak eta kontakizunak ere sartu nahi dituzte; beraz, 2018an kaleratuko dute.

Migel Angel Elkoroberezibar arduratuko da liburua idazteaz. Herritarrei dei egin diete ekarpenen bat egin nahi izanez gero -argazkiak, informazioa...- autoreaekin kontaktuan jar daitezten, 606 52 68 10 telefonoan edo maelkoro@gmail.com helbidean.

Jaiak: Aratusteetako bazkaria eta kartela, eta gazteekin bilera

Mozorro bazkarirako txartelak eguaztenean jarriko dituzte salgai, Pol-Polen, Ariznoan eta Udaleko Kultura Zerbitzuan. Bestetik, Aratusteetako kartela aukeratzeko botoa eman daiteke dagoeneko www.bergara.eus helbidean. Azkenik, Pentekosteetarako 12 eta 17 urte artekoen proposamenak jasoko ditu Udalak gaur, 19:00etan, gaztelekuan.

Ikastaroetarako izen-ematea zabalik dago San Joxepen

Testu-dokumentuak sortu eta diseinatu, otsailaren 6tik martxoaren 15era -astelehen-eguzten-; *Erabili Internet zure egunerokoan*, martxoaren 20tik apirilaren 26ra -egun beretan-, eta martxoaren 14tik apirilaren 6ra -martitzen-eguen-; *Argazkiak ukitu aurkezpen digitaletarako*, otsailaren 7tik martxoaren 9ra -martitzen-eguen-.

Gabonetako gehiegikerien ostean orekara nola itzuli

Gabonak amaitu zirela aste batzuk badira, baina izango da oraindik orduko mahai bueltako gehiegikerien ondoren gainetik kendu ez dituenik. Bada, *Gabonetako gehiegikerien ondoren orekara itzultzea* izeneko hitzaldia egingo du makrobiotikan aditua den Jexux Larretxeak gaur, 19:00etan, Irizar jauregian.

San Paulo jaiak ospatuko dituzte Uberan, gaur hasita

20:30ean txupina eta ongietorria Mari Justari eta Pedro Joxeri, 21:00etan Iker Zubeldiarekin eta Julio Sotorekin bertso afaria, eta ondoren dantzaldia; bihar eguerdian umeentzat jolasak eta patata-tortilla eta tarta lehiaketak, 13:00etan jaioberriei ongietorria eta 14:30ean auzo bazkaria; domekan, meza 11:00etan eta Alai taldea eta dantzak gero.

Ikuskizunik ez da faltako lau t'erdiko txapelketan

laz formatu murrizagoan egin behar izan zuten, baina aurten berriro ere zortzina pilotari arituko dira promes mailan eta nagusietan. Parte hartzaileen artean, Josu Zezeaga bergararra eta Bergara klubean diharduen Ander Murua arrasatearra daude

Maite Txintxurreta BERGARA

Lau t'erdiko Soraluze txapelketa atzera ere bueltan da. Zazpi astez martitzenero partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, martxoaren 14ra arte. Diru faltagatik iaz txapelketa murriztua egin behar izan zuten, launa jokalarirekin, eta aurten, atzera ere, betiko formatua berreskuratut dute, babeslearengandik iaz baino diru gehiago jasota. Hala, promesetan eta nagusietan zortzina pilotariren artean jokatuko dute txapela.

Iazkoa "triste samarra" izan zela-eta, pilota elkartean aurtengorako bi aukera ikusi zituzten: zortzi pilotarirekin egitea, edo, bestela, txapelketa ez antolatzea, Reyes Azkoitiak azaldu duenez. Azkenean, aurrera egiteko apustua egin dute, nahiz eta diru laguntzak ez dien gastu guztiak estaltzen. Horregatik, beti bezala txuleten zozketa egingo dute frontoian, eta herritarrek laguntza eman ahal izango dute txartelak erosita.

Murua eta Zezeaga

Azkoitiak dio txapelketa honetara "momentuko pilotaririk onenak" ekartzen ahalegintzen direla. Bada, haien artean egongo dira Josu Zezeaga bergararra, egun Iurretan diharduena, eta

Soraluce lau t'erdiko txapelketa

Urtarrilak 31, martitzena (19:30)

- **Promesak:** Aitor Aranguren / Ander Murua.
- **Nagusia:** Peru Labaka / Adrian Prado.

Otsailak 7, martitzena (19:30)

- **Promesak:** Oskar Lerena / Josu Zezeaga
- **Nagusia:** Eneko Labaka / Iraitz Zubizarreta

Otsailak 14, martitzena (19:30)

- **Promesak:** Iban Gartzia / Hodei Exposito
- **Nagusia:** Xabi Santxo / Alain Prieto

Otsailak 21, martitzena (19:30)

- **Promesak:** Jon Alberdi / Unatx Rioli
- **Nagusia:** Aitor Etxeberria / Iker Salaberria

Otsailak 28, martitzena (19:30): lehen finalerdia

Lehenengo eta bigarren jaialdietako irabazleak elkarren aurka.

Martxoak 7, martitzena (19:30): bigarren finalerdia

Hirugarren eta laugarren jaialdietako irabazleak elkarren aurka.

Martxoak 14, martitzena (19:30): finalak

Ander Murua, Bergarako klubean utzita jokatzen duen Arrasatearra. Hain zuzen, txapelketaren lehenengo partiduan arituko da azken hau, egungo Gipuzkoako txapelduna dena.

Asteburuko partiduak

Bestalde, gaur, egubakoitza, hiru partidu izango dira Udal Pilo-

talekuan, 19:30ean hasita. Alebin mailan, Maddi Lazpiur bergararra Lagunakeko ordezkariaren aurka. Infantiletan, Iker Etxaniz-Andoni Pereira bikotea Aretxabaletako bikotearen kontra. Bukatzeko, nagusien lehen mailan, Bergara-Azkoitia, Eneko Muguruza eta Beñat Iñarra izango dira herriko ordezkariak.

Olatz Saituaren eta Eugenio Tobalinaren kontzertua

Soprano eta gitarra-jole bilbotarrak Mariaren Lagundiko elizan izango dira bihar, zapatua

J.I. BERGARA

Olatz Saitua 1967an jaio zen, Bilbon. Gitarra eta kantu ikasketak egin zituen Bilboko Kontserbatorioan. Bizkaiko Foru Aldundiaren beka batekin, Carlo Bergonzirekin jarraitu zituen ikasketak Sienako Accademia Chigianan, eta Wilma Lippekin Salzburgoko Hochschule Mozarteumen; bertan graduatu zen Operan, 1996an.

Orduetik aurrera, hainbat sari nazioarteko lehiaketetan, eta antzoki ospetsuetan operan eta musika ziklo garrantzitsuetan jardun du, baita bateko eta beste orkestrekin ere.

Eugenio Tobalina ere Bilbon sortua da, eta bertako Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan ikasitakoa. David Russell eta Leo Brouwer maisuak ezagutu izana erabakigarria izan zen bere formazioan eta baita ibilbide profesionalerako ere.

Interes handia agertu du bere garaiko musikarekiko, eta gitarrarako ezohikoa den erreperitorioarekiko ere bai. Denetik egin du: bakarkako errezitaldiak, gitarra eta orkestrarako kontzertuak, elektronikarekin lan...

Olatz Saituaren eta Eugenio Tobalinaren kontzertua 20:00etan hasiko da.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Pasioa

La la land filma ikustera joan nintzen asteburuan. Oskarrak lortzeko faboritoen artean dago, Urrezko Globo sariak lortu ostean. Beraz, espektatiba altua zen. Ikustera joan izanaz damutzen hasita nengoen lehen hamabost minutuetan. Ez zen ezer gertatzen! Baina, bat-batean, zeharo harrapatu ninduen filmak. Zenbait momentutan aspaldi ez bezala hunkitu nintzen, eta filmaren mezua ondo ulertu nuen: artistak, ez badu egindakoa sinisten, oso zaila izango du publikoaren oniritzia jasotzea. Domeka goizean, berriz, Bergarako Banda entzutera joan nintzen. Pilotalekua beteta, nire aulkian jarri eta aspaldian ez bezala disfrutatu nuen herrian hezitako musikariak egin zuten kontzertuaz. Eta bai hunkitu ere, nire aurrean jarrita zeuden bi emakume, Bergarako abeslari veteranoak, kantuan hasi zirenean bandak zarzuela ezagun bat jotzean. Filman bezala, pasioa transmititzen zen. Eta asteburua bukatzeko, musikari ospetsu bat: Ara Malikian biolin-jolea, Kursaal. Lehen notarekin, zirrarara. Nola liteke instrumentu batekin hainbeste transmititzea! Hirugarren besoa balitz bezala erabiltzen du biolina. Hiru ikuskizun ezberdin, gauza komun batekin: pasioa!

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

INFORMAZIO BILERA

Urtarrilaren 31n asteartean, 18:00etan
Haur Hezkuntzako eraikinean (zaintza zerbitzua)

ATE IREKIAK

Otsailaren 4an, 11:45etik aurrera Haur Hezkuntzako eraikinean

San Martin Agirre
herri eskola
BERGARA



Tel.: 943 76 21 47
Boni Laskurain 15/25
012265aa@hezkuntza.net
www.sanmartinhi-bergara.hezkuntza.net
www.facebook.com/sanmartinagirre.herrieskola





Martitzen iluntzean udal taldeetako ordezkariak aurrekontuak bozkatu aurretik. MAIDER ARREGI

"Ekarpeni tokia egindako" aurrekontuak

EH Bilduren botoekin onartu dira asteon 2017rako Antzuolako udal aurrekontuak. 2.686.000 euro izango dira aurten. EAJ kontra ez, baina kritiko azaldu da zenbait gairekiko. Alderdi Sozialistak aurkako botoa eman du politikekin bat ez datorrelako

Miader Arregi ANTZUOLA

Martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zen 2017rako Antzuolako aurrekontua: 2.686.000 euro. Iazkoa baino 10.000 euro handiagoa da. "Jarraipeneko eta ekarpeni tokia egindako aurrekontua aurkeztu dugu. Hau da, herritarrekin eginikoa eta oposizioari entzundakoa. Aurrekontuak ahalik eta sentsibilitate gehien jasotzea gura izan dugu", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak. EH bilduren botoei esker onartu dira. EAJ ez da aurrekontuekin guztiz ados azaldu eta abstenitu egin zen. Jeltzaleek azaldu zuten kontra ez, baina kritikoak direla zenbait gairekiko; adibidez, zirkulazioa arautzeko seinaleetan kamerak jartzeko erabakiarekin. "Gehiago aztertu beharreko gaia da; gainera, kostu handia dauka, 17.500 euro", azaldu zuten. Alkateak, baina, zirkulazio araudia onartuta zegoela eta modu onean abiatutako ekimenak ez

zuela ezer lortu azaldu zuen. Beraz, Kalebarrengo seinaleetan kamerak jarriko zituztela Oinezkoen Plana bermatzeko. Miren Arrate Gallastegi zinegotzi sozialistak aurkako botoa eman zuen: "Aurrekontu kontinuitate dira. Gizarte politiken aldeko apustu eskasa dago eta inbertsio gutxi ikusten ditugu aspektu horretan".

Alkateak, ordea, hori horrela ez dela azaldu zuen eta badela aurrekontuan laguntza eta ekimen sozialak garatzeko lanke bat egiteko diru partida jasoa azaldu zuen.

Plan Estrategikoa: 2025-2030

Aurtengo inbertsio nagusiengatikoa da Antzuolako Plan Estrategikoa abiatzearena. 20.000 euroko diru partida izango du eta alkateak dio herritarrekin egin gura duela. "Parte hartze proiektua bultzatuko dugu eta herritarrei galdetuko diegu ea nolako Antzuola gura duten 2025-2030ean. Horrekin lanketa

bat egingo da eta markatuko du ondorengo urteetan Udalera iristen diren taldeek egin beharrekoaren zati bat", dio alkateak. EAJk azaldu zuen euren proiektua eginda dagoela eta kontuan hartzeko eskatu zuten aldi berean, kostuak ere arinduz.

Baserrietara, ura

Baserrietara ura eramatearen lanen inbertsioa ordea, aho batez onartua izan zen. Hain zuzen ere, aurten 80.000 euro bideratuko dira Ur Kontsorzioak egindako aparteko diru laguntzari esker. Galartza auzoraino ura eramane ahal izateko lanen errematea egitea da aurtengo asmoa.

Zorra txikitu

Udalaren egoera ekonomikoari dagokionez, abenduan 1.300.000 euro pasatxoko zorra zeukan. Hala, martxa honetan, legealdia bukatzerako, zorra milioitik behera jaitea espero dutela azaldu zuen alkateak.

488 kilo elikagai batu ditu Anelkarrek Saharara bidaltzeko

Santa Ageda bezperan jasoko den dirua 'Oporrak bakean' programa bultzatzeko izango da aurten

M. A. ANTZUOLA

Azken urteetan baino elikagai kopuru txikiagoa batu duten arren, Anelkarrek eskerrak eman gura dizkie herritarrei: "Badakigu ez direla garai errazak, baina eskerrik asko!". 45 kaxatan batutako 488 kilo elikagai Saharara bidean dira dagoeneko.

'Oporrak bakean'

Otsailaren 4rako, herritarrek animatu gura ditu Anelkarrek Santa Ageda bezpera ospatzeko. Kantuan batuko den dirua oporraldian haur sahararrak ekartzeko izango da. "Oporrak bakean" programa bultzatu gura dugu jendea animatuz".



Olaran etxean egin dute batutako elikagaien kontaketa. MAIDER ARREGI



AITZ GARBÍ

Murgiondoren lana ikusgai

Beart Bergarako margolarien elkarteko kide da Itziar Murgiondo. Aitz Garbin jarri ditu lanak ikusgai. "Marrazkiak eta margolanak dira erakusketaren ardatz", azaldu du Murgiondok. Askotariko teknikekin egindakoak direla gaineratu du: "Arkatzez, akuarelez edo akrilikoz egindako lanak, aspaldikoak eta berriagoak batu ditut".

"Herriko aberastasuna plazaratzea lortzen da"

IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ AUZOKOKO DINAMIZATZAILEA

Auzoko proiektuak dinamizatzaile berria dauka: Idoia Ramirez de Okariz. Besteak beste, emakumeei presentzia ematea helburu dutela azaldu du antzuolarrak

M.A. ANTZUOLA

Idoia Ramirez de Okariz Kortabarria antzuolarra da aurrerantzean Auzoko saioetako gidaria eta dinamizatzailea. Gizarte eta Haur Hezitzaile ikasketak egin ditu eta modu aktiboan herrigintzan jardundakoa da.

Aurpegi berria izango du Auzoko ekimenak aurrerantzean. Nola helduko diozu erronka berri horri?

Gogotsu helduko diot erronkari, Maite Telleriak –orain arteko dinamizatzailea– egindako lanari jarraituz. Denbora tarte batean herritik kanpo egon ostean berriz ere itzultzen hasteko modu polit bat dela uste dut, eta ikasteko erabili nahiko nuke, batez ere.

Zergatik da garrantzitsua Auzoko herrian? Zein ondorio ditu?

Euskaratik urrun dauden herritarrek euskarara hurbiltzeko modurik politena da; harreman pertsonalen eta elkar laguntzaren bitartez lortzen dena. Modu horretan euskararentzako zubiak eraikitzen dituelako da garrantzitsua Auzoko.

Herria aberasgarriagoa egitea lortzen da modu horretan?

Herria ez du aberasgarriago egiten, herriko aberastasuna plazaratzea lortzen dugu.

Antzuolan oso parte hartze handia lortu da bai auzokide eta baita auzotarren artean ere. Pozgarria da, ezta? Herritarrei zer eskatu gura diezu?

Egia da Antzuolan auzokide eta auzotar ugari elkartu izan gara azken urte hauetan. Auzokideen joan-etorria handitzen hasi da, eta, momentu honetan, aldaketa prozesuan gaude. Berriz gonbidatu nahiko genituzke herritarrek Auzokora, eta Auzokotik kanpo ere euskaraz bizi eta bizi nahi dutenei laguntzera etortzeko eskatu gura diet.

Izan ere, Antzuolan oso auzokide eta auzotar fidelak daude; hutsik egiten ez duten horietakoak. Baina, agian, gazteen beharra –belau-



Idoia Ramirez de Okariz Kortabarria. MAIDER ARREGI

"EMAKUMEEKIN EGITEN DUGUN AUZOKO SAIOEI ERE PRESENTZIA EMAN NAHI DIEGU"

naldi berriaren beharra– ere bada- go, ala?

Orokorrean, herritar ororen beharra dagoela esango nuke, gazteena bai, gurasoena ere bai, baina baita urte askoan herrian bizi eta euskaratik urrun dauden pertsonena ere.

Zein ekintza dituzue ondorengo hilabeteetan egiteko?

Auzokon elkartzen garen lagunon artean joango gara ekintzak gehiago zehazten; hala ere, laster Aratusteak datozenez, ekintzaren bat edo beste egingo dugu. Baita Korrikari begirako zerbait ere. Helburua herrian egiten diren ekintzetan parte hartzea ere badelako.

Emakumeekin ere lan berezia egiten du Auzokok; zergatik?

Emakumeen egoera ezberdina da, orokorrean, jendartearen. Etxetan lan egiteaz gain, zaintza lana ere askotan gure gain egoten

delako. Hori dela eta, emakumeekin goizetan elkartzen hasi ginen, auzokide zein auzotar. Modu horretan, emakumeen arteko konfiantza gune bat erakitzea lortu da; giro aparte egoteaz gain, euskarara ere hurbilpena egiteko asmoz.

Auzoko saioen maiztasuna eta ordutegia ere aldatu dira.

Otsailetik aurrera arratsaldeetako Auzoko eta emakumeekin egiten dugun Auzoko saioak bi astean behin izango dira. Beraz, urtarrilaren 30ean arratsalde hasiko gara, 17:30ean, Orlanaren. Emakumeekin, aldiz, lehen saioa otsailaren 6an goizez egingo dugu: 10:30ean. Modu horretan, emakumeen Auzokori ere presentzia eman nahi diegu. Hala ere, bi talde soil izan ez daitezten, elkarrekin ere egingo ditugu antolatutako askotariko ekintzak, hain zuzen ere.

"GURE HELBURUA DA HERRIAN EGITEN DIREN EKINTZEKIN BAT EGITEA ETA PARTE HARTZEA"



'KAXETA'

Zazpi bikote domekako finalean

Antzuolako mus txapelketan 34 bikotek parte hartu dute eta horietako zazpi jokatu dute domekan finala, Arin jatetxean 16:30ean hasita. Berni eta Juanshi, Miren eta Luken, Iker eta losu, Erik eta Txarli, Lorentxo eta Jesus, losu eta losu eta Joseba eta Claudio bikoteek parte hartuko dute. Horietatik lau bikote sailkatuko dira Gipuzkoako txapelketara.



'EZ DOT MOZTUKO BIZARRA'

Majarenasen egoera salatu dute

Sara Majarenas euskal presoaren alabak jasandako eraso salatzeke elkarretaratzea egin zuten pasa den egubakoitzean antzuolarrak. Zurrategi plazan 50 lagun inguru batu ziren eta *Euskal emakume presoaren kondena hirukoitza, Sara Majarenas askatu* lelopean salatu zuten donostiarrak bizi duen egoera larria.

Kalegoi 12ko bizilagunen esker ona herritarrei

Pasa den eguenean, eguerdi aldera, Antzuolako Kalegoi 12ko etxebizitza baten teilatuak su hartu zuen. Zorionez, susto galanta baino ez zen izan eta inork ez zuen minik hartu. Suhiltzaileek berehala menderatu zuten sua. "Mila esker herritarrei emandako laguntzagatik, Mike-len, Estherren, Ibaireren eta Naiaren partetik", adierazi dute.

Haurrendako ipuin kontalaria domekan liburutegian

Belen Azkarate ipuin kontalari antzuolarraren bisita izango da Udal Liburutegian etzi, domeka. Azkaratek herriko haurrendako euskarazko bi ipuin saio eskainiko ditu.

Lehena, 18:00etan, 4 eta 6 urte bitarteko haurrendako izango da. Bigarren saioa, 18:45ean, 7 eta 10 urte artekoendako, hain zuzen ere.

Holokaustoaren bi biktima elgetarri omenaldia gaur

Mendizaleen Plaza erdian kokatuko ditu Udalak Pascual Askasibarren eta Tomas Rebolloren omenezko oroitarriak, eta ekitaldi xumea egingo dute haien omenez, 18:00etan. Bartzelonatik etorrira, han izango da Tomas Rebolloren semea

Larraitz Zeberio ELGETA

Mauthausen-en hildako aitari omenaldia egingo diote gaur Elgetan, eta han izango da Tomas Rebollo Olivart. Urteak daramatza holokaustoaren biktimen memoriaren aldeko lanean, eta pozik jaso du Elgetako Udalaren gonbidapena. Semeekin batera aita zenaren sorterrria ezagutuko du, 79 urterekin.

Holokaustoaren biktimak omenezko nazioarteko eguna da gaur, eta ekitaldia eta bideo emanaldia iragarri ditu Elgetako Udalak. Tomas Rebollo Etxanizekin batera gogoan izango dute Pascual Askasibar ere. Mauthausen-en hil zuten Rebollo eta Wöbblin-en Askasibar. "Holokaustoaren biktima elgetar bakartzat genuen Rebollo, baina Zabaleta auzoko Galarraga baserrian jaiotako Pascual Askasibarren berri ere izan dugu. Galdetu dugu herriko nagusien artean, Askasibar abizena dutenen artean, baina ez dugu ondorengorik topatzerik izan", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak.

Ekitaldi xumea

Aureskua eta lore eskaintza egingo dituzte oroitarrien parean, gaur, 18:00etan. Ondoren, *Nuit et brouillard* ikus-entzuzko emango dute udaletxean,



Tomas Rebolloren alarguna eta semea Mauthausen-en dagoen plakaren ondoan. T. R.

HOLOKAUSTOAREN BIKTIMEN GAINKO HITZALDIA ETA BIDEOA, 19:00ETAN, UDALETXEAN

eta aitaren inguruko hitzaldia egingo du Tomas Rebollo Olivartek. "Familiak ekitaldi xumea eskatu du, eta eskaera horretara egokitu dugu omenaldia", azaldu du alkateak. Holokaustoaren biktimak memoria his-

torikorako berreskuratzea Europa osora zabaltzen ari den mugimendua dela azaldu du Lazkanok, eta Elgetakoen moduko oroitarriak badaudela beste hainbat lekutan. "Memoria kolektiboa berreskuratzeko eta kontzientziak bultzatzeko urrats berria da. Azkenean, Rebollo eta Askasibar faxismoaren beste bi biktima dira, kate bereko beste bi katebegi".

Holokaustoaren biktima debagoiendarren gaineko erreportaje berezia dago gaur irakurgai PUNTUA aldizkarian.

Gas kontsumo errearen gaineko fakturak iristear daude

Naturgas Energiak jakinarazi du metatutako fakturak izanik zatika ordaintzeko aukera izango dutela bezeroek

L.Z. ELGETA

Gas faktura txikiak iritsi dira azken hilabeteotan Elgetara, eta kezka sortu du horrek hainbat kontsumitzaileen artean. Naturgas Energia da urria ezkerreko Elgetako gas hornitzaile berria, eta denbora tarte horretan bidali dituen hainbat fakturatan ez da gas kontsumo erreala kontuan hartu. "Datuen eskualdatzea motel joan da, eta hurrengo astean hasiko gara kontsumo datu errealekin egindako fakturak igortzen", esan du bezeroendako arretra zerbitzuak. Azaldu dute

fakturaren zati finkoari soilik dagokion ordainketa egin dutela elgetarrek hilabeteotan. Iristear dauden fakturak metatutako gas kontsumoari dagozkionak izango dira. Hala, zatika ordaintzeko aukera izango da. "Bi hilabeteko kontsumoa bada, bi zatitan ordaindu ahalko da", azaldu du Naturgas Energiak. Konpainiak urrian erosi zizkion Elgetako gas kanalizazioak Repsol Butanori. Bezeroei idatziz jakinarazi zien urteko lehen hiruhilekoan zehar aurreikusten zuela fakturatzeko hastea.

Diabetesaren gaineko doako testa egiten dute Elkoro botikan

Bi motako diabetesa izateko arriskua kalkulatzeko duen Findris testa egin daiteke Elkoro botikan ekainera arte. Kanpaina 40 urtetik gorakoei edo arrisku faktoreak dituztenei zuzenduta dago. Neurtu, pisatu eta galdera sorta bat erantzun behar da. Gero, emandako arrisku mailaren arabera neurriak proposatzen zaizkio test egileari.

Elgetako mintzalagun taldea Euskararen Ginkanaren finalean

Donostiako Ekogunea parkean jokatu da bihar, zapatua, Euskararen Ginkanaren finala. Lau talde sailkatu dira; tartean, Elgetako mintzalagun taldeko seikotea. Hainbat proba izan dituzte abendu erdialdea ezkerre, eta azken laurak egin beharko dituzte bihar eguerdiko finalean. Hiru mila euroko zakua dago jokoan. —Ikus 48. orria—

Elgetako Alfa Deco enpresako 23 langileak, zer etorriko zain

Abenduko bi kaleratzeak buruan, lan-karga txikiegia dutela diote lanean jarraitzen duten langileak

L.Z. ELGETA

Automoziorako piezak egiten jarraitzen dute Pagatza industrialdean dagoen Cie Alfa Deco enpresan. Oraingoz, 23 langile ditu Elgetako plantak, baina ez daude batere lasai. Abenduko bi kaleratzeak buruan, ez dute mobilizatzeko asmoa baztertzen, eta zain daude zuzendaritzatik zein erabaki berri etorriko den. "Udan, Ermuko Amaia Telleria enpresa erosi zuen Cie Automotive taldeak eta jakin dugu urtarril bukararako 42 kaleratze daudela au-

reikusita", adierazi du Elgetako plantako langileen ordezkariak. Langileak ziurgabetasun handian daudela eta lan-karga txikia dutela gaineratu du.

Azaro hasieran hasi ziren mobilizazioekin Cie Alfa Deco enpresako langileak. Salatzen dute Cie Automotive enpresa berriak erosten ari den multinazionala dela, irabazi handiak dituela eta bost kontinenteetan zehar hedatzen ari dela. "Egoera pribilegiatu horrek, ordea, ez du eraginik hemengo enpresengan zein langileengan".

Oroitarriak Europa osoan

Bi oroitarri inauguratuko dituzte bihar Elgetan, baina 60.000 inguru daude Europa osoan. Errenteriako La Ilusion taldeak dihardu ekimen horretan, Gipuzkoan. "Gure lan ildoetako bat da holokaustoaren biktima gipuzkoarrek zer gertatu zen argitzea", azaldu du taldeko idazkari Florentino Mariñelarenak. "Berlin oroitarri josita dago. Han judu ugari izan

ziren holokaustoko biktima". La Ilusion taldeak bultzatuta 2012an ipini zuten holokaustoko biktima baten aldeko lehenengo oroitarria Gipuzkoan. Errenterian izan zen. Orduetik beste hamar ipini dituzte. "Zarautzen, Villabonan, Lezon, Andoainan, Hernanin... Hendaian ere ipini dugu", azaldu du Mariñelarenak. Kontzentrazio-eremuetan egondako pertsonekin hitz

egiteko aukera izan dute elkartekoek. Mauthausenen, Vianan, Pragan eta Alemanian ere izan dira dokumentazio eske. Gipuzkoako biktima bakoitzaren omenez oroitarri bat ipini gura dute.

La Ilusion taldeko kideak Elgetako ekitaldian izango dira gaur. Bazuten Tomas Rebolloren berri eta prest zuten haren omenezko oroitarria. Pascual Askasibarren kasua orain gutxi ezagutu dute.



Gazttxoen arteko harremana sendotzeko domekako saioan egindako dinamiketako bat. IMANOL SORIANO



Taldekideenganako konfiantza sustatzeko egindako beste ekintza bat. I. S.

Harremanak zaintzearen garrantzia ikasten

'Berdinen arteko harremanak' izeneko tailerraren bigarren saioa egingo dute domekan gaztelekuan. Aurreko astean egindakoan egunerokotasunean sor daitezkeen gatazkak nola gainditu ikusi zuten 10 eta 11 urte bitarteko dozena bat elgetarrek

Larraitx Zeberio ELGETA

Helduen artean ematen diren moduan botere harremanak eman daitezke gazttxoen artean ere. Adituek prebentzioa aholkatzen dute, eta horretan ari dira asteotan Kalexka elkarteko hezitzaile Eneritz Errasti eta Mikel Zurutuza. Hiru saioko tailerra egingo dute gaztelekuan, eta

domekan egin zuten lehena. Elkar ezagutzeko eta berdinen arteko harremanak nolakoak izaten diren lantzeko baliatu zuten saioa. Rol jokoak eta asertibitate lantzeko ikus-entzuzkoak erabili zituzten hezitzaileek. "Garrantzitsua da horrelako gaiak testuinguru informalean lantzea", adierazi

zuen Errastik. "Jasotako ikas-kuntza errazago eta azkarrago barneratzen dute". Elgetako neska-mutikoen balorazio positiboa egin zuten amaieran.

Etzi, domeka, egingo dute bigarren saioa. Laugarren mailatik gorako herriko gazttxo guztiek aurkituko dituzte zabalik gaztelekuko atak.

"Tailerrean gako batzuk ematen saiatuko gara"

ENERITZ ERRASTI
HEZITZAILEA

Botere harremanei edo jazarpen egoerei aurre hartzeko berdinen arteko harreman orekatuak sustatzea beharrezkoa da.

Ederra da jolasaren bitartez ikastea.

Bai. Helburua da askotariko dinamikien bitartez berdinen arteko harremanak zelakoak behar duten azaltzea. Hainbat egoeratan jartzen ditugu gazteak, eta zein irtenbide eman aztertzen dugu taldean.



I.S.

Garrantzitsua da gaia txikitatik lantzea?

Noski. Egoera baten aurrean erantzuna izan daiteke agresiboagoa edo pasiboagoa. Helburua da denen artean aztertzea egoera, eta denen artean sortzea ikaskuntza berria. Tailerrean hainbat egoera aztertuko ditugu eta gako batzuk aurkitzen saiatuko gara. Lagunartean sortutako ikaskuntza beti da emankorra.

"Kontsumitzaileak ez daki askotan zer nondik datorren"

AMAIA IRAZUSTA BASERRITARRA

Iraunkortasunari buruz aritu zen, atzo, kultura etxean

L.Z. ELGETA

Nekazarien kooperatiba katolikoak gonbidatuta, bere esperientziaren berri eman zuen, Elgetan, Zestoako Urkizu baserriko Amaia Irazustak.

Asko aldatu da nekazaritza?

Ikaragarri. Gaur egungo kontsumitzaileak ez daki askotan zer nondik datorren. Pasatzen da arrautzekin, barazkiekin, oiloekin... Eta kezkatuta egoteko motiboak badaude! Ez dakigu zer jaten ari garen eta sistema, gainera, ez da jasagarria. Baserri munduan ondo dakigu

gaur egun bi urtaro ditugula —negua eta uda—, eta ez lau.

Honen aurrean zer egin daiteke?

Ekoizleak piramidearen azpian gaude, baina badaude ausart batzuk aske lan egin nahi dutenak. Gaztaren eta sagarraren munduan ikusten ari gara. Gehienetan, ekoizle txikiak dira. Sare handi bat sortu beharko genuke kontsumitzaileek eta zuzeneko salmenta egiten duten baserri-tarrek. Lehen, super bio ziren, eta orain, super garbiak gara. Eta jasagarritasunarekin zer? Zabor organikoa diote batzuek,



Amaia Irazusta. URKIZU BASERRIA

baina organikoa ez da sekula zaborra izan. Aberendako janaria izan da beti. Madalenak, berriz, plastiko indibidualetan sartuta datoz. Garbitasunaren izenean zaborra sortzen ari gara, eta legeek horrela eskatuta.

Urteko lehen Herrixa Dantzan saioa, domekan, Spaloian

Ekimenak Elgetako Udalaren babesia izango du, beste urte batez, eta bederatzi saio iragarri ditu Patxi Monterok

L.Z. ELGETA

Ohiko egutegiari eutsiko dio Herrixa Dantzan ekimenak Elgetan, eta domekan egingo dute urtarrileko dantzaldia, 19:00etan. Eskertuta azaldu da gidaritz lanak egiten dituen Patxi Montero: "Elgetako Udalak hasieratik babestu ditu Herrixa Dantzan dantzaldiak. Aurretik hitzarmena sinatuko dugu ekimenak aurrera jarrai dezan Spaloia kafe antzokian", esan du.

Monterok bederatzi dantzaldi iragarri ditu 2017rako: hilero bat egingo dute, ekainean, uz-

taillean, abuztuan eta irailean izan ezik. Ohiko egutegi horri beste saio bat gehituko zaio: maiatzaren 7an Frantziako Gerard Godon soinu-jolearen zuzeneko musikarekin egingo dutena, hain zuzen ere.

Otsaileko saioa ere berezia izango da. Aratuste-domekarekin izanik, Aratuste dantzeekin egingo dute. Euskal Herrian zehar Aratusteetan dantzatu ohi diren hainbat dantzaren tailer-dantzaldia egingo duela aurreratu du Monterok. Otsailaren 26an izango da hori.



Artixa taldeko kide batzuk Gernikako Arbolenaren kimua landatu zuteneko argazkia erakusten. O.E.

Duela 100 urteko Oñati, argazkitan

Otsailaren 2an 100 urte beteko dira Gernikako Arbolako kimu bat Oñatin landatu zutela, eta, data hori aitzakia hartuta, garai hartako Oñati nolakoa zen ikusten den argazki erakusketa zabalduko du Artixa taldeak astelehenean kultura etxean

Oihana Elortza OÑATI

Gernikako Arbolenaren kimua Oñatin landatu zuteneneko mendeurrena aitzakia hartu eta XX. mendeko argazki zahar asko bildu eta erakusketa batean jartzeko prestatu dituzte Artixa taldeko kideek. "Erakusketak hainbat zati ezberdin dauzka: lehen partean Oñatin jazotako iraganeko gertakariak bildu dira, batez ere, XX. mendearen lehen erdikoak. Beste parte batek, berriz, hainbat pertsonaia ospetsuk Oñatira egindako bisita batzuetako argazkiak erakusten ditu", azaldu du Artixako kide Karlos de los Santosek.

Victoria Eugenia eta Franco

Oñatira etorritako pertsona historikoen artean, Espainiako Estatuko orduko erregereginak. Alfontso XIII.a eta Victoria Eu-

genia, eta Francisco Franco estatuburu militarra. "Haren emaztea, Carmen Polo, behin baino gehiagotan etorri zen Oñatira eta haren argazkiak ere badaude erakusketan, baina eztabaida asko egon dira Franco bera etorri ote zen inoiz edo ez, eta bai, etorri zen. 1944an bisitatu zituen Oñati eta Arantzazu", dio taldeko Xabier Zelaiak.

Beste argazki batean Juan Carlos Borboikoa Espainiako erregea ikusten da, eskopetarekin hil zuen anaia Alfontsoarekin batera. Argazki hori ere Oñatin ateratakoa da.

Alfontso XIII.a eta Victoria Eugenia behin baino gehiagotan izan ziren Oñatin. Lehenengoz, 1908ko irailaren 19a izan zen, Donostia-Oñati nazioarteko automobil karabana zela eta. Ezkonberriak ziren orduan erre-

ge-erreginak. Racu izeneko borrokalari japoniar ospetsu bat ere etorri zen, bere espezialitatean munduko txapelduna zena. Handik lasterrera, bere sinpatiatatik, oso ezaguna, popularra, egin ei zen Oñatin.

Garai hartako kronikek ibilgailuen karabana horri buruz idatzitakoak ere jaso dituzte erakusketan. 38 automobilek parte hartu ei zuten; 09:00etan atera ziren Donostiatik eta eguerdian iritsi Oñatira. Txurrukaren ondoan tribuna handi bat jarri zuten eta goi mailako gizarte oñatiarreko emakumeak igo ziren eurez luxuzko kapelak eta jantziak erakutsiz.

Gerardo Elortzak esan bezala, unibertsitatean bazkaldu zuten eta gonbidatuen artean zegoen ia 100 urte zituen aita Anakleto agustindarra. "Emazte polita

zuela esan zion erregeari eta hark agindu zion zoriendu zuela 100 urte betetakoan. Eta horrela izan zen, 1911ko uztailaren 13an". Egun hartan izendatu zuten Aita Anakleto Abade Mitradun; 104 urte zituela hil zen.

Bazkaldu ostean, Arantzazura joan gura izan zuten Alfontso XIII.ak eta Victoria Eugeniak. "Euren Hispano-Suiza dotorean abiatu ziren, baina ezin izan zuten igo Gastiasoroko aldapa, Soraluze hotelaren parean gutxi gorabehera, eta idiekian atoian

1901KOA DA ZAHARRENA, ALOÑAKO GURUTZEARENA, ETA BERRIENAK, 1953KO ZIKLO-KROSEKOAK

eraman behar izan zuten autoa", azaldu du Xabier Zelaiak. Donostiarako bidaiak Oñatin zegoen auto bakarrekin, Juan Garayrenean, egin zuten, Fermin Kortostegik, Oñatiko lehen txoferrak, gidatuta.

Victoria Eugenia trenaren inauguraziora ere etorri zen, 1923an. Hain zuzen ere, kapelarekin, soineko ilun batekin eta lepoko luzearekin agertzen da argazkietan.

Arkurik ez plazan

Ikusgai egongo den argazki zaharrena 1901ekoa da, Aloñako gurutzearen inauguraziokoa, hain zuzen ere. Berrienak, berriz, 1953an Oñatin egin zen munduko ziklo-kros txapelketan ateratakoak dira. Tarte horretan Oñatin ateratako beste hainbat argazkitan ikusten dira, adibi-

Gernikako Arbolenaren mendeurrena

1917ko urtarrilaren 27ko Oñatiko udalbatzak onartu zuen Gernikako Arbolenaren kimu bat herrian landatzea. Erabaki zuten otsailaren 2an egitea landaketa, plazako pilotalekuaren ondoan eta landarea hesola eta alanbre batekin inguratzea, indarra hartu arte. Herriko agintari zibil zein erlijiosoak gonbidatzea ere adostu zuten, baita umeak ere. Honako hauek ziren orduko akta sinatu zutenak: Esteban Gomendio Alzaa alkatea; Leandro Ortiz de Zarate eta Benito Onraitia alkateordeak; Juan Leturia, Simon Arregi, Patricio Mugarza, Migel Arrazola, Anizeto Ugarte, Tomas Arrue, Prudentzio Zulueta, Zipriano Zufiria eta Benigno Millizia zinegotziak; eta Damian Arana idazkaria.

Hala, 1917ko otsailaren 2an egin zuten landaketa, goizeko meza nagusiaren ostean. Jose Migel Gomendio (alkatearen semea) eta Anjel Ortiz (alkateordearen semea) mutikoez landatu zuten haritzaren kimua eta Ladislao Sagastizabal parrokoak bedekatu zuen. Herriar asko joan ziren landatze ekitaldira.

Ospakizunak

Mendeurren esanguratsu hau ospatu gura du egungo Udalak ere eta dagoeneko prest du ospakizun egitaraua. Batetik, adierazpen instituzionala adostu dute udalbatza osatzen duten EH Bildu eta EAJ alderdiek. Zorionak ematen dizkiote Gernikako haritzari eta horren esanahia azpimarratu dute. "Gernikako lurreen jaiotako landare hark gustura hartu zuen Oñatiko lurra. Esan beharrik ez dago Gernikako arbolak Euskal Herriko eskubide eta askatasunei dagokienean, berebiziko garrantzia duela. Egun ezagutzen dugun abertzaletasuna sortu aurrekoa den ikurra, mendez mende, errege eta agintari ezberdinen gaitetik, Euskal Herriaren berezko eskubideen berme izan dena. Gernikako arbola bera ez ezik, Gernika bera da ikurra. Hainbat ikurren ikurra. Gernika Euskal Herria da baina gerra era bada, zapalkuntza, duintasuna, giza eskubideak... Euskal Herrian eta mundu zabalean ikur unibertsala. Eta zorieko gu oñatiarrok, Euskal Herriko ikur nagusietako baten ahaide zuzena herriko plazan gure artean izateagatik; 100 urte betetzeko prest, osasuntsu eta indarrez", dio adierazpenak. Bestetik, otsailaren 3an egingo dituzte ospakizun ekitaldiak kontzejupean, 18:30ean, eta parte hartzeko dei egin diete herritarrei udal ordezkariak. Musika bandak eta herriko abesbatza batek hartuko dute parte, besteak beste, ekitaldi horretan.

Erakusketan ikusgai egongo diren argazkietako batzuk



Espainiako errege-erreginak lehenengoz Oñatin. EZEZAGUNA

DONOSTIA-OÑATI automobilen karabana herrira heldu zenekoa, 1908ko irailaren 19an.



Biltzarreko parte-hartzaileak udaletxera heltzen. EZEZAGUNA

EUSKO IKASKUNTZAKO lehen kongresua 1918ko irailaren 1etik 8ra egin zen.



Diktadorea parrokiako abadetxe aurretik pasatzen. EZEZAGUNA

FRANCO behin egon zen Oñatin, 1944an. Arantzazura ere joan zen orduan.



Gomendiotarren txaleta eraikitzen. OÑATIKO UDAL ARTXIBOIA

AIETEN bizi ziren gomendiotarrak eta Onraitaneuak egon ziren maizter Arantzazuko Ama kaleko etxean.



1909an jaiotako kintoen talde argazkia. ARZUAGA ARGAZKIA

KINTOAK ere argazki askotan agertzen dira, denetan orduko apaiza ondoan dutela.



Trena Oñatira iritsi zeneko argazkia. EZEZAGUNA

GARRAIO mota ezberdinak ere ageri dira argazkietan, baita trenaren inaugurazioa ere, 1923ko irailaren 30ean.

dez, orduko herritarrak nola janzten ziren edo nola egin ziren herriko hainbat eraikin. Olakua dorreari erantsita zegoen eraikina nola bota zuten, Arantzazu Ama kaleko *Onraitana* moduan ezaguna izan zen eraikina nola egin zuten edo Foruen plazan, udaletxearen aurreko eraikina arku barik nolakoa izango litzaitekeen erakusten duen marrazki bat. 1915etik 1925era bitarteko kintoen argazkiak ere badaude ikusgai, eta baita Oñatin zezenak egoten zirenekoak ere.

Gernikako Arbolaren kimua ere garai hartan, 1917ko otsailaren 2an, landatu zuten eta orduko argazki bakarra dago erakusketan. "Horrek harritu gaitu. Sorpresa izan da, guretako, momentu hartako argazki gehiago ez egotea", azaldu du Karlos de los Santosek. "Eusko Ikaskun-

taren sorrerakoak, aldiz, bat baino gehiago daude. Lehen, kongresu hori oso garrantzitsua izan zen eta hori ere jaso dugu erakusketan", jarraitu du.

Oñatiarren bizitzan erlijioak izan duen eragina ere ikusten da erakusketan egongo diren beste argazki sorta batean. Esaterako, Arantzazura egiten ziren igoeretakoak, gauez gizonezkoak eta egunez emakumezkoak.

354 argazki

2016ko martxoan hasi ziren Artixa taldekoak erakusketa hau nola egin pentsatzen. Orduetik hona, argazkiak eta dokumentu zaharrak topatzen eta identifikatzen ibili dira, biltzen eta jendeak ondo ikusteko moduan jarri dituzte. Guztira 354 argazki zahar aukeratu eta jarri dituzte ikusgai, 54 paneletan ba-

natuta. Artixako kideek azaldu duten moduan, argazkietako batzuk Oñatiko Udal Artxibokoak dira eta beste batzuk, berriz, Kutxa Fondokoak. "Ojanguren Argazkia, Marin Argazkia eta beste batzuk ere badira egileak, baina hemen azaltzen diren beste hainbat argazki ez dakigu nork ateratakoak diren, baina suposa dezakegu autore askorenak izango direla, hala nola Plazaola Argazkia, Arzuaga Argazkia, Arlanzon Fondoa, Joan Zubia Fondoa etb. Eskerrik zintzoenak eman gura dizkiegu argazki hauen egileei".

Datorren astelehenean, urtarilak 30, izango da inaugurazio ekitaldia. "Kultura etxeko erakusketa gelan jarriko ditugu argazkiak. Inaugurazioan, baina, musika ere egongo da. Gerardo Elortzak egingo dio sarrera eta

azalpen orokor batzuk emango ditu eta segidan gitarra joko du Xabier Ugartek", adierazi du De los Santosek. "Bi pieza bakarrik joko ditut, biak Iparragirrenak. Bat, zelan, ez, *Gernikako Arbola* kantua izango da eta bestea *Aloñamendi aldamenean*. Oso abesti ezagunak, herrikoiak, dira biak eta denon artean abestuko ditugu", zehaztu du Ugartek.

Erakusketaren inaugurazioa kultura etxeko erakusketa gelan izango da, 18:00etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta irekierara.

ARGAZKIETAKO JENDEA, EGOERAK EDO ERAIKINAK EZAGUNAK IZANGO DIRA ASKORENDAKO

Lehen eta orain

Argazki askotan ikusten diren egoerak, eraikinak edo pertsonak ezagunak edo entzundakoak izango dira oñatiar askorendako, eta, horregatik, oñatiar guztiak animatu gura dituzte erakusketatik ikustera joatea. Urtarrilaren 30etik otsailaren 12ra arte egongo da zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

Herriko ikastetxeekin ere jarri dira harremanetan gazteekin bisita bereziak egiteko. "DBH3, DBH4 eta Batxilergoko ikasleei erakustea da asmoa. Beraiek non bizi diren eta XX. mendearan lehen erdian toki hori nolakoa zen ikusiko dugu: zelai bat ote zegoen, beste eraikinen bat... Herria lehen eta orain nolakoa den erakustea da asmoa. Geuk gidatuko ditugu bisita horiek", dio Artixako Mikel Alberdik.



Onintza Andres, Parte-hartze teknikaria Nerea Zubia, Kultura zinegotzia eta Izaskun Legaristi arkitektoa. T.M

Aurrera doaz Eltziako egokitzen lanak

Taberna tokiz aldatuko dute, eta klaustroaren ondoan topagune bat egokituko dute. Aste Santurako lanak bukatuko dituztela espero dute arduradunek, eta ikasturte berrirako funtzionamendu normala izatea sormenerako etxeak

T.M /M.A OÑATI

Azaroan hasi zituzten Eltzian lehenengo solairua egokitze lanak, eta, apurka-apurka, gunea ari da etorkizunean izango duen itxura hartzen. Prozesu parte hartzaile baten ostean idatzi zuen Izaskun Legaristi arkitektoak proiektua eta hori egiteak hainbat aldaketa ekarriko ditu.

Taberna, berria

Hala, taberna lehenengo solairuan egongo da eta haren kudeaketa Lagun Leku elkartearen esku egon beharrean lehiaketa-ara aterako du Udalak: "Eltzia barruan integratuta egongo den taberna izango den heinean, Eltzekideekin eta proiektuarekin berarekin harremana izan behar du", adierazi du Kultur zinegotzi Nerea Zubiak. Orain arte taberna egon den tokian, bestalde, bildegia egongo da.

Klaustroan eta geletan aldaketak

Beste aldaketa nagusi bat Eltzekideen, alegia, Eltziako erabil-

tzaileen harremana sustatze aldera klaustroaren ondoan egokituko den topagunea izango da. "Klaustroaren inguruan gelak zeuden eta hori aurrerantzean espazio zabal bat izango da. Elkar ikusteko, egoteko... Tokia izango da. Guneak duen argitasuna eta berdegunea baliatuko dira horretarako", azaldu du Zubiak.

Bigarren fase horretan –oraingoz azkena– egingo den beste lanetako bat geletako batzuk erabiltzaileen beharrezanetara egokitzea izango da: "Gorputz Eltzian dauden taldeek, Oñatz dantza taldeak edota antzerki taldeak, duten beharrezan nagusia zorua da. Horregatik, tarrima bat ipiniko da zoruan.

IRISGARRITASUNA HOBETZEA IZANGO DA EGOKITZAPEN LANEK EKARRIKO DUTEN BESTE ONURA BAT

Bestetik, ispiluak ere ipiniko dira geletan", azaldu du Izaskun Legaristi arkitektoak.

Irisgarritasuna hobetu

Irisgarritasuna hobetzea izango da egokitzen lanek ekarriko duten beste onura bat. Horretarako, eraikinaren alde baten arrapala bat egingo dute, eta bestean, igogailua martxan ipiniko dute.

Moyua enpresa ari da lanak egiten eta aurrekontua 393.000 euro da, BEZa kanpo. Aste Santuaren bueltan lanak amaituta egongo direla diote arduradunek, eta helburua da ikasturte berrirako funtzionamendu normala izatea.

Inguruarekin harremanean

San Lorentzon egingo diren lanak direla-eta, Eltziak eta inguruak itxura eta dinamika berriak hartuko dituzte: "Eltziak parkea elikatuko du eta alderantziz. Eltziako aniztasuna, parkeak ere jasoko du", dio Zubiak.

Udaberrian hasiko dituzte San Lorentzo auzoko bi lanak

Batetik, San Lorentzotik Ugarkalderainoko bidegorria eta, bestetik, irisgarritasun lanen zortzigarren fasea

Eneko Azurmendi OÑATI

Udaberrian hasiko dituzte aldi berean egingo dituzten bi lanak.

"2017rako mugikortasun eta irisgarritasun helburuak lortzeko bidean", Ugarkalde eta San Lorentzo arteko bidegorria eta San Lorentzo auzoko zortzigarren fasearen esleipena abian jarri dutela adierazi du prentsa ohar bidez Irati Etxeberrriak, Hirigintza eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Bidegorriari dagokionez, Oñatiko udalerriko bidegorri sarea osatuko du Ugarkalde eta San Lorentzo auzoen artekoak eta GI-2630 galtzadaren ezkerreko –iparreko– aldetik joango da.

Lanen exekuzioaren aldi batean, GI-2630ko galtzada okupatzen den eremuan, errei bakarria ezartzea aurreikusten dute, txandakako zirkulazioarekin. Gai nontzeko ataletan aparkalekuak

kenduko dira aldi baterako eta autobus geltokiko nasa lekualdatzea ere aurreikusten da.

Irisgarritasun lanei erreparatuta, Udalak bidalitako oharraren arabera, proiektu horrek aurreko urteetako fasei jarraitzea emango die eta "San Lorentzoko zortzigarren eremuko oinezkoen ibilbide eta igarobideak indarrean dagoen irisgarritasun arautegira egokitzea du helburu, edo, hori ezinezkoa den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzea".

Bost hilabete

Bi lan horiek udaberrian hasiko dituzte, eta, behin hasita, lanok egiteko bost hilabete inguru beharko dituztela aurreikusten du Udal Gobernuak. "Lanak udaberriarako hasita izatea espero dugu, eta bost hilabeteko epean amaitzea".

Gaztelekuko VIII. Bertso Paper Lehiaketa martxan da

Txinparta Bertso Eskolak eta gaztelekuak antolatutako sariaketa hori bi sailetan banatzen da: batetik, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak; eta, bestetik, DBHko eta Batxilergoko ikasleak.

Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 3a izango da eta sari banaketa, berriz, 12an. Sariak opari txartelak izango dira.

Ate irekiak egingo dituzte asteburuan hiru ikastetxeetan

Gaur, egubakoitza, Txantxiku Ikastolan ipuin kontalariak izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Bihar, zapatua, hainbat eskulan tailer izango dira Urgain-Errekalde eskolan, 17:00etatik aurrera. Azkenik, domekan, hezkuntza proiektua ezagutzeko aukera egongo da Elkar Hezi ikastetxean, 11:00etan. Hiruretan, gelak ikusgai egingo dira.

'Mari Kixkur eta hiru hartzak' antzerkia domekan Santa Anan

Glu Glu konpainiaren eskutik, *Mari Kixkur eta hiru hartzak* haurrentzako antzerkia egongo da domekan Santa Ana antzokian, 17:00etatik aurrera. Bertan, norbanako bakoitzak intimitaterako duen eskubideaz eta elkarbizitzarekiko errespetuaz hausnarketa egitera bideratzen da. Sarrerak salgai daude 3,50 eurotan, *bibe.me* webgunean.

Egurra Ta Kittok disko berriko abestiak joko ditu gaur Antixenean

Gaur, egubakoitza, 21:00etatik aurrera, Ander Lizarralde, Urko Arregi eta Gontzal Belategi bertsolari oñatiarren *Garbantzuak* bertso diskoaren aurkezpena egingo dute.

Bukatzean, Egurra Ta Kitto taldearen kontzertua egongo da, disko berria aurkezten. Azpeitiarrez gain, Guda Dantza taldeak ere eskainiko du kontzertua.

Aloñako Igoera, iazko arrakasta errepikatzera

Oñatiko mendi lasterketaren 13. edizioa egingo dute apirilaren 23an, eta datorren martitzenean –hilak 31– zabalduko dute izenemate epea: "Azken edizioetako arrakasta errepikatu gura dugu, lasterketa ondo antolatuta", dio Pablo Arejolaleibak

Xabier Urzelai OÑATI

Aloñako Igoeraren 13. edizioak azken urteotako bide beretik jarraituko du aurten ere: "Ez dugu aparteko nobedaderik aurreikusirik, korrikalariei aurreko edizioetako eskainiko diegu, paraje paregabean korrika egiteko aukera, giro ona, eta ondo antolatutako lasterketa", dio Pablo Arejolaleibak. Izan ere, ondo eginda dagoenak ez du aldaketa handirik behar.

Dagoeneko badira hiru urte lasterketa luzatu –eta gogortu– zutenetik, Aloñara igoera azkar bat izatetik Aloña eta ondorengo kresteria *infernu* bilakatu zutenera, 22,6 kilometro eta 1.800

metroko desnibel positiboarekin, eta berdin jarraituko dute.

Izen-ematearekin argi

Lasterketan parte hartu gura duenak argi ibili beharko du izen-ematearekin (*sailkapenak.com*), Antzuolako 8 Miliak edo Arrasate-Udalatz lasterkete-

tako dortsalak segituan agortu direlako: "Ez dakigu gauza bera gertatuko den, jendea gogotsu ibiliko ote den, baina eskertzekoa izango zen, horrek lasaiago lan egiteko aukera ematen duelako".

Talde sendoa atzean

Lasterketa antolatu ahal izateko kuadrilla polita dabil atzean lanean: "Lagun taldea osatu dugu eta horrela errazagoa da gauzak egitea. Eta lasterketa egunerako kolaboratzaile talde sendoa dugu lanerako gertu; bestela, ezinezkoa da halako proba bat antolatzea".

"ARRAKASTA DU GIROAGATIK, ETA AUKERA ESKAINTZEN DUELAKO PARAJE PAREGABEAN KORRIKA EGITEKO"



ALOÑA MENDI KARATE SAILA

Gipuzkoako txapelketan txukun

Urtarrilaren 22an egin zuten, Oñatin, senior eta gazte mailako Gipuzkoako Karate Txapelketa. Bertan, Oier Alberdi bigarren izan zen senior mailako kumite mailan –84 kilo azpitik– eta gazte mailan, berriz, Joaquin Egaña hirugarren izan zen kumitean –76 kilo azpitik–. Erretratuan daude txapelketara joan ziren karateka oñatiarrak.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otorra Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Markel Uriartek ohitura hartu du urtero kirol erronka berri bat aurkezteko. Iaz Guinness errekorra ondu zuen Anoetako belodromoan, gurpil bakarraren gainean ordubetea ia 30 kilometro eginda. 2017an, berriz, fisikoki gorputza muturrera eramatera derrigortuko duen erronka egin gura du bere mendate gogokoenean, Tourmaleten. Badaki mendate hori gurpil bakarraren gainean igotzea zer den, 2014an egin zuen, baina hori huskeria da ekaineko azken astebururako buruan daukana-rekin.

Joan den asteburuan zurituta zegoen Aizkorri jaitsi zenuen bizikletarekin. Aurkeztu berri duzun erronka ikusita, norbaitek pentsatuko du buruan kolpea hartu zenuela.

[Irribarrea] Nahikoa erokeria da, bai. Fisikoki oso gogorra izango da, badakit hori. 2014an Tourmalet gurpil bakarraren gainean igo eta jaitsi nuenean, nekatuta amaitu nuen. Baina, ordutik hona, denbora pasa da, fisikoki azken urteotan lan handia egin dut eta oraindik bost hilabete ditut erronka hori prestatzeko, badut denbora.

Azal egiguzu zer den egin gura duzun Everesting Wheelie Challenge deritzona.

Everesting Challenge-a modan jarri da. Ez du aparteko azalpenik behar, Everestek duen garaiera (8.848 metro) egun bakarrean bizikleta gainean igotzea da; hau da, desnibel hori gainditu behar da edozein mendate aukeratuta. Nik Tourmalet aukeratu dut, eta kalkuluak egin ditugu, sei aldiz igo beharko dut, eta zazpigarren aldiz hasi eta kilometro batzuk ere egin beharko ditut, herena edo.

Erronka zorrotza da; ze itxura hartzen diozu?

Egia esateko, orain arte egin ditudan erronkekin alderatuta, lehenengo aldia da zalantzak ditudana, ez dakit erronka egin ahal izango dudana. Baina badut itxaropena. Domekan, esaterako, Gorlan izan nintzen, eta hilabeteak *caballitoa* egin barik egon ostean sei aldiz igo nuen Bergarako mendatea. 3.000 metro pasatxoko desnibela gainditu nuen, eta, fisikoki nahiko ondo banago ere, gurpil bakarraren gainean ez naiz apenas ibili, eta Gorla seitan igotzeak asko animatu ninduen. Egia da Tourma-

"Oraingoan zalantzak ditut erronka egiteko kapaz naizen"

TXIRRINDULARITZA MARKEL URIARTE RIDERRA

Aretxabaletaoak astean azaldu du 2017an izango duen kirol erronka: ekainaren amaieran sei aldiz igoko du Tourmalet, egun bakarrean, eta gurpil bakarrean



Uriarte, aste barruan Mendiolan, Anboto jaitsi zueneko *Puntua*-rekin. X.URZELAI

leten egin beharreko lanaren herena-edo egin nuela... [Barre] baina sentsazio onak izan nituen.

Eta, zergatik Tourmalet?

Izugarri gustatzen zaidan mendatea delako, eta Pirinioetako ezagunena delako. Gainera, oso oroitzapen onak ditut mendate horretan. Ondo ezagutzen dut, bai mendatea eta baita inguruan mendi bizikletan ibiltzeko daudden parajeak ere, enduroko hainbat lasterketa egin ditut-eta inguru haietan.

Bizikleta berezia eramango duzu?

Bai; Orbea etxeko Alma bat eramango dut, eta oso-oso arina izango da, errepideko bizikleta baten pisua izango du eta: urkila zurruna jarriko diogu, plater bakarra, osagai guztiak karbonozkoak, kubieta oso arinak... Jarlekua izango da salbuespena: hor, arintasuna baino gehiago, erosotasuna bilatuko dugu.

Egun horretan garrantzitsua izango da gauzak zelan egin garbi izatea, ala?

Bai, oso garrantzitsua. Asmoa da erronka goizeko laurak aldera hastea. Gurago dut lehenengo igoera argi gutxirekin egin, baina gainontzekoak egun argi-

tan egitea. Izan ere, berandu hasiz gero, gauez amaituko nuke. Eta, leher eginda egotearekin batera, gainera, azken igoera ilunpean egin behar badut... Ez, hobe da goiz hastea. Horrekin batera, ondo zaindu beharko ditut eguneko jatorduak, zer eta noiz jan kontuan izan, noiz geratu atseden hartzera, dosifikatzen jakin beharko dut, erritmo egokia aukeratzeko... Gauza horiek guztiak ondo neurtu beharko ditut.

2014an igo bakarrik ez, Tourmalet jaitsi ere gurpil bakarraren gainean jaitsi zenuen.

Orain, ezin dut halakorik egin, jaitsierak errekuaratzeko baliatuko ditudalako. Jaisten *caballitoa* egitea ere oso nekagarria da, eta bizikletako atzeko frenoak asko sufritzen du, izugarri berrotzen delako.

Egun horretan lagun bat baino gehiago beharko duzu ondoan.

Bai, zalantza barik. Oraindik ez daukagu garbi zenbat lagun joango garen, baina hamar lagun inguru batuko gara asteburu pasatzeko. Jatekoak eta edatekoak emateko, igoeretan lagun-tzeko, bideoak grabatu eta erretratuak ateratzeko... Kuadrillatxo beharko dut ondoan.

Gorputzeko ze atalek sufrituko du gehien?

Eskuek, besoek, gerriak, ipurdiak, iztaratek... Eskuek, manillarari helduta doazelako, eta, batez ere, eskuin besoak, horrekin eusten diodalako aurreko gurpilari. Gerriak ere asko sufritzen du, eta ipurdiak, azken batean, eserita noalako. Eta azkenik, iztaratek, oreka mantentzeko hankekin kanpoaldera edo barrualdera egiten dudalako, eta iztaratek lan handia egiten dute hor.

Ze beste mendate daude hemen inguruan erronka hori entrenatzeko aproposak?

Mendiola etxe ondoan daukat, baina laburra da. Mendate oso egokia Gorla da, sei kilometro pasa dituelako. Zenbat eta mendate luzeagoa izan, orduan eta hobeto. Karakate ere nahiko luzea da, eta paraje ona da entrenatzeko.

"TOURMALET SEI ALDIZ IGOTZEKO DENA NEURTU BEHARKO DUT ONDO: JATEKOA, ATSEDENA..."

"BIZIKLETA OSO ARINA ERAMANGO DUT; HORI BAI, JARLEKU EROSOA JARRIKO DIOT"

Aloña Mendik liderra hartuko du domekan

FUTBOLA Azken bi partiduak etetik kanpora jokatu eta gero Aloña Mendik Anaitasuna hartuko du domekan: "Etxean indartsuak izan behar dugu, baita liderraren aurrean ere", dio Unai Gil jokalaria. Ordizian jokatuko du Mondrak, eta Elgoibarren UDAk

Xabier Urzelai ARRASATE

Liga hasierako Aloña Mendirekin alderatuta, lehenengo itzulia aurrera egin ahala Urzelai-aren mutilek hobera egin dute, eta txukun amaitu dute lehenengo fasea. Bigarren itzulia lehenengo moduan hasi dute, Real Unionen kontra galduta –gol bakar batengatik orain ere– baina egoera horri lehenbailehen eman gura diote buelta. Posible bada, liderraren kontura (domeka, 16:30): "Taldea indartsu ikusten dut. Kosta egin zitzaigun hastea, entrenatzaile berriaren jokatzeko modua barneratzea, baina lehenengo itzulia nahiko ondo amaitu genuen, eta taldean oso garbi daukagu puntuak Azkoagainen lortu behar ditugula". Bada, etxeko azken partiduetako datuek esperantza ematen dute, azken bederatzi puntutatik zazpi poltsikoratu egin dituzte-eta.

Anaitasunak, berriz, joan den asteburuan galdu zuen lidergoa, Ordiziaren kontra etxean galduta (0-2), baina aste barruan Beti Gazteri atzeratutako partidua irabazita lortu du, ostera ere, gorenera iristea.

Mondra eta UDA kanpoan

Joan den astean Ordizia liderra gerarazteko kapaz izan zen, eta



Azken hilabeteotan Aloñak sendotasun handiagoa erakutsi du etxean. I.SORIANO

"KOSTA EGIN ZITZAIGUN HASTE, BAINA LEHENENGO ITZULIA TXUKUN AMAITU DUGU"

talde horren kontra neurtuko ditu indarrak hirugarren dagoen Mondrak (zapatua, 16:30. Altamira). Aretxabaletak, berriz, Elgoibarren jokatuko du ordu berean. Joan den astean Elgoibarko taldeak ez zuen askorik

"TALDEKIDEOK GARBI DUGU MAILARI EUSTEKO PUNTUAK AZKOAGAINEN LORTU BEHAR DITUGULA"

egin Mojategin, baina puntu bat eramateko gauza izan ziren.

Bergara geroago eta liderrago Erregional preferentean, berriz, Bergara lehenengo postuan dago, bederatzi puntuko aldearekin, gainera. Mailaz igotzeko bidean, asteburuan kontrario gogor bat izango dute Agorrosinen (Zapatua, 16:30), Eibar Urko laugarren dago-eta sailkapenean, eta azken bederatzi partidutan ez dute norgehiagokarik galdu. Zenbaki begiratzuz gero, baina, Bergarak ez du kontrariorik, etxean oraindik ez dute partidurik galdu –eta zortzi jokatu dituzte–.

Antzuolak ere liderra hartuko du Lehen erregionaleko igoera fasea jokatzen dabil Antzuola, eta joan den astean 2-4 irabazi eta gero –Aranaren hat-trickarekin– bihar Vasconia hartuko dute (16:00).

Arizmendik Anaitasuna hartuko du

Emakumezkoen erregionalean lider dagoen Arizmendik hirugarren postuan dagoen Anaitasuna hartuko du zapatuan (11:00, Ibarra). Dagoeneko igoera faserako sailkatuta daude, partidu bakarra ere galdu barik. Duela bi aste Bergararen kontrako derbian 1-1 egin eta gero, joan den astean ondo menperatu zuten Eibar (1-3). Bergarako eta Mondrako neskek, berriz, kanpoan izango dute hitzordua. Bergarrek azkenaurreko postuan jarraitzen dute, baina joan den astean poztasun ederra hartu zuten Mutrikuren aurrean denboraldiko bigarren garaipena eskuratuta (2-1); bihar Orion jokatuko dute (18:00). Mondrak, berriz, Iliintxaren zelaietan jokatuko du zapatuan (16:00); zuri-moreek 6-3 galdu zuten joan den astean, eta arantza atera gura dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Aretx.-UDA-Scalibur
Zapatua. 18:00. Musak.

Batzarre-Eskoriatza
Zapatua. 19:30. Gasteiz.

GIPIZKOAKO TXAP.

Lauburu-Mondrate
Domeka. 11:30. Ibarra.

SENIOR EMAKUMEZK.

Beasain-Eskoriatza
Zapatua. 14:00. Beasain.

SASKIBALOA

EBA

MU-Easo
Zapatua. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Natra Oñati-Paules
Zapatua. 18:00. Sestao.

EUSKADIKO GAZTE M.

Fundacion-MU A
Zapatua. 12:00. Gasteiz.

EUSKADIKO KADETE N.

MU A-Kirolak Araba
Domeka. 16:00. Iturripe.

GIP. SENIOR MAILA

MU-Grupo EME

Domeka. 18:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

Soraluce BKE-Astiga.
Zapatua. 17:45. Bergara.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Bera Bera
Gaur. 20:15. Manuel M.

ESKUBALOA

EUSKADIKO GIZONEZK.

Izarraitz Muñoz-Pulpo
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Muskiz-Ford Mugarri
Domeka. 12:00. Muskiz.

EUSKADIKO EMAKUME.

Bera Bera-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Donostia.

GIPIZKOAKO SENIOR.

Soraluce BKE-Lau Bide
Zapatua. 16:00. Bergara.

GIP. BIG. SENIOR M.

Arrasate-Muñoz Izarr.
Zapatua. 20:00. Iturripe.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKET.

Elorrio-Kanpanzar ART
Zapatua. 16:00. Elorrio.

PILOTA

Aretxabaletan:
Gaur. 19:00. Hiru partidu.

Oñatin:
Gaur. 18:45. Lau partidu.
Zapatua. 16:15. Hiru partidu.

Bergaran:
Gaur. 19:30. Hiru partidu.



Lizarralde, Rivero eta Irizar, astelehenean aurkezpenean. ANGEL EZKURRA

Ibarreko 'ukitua' du Euskadi Basque Country Murias taldeak

ZIKLISMOA Zuzendaritik hasi eta masajistaraino, Debagoieneko bost lagun dabilta taldean

X.U. ARRASATE

Astelehenean aurkeztu zuten Bilbon Euskadi Basque Country Murias taldea. Ziklismo taldeak hirugarren urtea egingo du errepidean, hazteko helburu garbiarekin –Continental mailatik Continental Pro mailara pasa gura dute 2018an–. Bada, taldeak ukitu debagoienarra du, zuzendaritik hasi eta masajistarengaino.

Bost lagun, hiru Bergarakoak

Jon Odriozola oñatiarra da taldeko zuzendaria, hori ez da be-

rria, baina taldean beste lau debagoienar izango dira, horietako hiru bergararrak. Taldean hasieratik dagoen Eneko Lizarralde ziklistarekin batera Julen Irizar ere taldera batu da 2017ra begira –Ampotik dator–. Eta eurekin batera, amateur mailan ziklista izatea zer den ondo dakien Jon Rivero da hirugarren bergararra, taldeko masajistetakoa bat da. Laugarren laguna, berriz, aretxabaletarra da, eta aurreko urteotan ere Muriasen ibili da, mekaniko lanetan; Eneko Garai da hura.



Anari musikaria, Leire Palacios eta Gotzon Barandiaran idazlea, Jardunek antolatutako solasaldian, eguaztenean. A. A.

Kualitatiboki, euskal kulturgintza osasuntsu

Gotzon Barandiaran idazle eta askotariko kultur egitasmoetako partaidea eta Anari musikaria batu zituzten Jardun elkartekoek eguaztenean, 'Plazara!' egitasmoaren baitan. Bi orduz jardun zuten kulturgintzaren askotariko adarrei buruz berbetan

Aitziber Aranburuzabala. BERGARA Leire Palacios kazetariak markatu zizkien solasaldirako puntuak; hala ere, nahiko librea ibili ziren, bakoitzak bere esparrura eramanda.

Musikariaren ikuspegitik jardun zuen, gehienbat, Anarik, nahiz eta gaztelerazko irakasle ere izanik, kulturaren inguruan ikasleekin izan dituen bizipenak

ere partekatu zituen publikoarekin. Gotzon Barandiaranek idazlearen ikuspegia erakutsi zuen eta baita parte hartzen duen askotariko kultur egitasmoetako bultzatzailearena ere.

Sormen aldetik krisirik ez Euskal kulturgintzaren egoeraz egin zien Palaciosek lehenengo galdera. Hortik abiatuta, asko-

tariko gaiak lotu zituzten hizlariak. Baikorra dela zioen Anarik, nahiz eta Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean dagoen ezberdintasuna aipatu. "Kultura kontuak kuantitatiboki neurtzen dira eta nik nahiko nuke kualitatiboki begiratzea. Euskarazko proiektu asko daude eta horrek asko pozten nau. Aurreko belaunaldikook uste dut jakin

genuela transmititzen euskaraz ere edozer sortu daitekeela. Euskararen erabilerari dagokionez erlaxatu egin garela sumatzen dut. Irabazita geneuzkan gerra txiki batzuk galtzen ari gara".

Barandiaranek sorkuntza krisian ez dagoela berretsi zuen; bat zetorren, era berean, neurketak modu kualitatiboan egitearekin. Kultur arloko eragile guztiek parte hartzeko aukera izango duten elkarlanerako gunea aldarrikatu zituen. "Ez dugu erakundeek hartzen dituzten erabakietan zeresanik. Eragile ezberdinen artean egin beharko litzateke egoeraren azterketa eta guztion artean markatu gero lan ildoak. Plazak badaude, baina ez behar beste erabiliak". Euskaraz sortzeko grina sustatu beharra ere adierazi zuen, horretarako bitartekoak sortu behar direla gaineratuta. "Era berean, sortzaileak askotan ez gara iristen jendearengana, gure kazetariak mugatuta daude guk sortutako guztia zabaltzeko. Kultur kazetari gehiago izateko laguntzak sustatu beharko lirake".

Transmisioaz eta sareaz ere bai Oinarrian irakurketa nahiko antzerakoa egiten bazuten ere, iritzi ezberdina zuten hainbat gairen inguruan; horien artean, transmisioa bermatzeko moduz. Barandiaranek proposatzen zuen kulturgileek hezkuntza arautuko curriculumean parte hartzea; baina ezkorragoa zen Anari, kultura beti gutxien batzuen interesekoa dela argudiatuta.

Sarearen erabilerari dagokionez, hedapenerako eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu beharrekoak direla zioten; nahiz eta sare sozialei gehiegizko garrantzia ematea gustatu ez.



GOIENA

"Kantuekin gainbegiratuko dugu historia"

MIKEL MARKEZ
MUSIKARIA

Baga, Biga, Higa: euskal kulturaren transmisioa egitasmoa sortu zuten Mikel Markez eta Eñaut Elorrietak, orain dela lau urte. Zabalotegi aretoan eskainiko dute, domekan, 19:00etan.

Zer moduz doakizue? Eskoletan jarduten dugu, gehienbat, hamalau eta hamazortzi urte bitarteko ikasleekin; gutxieneo erreferente batzuk hartzen dituzte, eta eskertzen dute.

Nolako saioa da? Azken 50 urteetan euskal kantagintzaren kantuen argazkia egiten dugu, garai bakoitzeko kantuak eta gertakariak oinarri hartuta. **Bestelako publikoa izango duzue Bergaran.** Horrelako saioetan beste klabe batean egiten dugu berba, baina, finean, egitura bera du. Entzutekoak dira bukatutakoan ikusleek esaten dizkitutenak.

Olatz Salvador, Drumkopters eta DJ Bollo jaialdi feministan bihar

Askotariko herritarrek azaroaren 26an egin zuten muralaren aurkako gertakaria salatze kontzertua da

A. A. OÑATI

Hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatu izan dituzte, baina "klabe ludikoagoetan elkartzea" ere gustuko dutela diote Pototak talde feministakoek; asmo horrekin prestatu dute jaialdia.

Libria izan gura dot, ez baliatia da jaialdiaren eta aurrez egindako muralaren mezua. "Herritar askoren artean egin genuen murala erre zuenak argi utzi zuen ez duela ondo ikusten emakumeok libre izatea, nahia-

go gaituela beldurtuta izan", dio taldeko Rebeke Maestrok.

Gaztetxean eta Arranon

Jai dibertigarria izango dela diote. Zarauzko Olatz Salvador bakarlarik gazteak zabalduko du. Drumkopters taldeak jarraituko du; Miren Narbaizaren -Napoka Iria- talde berria da, eta surf-punka egiten dute. Antixena gaztetxean, zapatuan, 22:00etan, izango da; sarrera, doan.

Gauerdian, DJ Bollok hartuko du lekukoa Arrano tabernan.



Olatz Salvador bakarlarria. O.S.

Antzerkia ere bai, Kooltur Ostegunetan

Beheko Larraine antzerki konpainia, Athom Rumba musika taldea, Amorante bakarlaria eta Luma bikotea izango dira Otsaileko egunetan, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean Kooltur Ekintza kultur elkarteak gonbidatuta. Sarrerak bost eurotan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Oinarrian askotariko musika estiloen eskaintza zabala egitea badute helburu, noizean behin formatu txikiko antzezlanen eta taldeei ere lekua egin izan die te Kooltur Ostegunak zikloko antolatzaileek. Bide horretatik proposatzen dute, Beheko Larraine taldeak, otsailaren 16an, egingo duen *Aitte hil aurretik* antzezlan.

Maika Etxekoparrek zuzenduta, komediak eta tragediak markatutako bideak jarraituz, Miren Tirapu aktoreak sekretuen munduan murgilduko du publikoa. Objektuen erabilpen eta argi jokoaren bitartez, espazio eta garai ezberdinetan zehar bidaiatzen gonbidatuko ditu ikusleak. Agertokian, aktore bakarra dago, baina, hiru dira antzeztzen dituen pertsonaiak.

Hasteko, Athom Rumba

Urtebete inguru lozorroan egon ostean, agertokietara salto egin du, berriz, ere Bilboko Athom Rumba laukoteak. Aurrez egondakoak dira Arrasaten eta datorren egunean igoko dira berriz ere gaztetxeke agertokira.

Garagea, rocka, funkya, musika beltza, horiek guztiak aurki daitezke Athom Rumbaren erraietan. "Entsalada rockero



Miren Tirapu antzeztanaren une batetan. BEHEKO LARRAINE KONPAINIA

dantzagarrria egiten dute. Sekulako musikariak dira kide bakoitza banan-banan aztertuta: Rober, abeslaria eta gitarra; Joseba Irazoki ere gitarrarekin; Iñigo Cabezafuego baxu-jolea, eta Felix Buff, Willis Drummond eta bestelako egitasmoetan ere batera jotzen duena", azaldu du Iker Barandiaran antolatzaileak.

Bakarlaria eta bikotea ere bai

Arrasateko Udalak antolatzen duen *Kulturte Akustikoak* musika zikloan izan zen irailean, Iban Urizar *Amorante*, gonbida-

tu dute otsailaren bigarren egunenenerako. Hogei urteko ibilbidetan musikari askoren bidelagun izan dena bakarrik dabil orain; bakarrik, bai, baina askotariko musika tresnak lagun dituela: gitarra, ukelelea, tronpeta, harmoniuma, zintzarria eta bestelako perkusio tramankuluak ere bai. Askotariko iturrietatik edaten du, horien artean, musika brasildarra eta flamenkoa ditu gustuko.

Otsaileko eskaintza borobiltzeko, Donostiako Luma bikotea izango da otsailaren 23an.

'Mara feat Milay' musikatutako ipuin saioa gaur gaztetxean

Arzuagaren gitarrak eta Aaltonenen biolinaren doinuak lagun, Ayllon idazleak askotariko testuak irakurriko ditu

A. A. BERGARA

Bergarako gaztetxera sarrirant gonbidatu dute Igor Arzuaga musikaria; bakarka jardun izan du, eta baita Luis Vilekin elkarlanean egin zuen *Mara-Mara* egitasmoa aurkezten ere. Artis-

ta emankorra da; horren erakusle da gaur, egubakoitza, kartzela zaharrean, 22:15ean, parte hartuko duen ipuin musikatu emanaldia.

Mikel Ayllon Laudioko idazle gaztearekin sortutako egitasmoa

da honako hau. "Bi artista interesgarriren fusiotik sortutakoa da. Lauzpabost emanaldi egiteko elkartu ziren, eta horietako bat da gaur gaztetxean eskainiko dutena. Berezia izango da, hirugarren lagun bat gonbidatu dute eta agertokira: Emilia Aaltonen biolin-jolea. Musikariaren doinuekin lagunduta, Eduardo Galianoren, Jean Cocteuraren, Joseba Sarrionandiaren eta beste hainbat idazle ezagunen testuak irakurketa egingo du idazleak", azaldu dute gaztetxekeok.

Goiena Klubaren txokoa

Euroliga Goiena Klubean!



BASKONIA - REAL MADRID PARTIDURAKO 4 SARRERA BIKOITZ DITUGU.

Otsailaren 3an, 20:30ean Buesa Arenan jokatu den partidurako.

PARTE HARTZEKO: URTARRILAREN 31RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Baskonia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ERRASTIKO JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA *Jatetxea*

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker

'Kaput' haur antzeztanarako sarrerak ditugu

Amaia antzokian, Arrasaten. | Otsailaren 4an, 17:00etan

PARTE HARTZEKO: URTARRILAREN 31RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Kaput" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA

Mari Carmen Miranda Diaz



2017ko urtarrilaren 21ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan izan zareten guztioi, babes eta gertutasun handia sentitu dugu. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 27an.

ESKER ONA



Mari Cruz Arregui Letamendi



2017ko urtarrilaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 27an.

ESKER ONA



Justino Zaloña Leanizbarrutia



2017ko urtarrilaren 21ean hil zen, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2017ko urtarrilaren 27an.

HILDAKOAK

- Jose Javier Arregi Eguren.** Bergaran, urtarrilaren 9an. 66 urte.
Luis Mari Lizarralde Ezpeleta. Bergaran, urtarrilaren 10ean. 90 urte.
Felisa Txintxurreta Lete. Bergaran, urtarrilaren 11n. 88 urte.
Arantzazu Uribe-Etxebarria Axpe. Eskoriatzan, 12an. 42 urte.
Jose Ignacio Beitia Gorrochategui. Bergaran, 12an. 67 urte.
Miren Arantzazu Goñi Auzmendi. Bergaran, urtarrilaren 13an.
Lurdes Garcia Areizaga. Bergaran, urtarrilaren 13an. 73 urte.
Jose Vara Sanchez. Arrasaten, urtarrilaren 13an. 69 urte.
Luis Maria Alkain Borreguero. Arrasaten, urtarrilaren 14an. 59 urte.
Basili Azkarraga Sarrao. Arrasaten, urtarrilaren 14an. 95 urte.
Joselu Arana Larrañaga. Bergaran, urtarrilaren 14an. 60 urte.
Alejandro Durana Egiluz. Bergaran, urtarrilaren 14an. 85 urte.
Juan Maria Urrutia Galdos. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 90 urte.
Luis Ezkurra Bedia. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 93 urte.
Antonia Algaba Morales. Arrasaten, urtarrilaren 17an. 65 urte.
Carmen Lorenzo Melchor. Arrasaten, urtarrilaren 17an. 77 urte.
Nestor Otxoa Arregi. Arrasaten, urtarrilaren 18an. 82 urte.
Frantziska Guridi Guridi. Oñatin, urtarrilaren 18an. 96 urte.
Alejandro Rodriguez Pozas. Arrasaten, urtarrilaren 19an. 64 urte.
Marcelino Pozo Sanchez. Arrasaten, urtarrilaren 19an. 80 urte.
Maria Dolores Cid Perez. Aretxabaletan, urtarrilaren 19an. 92 urte.
Maria Laskurain Askasibar. Bergaran, urtarrilaren 19an. 90 urte.
Justino Zaloña Leanizbarrutia. Aretxabaletan, 21ean. 75 urte.
Mari Carmen Miranda Diez. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 72 urte.
Angela Larrañaga Aiausti. Oñatin, urtarrilaren 21ean. 101 urte.
Carmen Ormaetxea Luarizaristi. Bergaran, urtarrilaren 22an. 93 urte.
M. Carmen Martin Martinez. Aretxabaletan, urtarrilaren 23an. 60 urte.
Lurdes Kortabarria Arkauz. Aretxabaletan, urtarrilaren 23an. 57 urte.
Marcelino Araiztegi Irizar. Arrasaten, urtarrilaren 24an. 94 urte.
Eloisa Martin Hidalgo. Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 89 urte.
Mari Cruz Arregi Letamendi. Bergaran, urtarrilaren 25ean. 81 urte.
Francisco Fradejas Gutierrez. Aretxabaletan, 25ean. 85 urte.
Juan Inazio Aranburuzabala Leturiaga. Aretxabaletan, 26an. 93 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 27	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 28	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 29	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Astelehena, 30	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 31	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguaztena, 1	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 2	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 27	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 28	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 29	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 30	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 31	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 1	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 2	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 27	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 28	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 29	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 30	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 31	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 1	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 2	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2017ko abuztuaren 15era arte:
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri	943 79 22 26


BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4	943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

OROIGARRIA



Lurdes Kortabarria Arkauz



2017ko urtarrilaren 23an hil zen, 57 urte zituela.

Zure indarra eta kemena gogoan izango ditugu.

Lantegiko kafe-lagunak.
Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 27an.

OROIGARRIA



Mari Lurdes Kortabarria Arkauz



2017-01-23

*Neguko izotzen eguzki
Irribarrez ekaizari
Jakin duzu zelán bizi
zu bai zu!*

Dorleta, Mila, Loiola, Luisi, Kontxi, Amaia, Ana Rosa, Maite eta Lourdes.
Aretxabaletan, 2017ko urtarrilaren 27an.

OROIGARRIA



Asun Gaviria Mendoza




2016ko urtarrilaren 27an hil zen.

*Zure falta sumatzen dugu.
Beti gura pentsamenduan egongo zara.*


Zure lankideak.
Aretxabaletan, 2017ko urtarrilaren 27an.

OROIGARRIA



M. Carmen Martin Martinez

'Carmina'



2017ko urtarrilaren 23an hil zen, Donostian, 60 urte zituela.

*Zure borroka, gure argia izan da,
hemendik aurrera zure izarra gure bidea izango da.
Beti gurekin.*

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2017ko urtarrilaren 27an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

OROIORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kutun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. 102 urteko bergararra**

M. Paz Zubialdea Zabalak 102 urte bete zituen urtarrilaren 23an, Bergarako Mizpirualde egoitzan. Hori dela eta, familiaren, Elena Lete Bergarako alkatearen eta egoitzako langileen zorionak jaso zituen egoitzan bertan. Lore sorta eder bat oparitu zioten.

**2. Bersotruk Aretxabaletan**

Arrasateko, Bergarako, Larrabetzuko, Mungiako, Lasarteko eta herriko bertso eskolako hamabost lagunek jardun zuten zapatuan bertso-poteoan Aretxabaletan. Bertso eskolen arteko harremanak sortzea izan zen topaketaren helburua, eta proiektuak egiteko bideak zabaltzea.

4. Bailarako piano-joleak

Debagoienerako piano-jole gaztetxoek kontzertua egin zuten eguaztenean Oñatiko Santa Ana antzokian, hango Jose de Azpiazu musika eskolak gonbidatuta. Otsailaren 4an eta 5ean Andoainen egingo den piano jaialdia prestatzeko ariketa izan zen musikari gaztetxoendako.

3. Itsaski-jana irabazi

Euskal presoen aldeko Gure Artera talde bergararrak itsaski-jana edo mariskada zozketatu zuen pasatu berri diren Gabonetan. Saritutako zenbakia 3.995 izan zen eta horren jabea agertzen da argazkian, Jose Luis Arregi, tokatu zaizkion itsaskiak aurrean dituela.

5. Hiru erreketan

Arrasate Herri Eskolakok mendia buelta ederra egin zuten domekan Leintz Gatzaga inguruan. Hiru erreketara deritzen ibilbidea egin zuten; antzinako gatz fabrika, Santiagorako erromesei ostaturia ematen zion Dorletako Santutegia, San Juanzarreko karobia eta herri basoak ezagutu daitezke hor.



#DIOTENEZ

UZTARTU

Euspot-en barruan egingo dute aurten **BHKlip** bideo lehiaketa. Espoten lehiaketa izaten da Euspot eta bideona BHKlip; bada, aurten, ekimen **biak** uztartu eta Espot-en barruan egingo dira.

ARZALLUS

Jexux Arzallus **bertsolariak** Oñatin egin zuen jende aurreko **lehenengo** saioa. **Oñatiko** gazte batzuek eskatuta joan zen, beste

lagun batzuekin batera, **kuatro L-an** sartuta. Oñatiko eta inguruko beste bertsolari batzuekin **batera** egin zuen bertsoan Arzallusek. Iparraldean, **Eskoriatzara** ezkondu zen Xanti **Iparragirre** erreteriarren laguntzarekin jarri zuen **martxan** hango bertso **eskola**.

AIZKORRI BIZIRIK

Aizkorri Bizirik taldekoek **kamiseta** gorri baten zozketa egin dute sare

sozialen bitartez eta Juanma Martinez **aretxabaletarrak** eskuratu du.

ROKODROMOA

Oñatiko gaztelekuan rokodromoa egingo dute. Dagoeneko erabaki dute non egin eta **gazteek** eurek jarriko dute martxan. **Harriak** erabiliko dituzte **eskaladarako** gune hori prestatzeko, eta herriko **erreka** eta inguruetan ibili dira harriak **batzen**.

DISKOA

Josu Zubia **oñatiarra** disko berria prestatzen ari da. **Axular** Arizmendirekin ari da grabatzen, Ame estudioan. **Ezinen koblakari** da disko berriaren izena. Zubiak ondoan izan ditu Josu **Murua**, Miren **Fernandez** eta Izar **Biaín** oñatiarrak. **Kantuak** grabatu dituzte eta otsailaren 4an, otsaileko lehen zapatuan, **bideoklipa** grabatuko dute eta laster egongo da ikusgai.

BASKONIAREKIN

Baskonia taldekoekin egoteko aukera izan dute, lau egunez, **Ander Ugarte** eta **Xabi Urteaga** oñatiarrek. Jokalariekin bidaiatu eta **Atenasen** eta igandean **Murtzian** jokatu zituzten partiduak zuzenean ikusi dituzte. **Biak** dira Baskoniako **bazkide** eta Buesa Arenan jokatu zen Bartzelonaren aurkako lehiari martxan jarri zuten **zozketa** batean Ugarteren txartela izan zen **saritua**

ZORION AGURRAK



BERGARA
Aner Garcia Mujika
Otsailaren 2an, 6 urte.
Zorionak, Aner! Ondo pasatu zure egunian! Patxo handi bat. Aitaxo, amatxo eta Julene.



BERGARA
Maren Fernandez Lopez
Otsailaren 2an, 3 urte.
Gure printzesatuak jada 3 urte! Zorionak, Maren! Ze handi ein zaren... jarraitu holako xinpatika. Muxuak, familia danaren partetik.



ARRASATE
Nahia Garro Arana
Urtarrilaren 31n, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Ganix Gomez Iturbe
Urtarrilaren 28an, 4 urte. Zorionak, Ganix, zure laugarren urtebetetzean. Konturatu orduko mutil handia egin zara. Patxo erraldi bat, maite zaitugun danon partetik.



ESKORIATZA
Mikel Pagaldai Olea
Urtarrilaren 27an, 5 urte. Zorionak, Mikel! Muxu goxoak familia osoaren eta, bereziki, aitaxoren eta amatxoren partetik. Milesker 5 urte zoragarri hauengatik.



BERGARA
Eneko Gantxegi Otaola
Urtarrilaren 27an, 6 urte. Zorionak, maitte! Zure eguna topera disfrutatu. Etxekoan partetik, muxu handi bat.



ANTZUOLA
Arantzazu Gezalaga eta Irati Artolazabal
Arantzazuk urtarrilaren 27an eta Iratik otsailaren 2an, 7 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu eta segi orain arte bezala, alai eta zoriontsu. Etxekoan partetik, muxu potolo-potolo bana, guapak.



BERGARA
Irati Iriondo Igarza
Urtarrilaren 27an, 12 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Eider Prieto Goñi
Urtarrilaren 26an, 14 urte. Zorionak, Eider! Ondo ospatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik.



ARRASATE
Nahia eta Maier Guerrero Valor
Urtarrilaren 25ean, 5 urte. Zorionak, *mellis!* Ondo pasatu eguna, printzesak. Pila bat maite zaituztegu. Muxu handi bana, lehengusu guztien partetik.



OÑATI
Arane Lizarralde Suarez
Urtarrilaren 25ean, urtebete. Zorionak, txiki! Segi beti bezain alai! Muxu handi-handia familiako guztien eta, bereziki, Ekainen eta Uxuriren partetik.



BERGARA
Irati eta Sara Barrigon Gauna
Sarak, urtarrilaren 24an 2 urte eta Iratik, 31n 5urte. Zorionak, printzesak! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze egunean, familia guztien partetik. Patxo potolo bat.



ARETXABALETA
Xuue Fernandez Valor
Urtarrilaren 24an, 2 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Maite zaitugu. Etxeko guztien partetik, muxu pila zuretzat.



BERGARA
Markel Garmendia
Urtarrilaren 24an, 19 urte. Zorionak, Markel! Zure izeba-osaben eta, batez ere, etxekoan partetik! Jone.



ARRASATE
Nora eta Danel Ruiz
Norak urtarrilaren 23an, 7 urte eta Danelek urtarrilaren 27an, 11 urte. Zorionak, bikote, aitaxoren eta amatxoaren partetik. Primeran ospatu zuen egunak!



ARRASATE
Hodei Ramos Trenado
Urtarrilaren 22an, 4 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure egunian! Muxu potolo bat, danon partetik!



ARRASATE
Eider eta Goiat Fernandez Bellido
Urtarrilaren 20an, 5 urte. Zorionak, printzesak! Heldu da eguna! 5 urtetxo! Ondo pasatu familiarekin eta lagunekin! Muxu asko guztien partetik, bereziki, Maialenenak!



OÑATI
Ander Iciar Garcia
Urtarrilaren 22an, 6 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko guztien partetik!



OÑATI
June Bruna Aiastui
Urtarrilaren 20an, 5 urte. Zorionak, June! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat, etxeko danan partetik.



ANTZUOLA
Illart eta Tio Aritz
Urtarrilaren 19an eta 20an, 33 eta 7 urtetxo. Zorionak, *bandidoak*, segi holaxe urte askoz! Muxu potolo bat, danon partetik.



ARRASATE
Josu Aranzabal
Urtarrilaren 19an, 21 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetzian.



OÑATI
Egoi Ibahe Kerexeta
Urtarrilaren 19an, 2 urte. Zorionak, *pituso!* Familixako danon eta, batez be, Unairen partetik. Bi belarri tirakada eta beste bi pa handi!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 27

ELGETA Holokaustoaren biktimei omenaldia

Tomas Rebellori eta Pascual Askasibari aitortza ekitaldi berezia. Informazioa gehiago Elgetako orrian.

Mendizaleen plazan, 18:00etan.

BERGARA Umeendako ipuin kontaketa

Lur Kortak egingo du saioa, euskaraz.

Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI 'Jendurrean hitz egiteko tailerra'

Jabetze Eskolaren tailerra.

Euskaldunberri gelan, 18:00etan.

BERGARA 'Azken batailoia' erakusketa

Intxosta 1937 Kultura Elkartearen eta Mauro Saravia argazkilariaen bilduma. 29 gudari eta milizianoaren argazki artistikoak egin ditu Saraviak. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa.

Aroztegin, otsailaren 5era arte.

ARETXABALETA Bakarrizketa

Sergio Encinas (Valladolid) eta Archie Bezos (Madril) komikoen eskutik saioa. Sarrera, lau euro.

Arkupen, 20:00etan.

OÑATI 'Garbantzak' lana, eta Egurra eta Kitto eta Guda Dantza taldeak

Bertso-diskoaren aurkezpena egingo dute. Ostean, kontzertua.

Gaztetxean, 21:00etan

BERGARA 'Mara feat. Milay' ipuin musikatua

Igor Arzuagaren eta Mikel Ayllonen eskutik. Emilia Aaltonen biolin-jolea gonbidatu dute emanaldira.

Sarrerak, hiru euro.

Gaztetxean, 22:15ean.

ZAPATUA 28

ARETXABALETA Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak

Gaur, zapatua, ipiniko dituzte salgai bazkarirako 600 bat txartel. Arkupen

erosi behar dira otsailaren 26rako txartelak.

Aipatutako lekuan, 09:00etan.

OÑATI Aratusteetako entseguak

Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entseguak.

Errekaldeko lokalean, 12:00etan.

ARRASATE 'Dinbi, danba' erakusketa bisita gidatua

Bixente Barandiarani buruzko erakusketa bisita, urtarrietik maiatzera arteko zapatuetan.

Harresi aretoan, 12:00etan.

OÑATI 'Herrixa Kantuan'

Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik kantu jira herriko hainbat gunetan.

Foruen plazan, 12:30ean.

ESKORIATZA Izotz-pistara irteera

Gasteizera joago dira ludotekako bazkide diren eta ez diren 6-12 urte arteko gazteak.

Autobus geltokian, 16:00etan.

ESKORIATZA Esaldi lehiaketa eta murala

Irabazlea izendatu eta murala egiten hasiko dira.

Gaztelekuan, 16:30ean.

ARRASATE Sukaldaritza tailerra

Gaztetxoendako ekintza.

Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

OÑATI 'Ekintza Zuzena'

fanzinearen aurkezpena

80ko hamarkadako idatzizko kontrainformazio aldizkari bakarrenetarikoa da. Azken zenbakiaren aurkezpena eta jorratzen dituen gaien inguruko eztabaida egingo dute.

Gaztetxean, 17:30ean.

ARRASATE 'Udazkena Euskal Herrian' erakusketa

Gaur da azken eguna. Lanak salgai egongo dira 50 eurotan. Batutako dirua Aspanogirendako izango da.

Kulturaten, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Gaztehotsa II'

DBH4 eta Batxilergoan dauden nerabeen iritziak jasoko dituzte.

Gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Olatz Saitua eta Eugenio Tobalina

Sopranoa da lehena eta gitarrista bigarrena. Doako emanaldia.

Mariaren Lagundian, 20:00etan.

OÑATI Jaialdi feminista

Olatz Salvador gitarrista eta Drumkopters taldea, herriko Pototak feminista taldeak gonbidatuta.

Gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE The Hans Blues Bland eta Garilak 26 taldeak

Doako kontzertua.

Gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI Bollo DJa

Jaialdi feministaren eguneko ekintza.

Arrano tabernan, 01:00etan.

DOMEKA 29

ARRASATE Santiago bidearen hirurgarren etapa

21 kilometroko Zarautz-Deba ibilaldia egingo dute Besaideko lagunek. Sei bat orduko ibilaldia izango da. Ostean, bazkaria egingo dute.

Garibaiko geltokian, 07:00etan.

OÑATI Mendi irteera

Lehen Hezkuntzako hirurgarren eta laugarren mailetakoko neska-mutikoendako eta euren gurasoendako.

Foruen plazan, 09:00etan.

ARRASATE Egiperen batzar orokorra

2017rako diru kontuak eta zuzendaritza batzorderako presidentea eta kide berriak aukeratu dituzte.

Egiperen egoitzan, 10:00etan eta 10:30ean.

ESKORIATZA Zuhaitz Eguna

2016an jaiotako haurrek eta euren eta gurasoek landatuko dituzte zuhaitzak Arbiñosten.

Ibarraundin, 11:00etan.

ANTZUOLA Euskal Herriko mus txapelketako finala

Herri mailako finala jokatu dute lau kanporaketetako bikote onenek.

Arin jatetxean, 16:30etan



IMANOL SORIANO

ARRASATE 'Francoren bilobari gutuna'

Artedramak, Le Petit Theatre eta Dejavu Papin Laborategiak elkarrekin egindako antzezlan. Ander Lipus eta Erika Olaizola dira protagonista nagusiak. Sarrerak, hamar euro.

Etzi, domeka, Amaia antzokia, 19:30ean.

ELGETA 'Berdinen arteko harremanak' tailerra

Kalexka taldeko bi hezitzailearen eskutik bigarren saioa. Laugarren mailatik gorako gaztetxoendako, zerbitzuko erabiltzaile izan edo ez. Ate irekiak.

Gaztelekuan, 16:30ean.

ESKORIATZA Murala egiten

Zapatuan hasitako ekintzarekin jarraituko dute.

Gaztelekuan, 16:30ean.

OÑATI 'Maria Kizkur eta hiru hartzak'

Gurasoekin haserretu eta basora ihes egiten duen neskatzaileen abenturak kontatzen ditu. Glu Glu taldearen antzezlan umeendako.

Sarrerak, lau euro.

Santa Anan, 17:00etan.

ARETXABALETA Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako ekintza.

Gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako ekintza.

Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

ANTZUOLA Ipuin kontaketa

Belen Azkarateren saio bikoitza: 18:00etan 4-6 urte artekoendako, eta, 18:45ean, 7-10ekoendako.

Liburutegian, aipatutako orduetan.

ELGETA Herrixa Dantzan

Patxi Monterok gidatutako dantza saioa. Askotariko dantzak landuko

dituzte, banaka, bikoteka eta taldeka. Sarrera doakoa.

Spaloian, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Putinen guardasola'

Lehendakariak euskaldun guztiak batuko dituen himnoa behar du. Ray eta Nik izango dira egileak. Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreen antzezlan, euskaraz. Sarrerak, lau euro.

Zaldibarren, 19:00etan.

BERGARA 'Baga, biga, higa'

Euskarazko kantugintzaaren transmisioa helburu duen proiektua, Mikel Markezekin eta Eñaut Elorrietarekin. Euskal musikagintzaaren erreferenteak eta zaletasuna sustatzeko ikuskizuna.

Zabalotegin, 19:00etan.

BERGARA Angel Escobar eta 'Origen' ikuskizuna

Flamenko zaleendako emanaldia. Escobarrekin batera La Pulga, El Raton eta Angel del Toro egongo dira. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 19:00etan.

ASTELEHENA 30

ARETXABALETA Odol ematea

Urteko lehen deialdia.

Durana kalean, 16:45ean.

OÑATI Artixa taldearen erakusketa

Foruen plazan dagoen Gernikako Arbolaren 100. urteurrenaren harira,

XX. mendeko lehen erdian Oñati nolako zen erakutsiko dute erakusketan: argazkiak, aktak, ekitaldi nagusiak, pertsonaiak... Gaur zabalduko dute. **Kultura etxean, otsailaren 13ra arte.**

ARETXABALETA Gu Hasiak Gara taldearen erakusketa

Gaur da erakusketa ikusteko azken eguna. Besteak beste, musika eskolarendako bederatzi gona, Kurtzabarrindako 60 gona gorri eta hamabi azpikogona, eta txotxongiloak daude ikusgai. **Arkopen.**

MARTITZENA 31

OÑATI 'Oñatiko Udala Grant' beka eskuratzeko azken eguna Eskaera Lege Soziologia Institutuaren webgunean egin behar da. Gaur da azken eguna. Oñatiri ekarpena egiten dioten gizarte zientzien eta zuzenbidearen alorreko ikerketa proiektuak sustatzeko. **Izen-ematea, aipatutako webgunean.**

OÑATI 'Bizipoz' programaren amaiera ekitaldia

Azken asteetan landutakoa erakutsiko dute. **Kultura etxean, 18:00etan.**

ELGETA Bazkidetza eta federatu txartelak

Kantsatzeko mendi taldeak 2017rako tramiteak egingo ditu. **Kultura etxean, 19:00etan.**

BERGARA Makrobiotikari buruzko hitzaldia

Gabonetako gehiegikerien ondoren orekara itzultzeko aholkuak emango ditu Jexux Larretxea adituak. **Irizar jauregian, 19:00etan.**

BERGARA Helduendako ipuin kontaketa

Koldo Amestoyren emanaldia. **Irizar jauregia, 19:30ean.**

OÑATI Aratusteetako entseguak

Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entsegua. **Errekaldeko lokalean, 20:00etan.**

EGUAZTENA 1

BERGARA Odol ateratzea

Urteko lehen deialdia. **Osasun zentroan, 18:00etan.**

OÑATI 'Asertibitate eta gatazka konponketak'

Jabetze Eskolako tailerra. **Euskaldunberri gelan, 18:15ean.**

BERGARA Eguaztenetako azoka

Bertako baserritarren produktuak erosteko aukera. Gainera, Erlantz Olabariak propolia egiteko tailerra egingo du. **Oxirondon, 18:30ean.**

MARTITZENA 31

ANTZUOLA 'Antzuolako emakumea lanean' erakusketa Martxoaren 8ari begira egin gura duten erakusketarako argazki bila dihardute: emakumea lanean jasotzen duen edozein argazki balio du. Argazkiak udaletxean utzi behar dira otsailaren 15a baino lehen. **Entregatu argazkiak aipatutako lekuan.**

EGUENA 2

ARETXABALETA 'Aretxabaletako Aratusteak'

Urteko egunik koloretsuaren gaineko erakusketa zabalduko dute gaur, eguena. Argazkiak izango dira protagonista, otsailaren 28ra arte. **Arkopen.**

ARETXABALETA 'El porvenir'

Mia Hansen-Love zuzendariaren pelikula. Filosofia irakasle baten istorioa kontatzen du. Eskolak ematen ditu, seme-alaba nagusiak eta gaixorik dagoen ama zaintzen du. Derrepentean, senarra beste emakume batekin bizi izatera joango da. Isabelle Huppert eta Edith Scob dira protagonistak. **Sarrerak, lau euro. Zaraia aretoan, 19:30ean.**

ARRASATE Atom Rhumba taldea

Elektriko doinuank lantzen dituen talde bilbotarraren kontzertua, Kooltur Ostegunak ekimenean. **Sarrerak, bost euro. Gaztetxean, 22:00etan.**

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Hasta el ultimo hombre
Zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.

¡Canta!
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Belleza oculta
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ORM, elurretako erresuman
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

El editor de libros
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Albert
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

La luz entre los océanos
Zapatua eta domeka: 17:00.

Belleza oculta
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Frantz
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Ballerina
Zapatua: 17:00.

La luz entre los océanos
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Ballerina (euskaraz)
Domeka: 17:00.

GASTEIZ

ARKUPE

La La Land
Egubakoitza eta eguenera: 17:20, 20:00, 22:30.

¡Canta!

Egubakoitza: 16:30.
Zapatua: 12:00.
Domeka: 12:00, 16:30.

Toni Erdman
Egubakoitza eta domeka: 18:35, 21:35.
Astelehena eta eguenera: 17:00, 20:00.

Ballerina
Egubakoitza eta domeka: 16:30, 18:20.
Zapatua: 16:30, 18:20, 20:30.
Astelehena eta eguenera: 17:30.

Ballerina (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Comancheria
Egubakoitza eta domeka: 20:30.
Zapatua: 16:30.
Astelehena, eguaztena eta eguenera: 20:00.

El final de ETA
Egubakoitza eta eguenera: 22:30.

Multiple
Egubakoitza eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Figuras ocultas

Egubakoitza eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Lion
Egubakoitza eta astelehena, eguaztena eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzena: 17:30, 20:00.

Silencio
Egubakoitza eta domeka: 16:30.
Astelehena, eguaztena eta eguenera: 22:30.

Loving
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena eta eguenera: 17:00, 20:00.

Contratiempo
Egubakoitza eta domeka: 20:30.
Astelehena eta eguenera: 22:30.

Los del tunel
Egubakoitza eta domeka: 16:30.
Astelehena eta eguenera: 17:30.

Las inocentes
Egubakoitza eta domeka: 18:20.
Astelehena eta eguenera: 20:00.

Passengers
Egubakoitza eta domeka: 18:20.
Astelehena eta eguenera: 20:00.

Monsters truck
Zapatua eta domeka: 12:00.

Vaiana
Zapatua eta domeka: 12:00.

La tortuga roja
Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD
Lion
Egubakoitza eta domeka: 16:15, 18:40, 21:05, 23:30.
Astelehena eta eguenera: 17:15, 19:40, 22:05.

Vivir de noche
Egubakoitza eta eguenera: 17:05, 19:45, 22:20.

Multiple
Egubakoitza eta domeka: 16:00, 18:25, 20:50, 23:15.
Astelehena eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Ballerina
Egubakoitza eta eguenera: 17:15, 18:15, 20:15.

Ballerina 3D
Zapatua eta domeka: 16:15.

Un monstruo viene a verme
Astelehena: 19:15.

Tarde para la ira
Martitzena: 19:15.

Que Dios nos perdone
Eguaztena: 19:15.

El hombre de las mil caras
Eguenera: 19:15.

Figuras ocultas
Egubakoitza eta domeka: 16:45, 19:20, 21:50.
Astelehena eta eguenera: 17:00, 19:40, 22:10.

La La Land
Egubakoitza eta eguenera: 17:00, 19:34, 22:10.

¿Tennis que ser el?
Egubakoitza eta eguenera: 19:15, 21:30, 23:45.

Los del tunel
Egubakoitza eta eguenera: 18:00, 20:00.

KRITIKA

Un monstruo viene a verme ★★★★★

Zuz.: Damien Chazale. **Herr.:** AEB (2016). **Aktoreak:** Emma Stone, Ryan Gosling. **Iraupena:** 127 minutu.

Zinema musikalaren magia

ANTONIO ZABALA

Pelikularen hasiera benetan ikusgarria da. Los Angelesko errepidean auto-ilara izugarria sortzen da. Autoetan dagoen jendea kanpora irteten da, dantzatzu eta abestuz. Arrakasta izatearen ilusioa erakusten dute. Eszena alaiak, koloretsua eta bizia da. Hurrengo eszenak ere —filmaren neska protagonista eta bere lagunak festa batera doaz— antzeko tonua du. Ostean, filmaren bikoteak elkar ezagutzen duenean, gauza lasaituko da, eta filmak tonu erromantikoa eta samurra hartzen du. Bikotea elkar ezagutzuz joango da. Euren ilusioak ikusiko ditugu, hartutako baitan aurkitzen dituzten zailtasunak eta euren ametsak lortzeko bidean topatzen dituzten oztopoak. Pelikularen hasierako tonu bizia tonu malenkoniatsu bihurtzen da, poliki-poliki.



CURBED

Damien Chazalek zinema eta jazz musika omentzen ditu, dotoreziaz, sentikortasunez eta distiraz. Egungo bizitza eta 50eko hamarkadako bizitza nahasten ditu; telefono mugikorrek eta 50eko hamarkadako jantziak eta estetika. Zuzendariak ederki islatzen du Hollywoodeko musikalen energia eta Jaques

Demyren musikalen ezaugarriak. *La La Land*-en zinema musikalaren ahalmen magikoa islatzen da. Errealitatea eta ametsak nahasten dira atmosfera bereziko lan honetan. Ikuslea lilurata geratzen da bikotearen istorio xarmagarriarekin eta bien artean sortutako kimikarekin.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Urrats garrantzitsua

Aste honetan eratu da Euskal Elkargoa. Lehen aldiz Ipar Euskal Herriari nolabaiteko izaera aitortzen dion egituratzea.

Abertzaleok egitura zabalagoa eta eskumen gehiagorekin nahi dugu Ipar Euskal Herriarentzat, baina baita Hego Euskal Herriarentzat ere. Elkargoaren izaera motz samar gelditu daitekeen arren, sekulako urratsa da lurralde egituraketan.

Iparaldeko nahiz hegoaldeko abertzaleok pozik egoteko arrazoiak ditugu aste honetan. Lortutakoa baino anbizio handiagoa dugun arren, egindako urratsa handia da eta lanean jarraitzeko bidea ematen digu.

Bestalde, egitura honek Iparra eta Hegoa hurbiltzeko, zubiak eraikitzeko balio dezan lortu beharko genukeela uste dut. Horretan ere jarri beharko genituzke indarrak. Nola gainditu ditzakegun indarrean jarri dizkiguten mugak. Bada, gaur herenegun baino errazago daukagu hau ere.

Eta bidea eginez, urratsez urrats Iparaldean eta Hegoaldean, Nafarroan eta Erkidego Autonomoan bakoitza bere erritmoan eta loak hartu gabe Estatu propioa eraikitzeko bidea egin.

BUKATZEKO



Larraitz Zeberio, Iratxe Bravo, Leire Basauri, Sonia Miranda, Marta Torres eta irudian falta den Lorena Ibeas, sariaren bila. X.L.

Euskararen Ginkanako saria Elgetara ekartzera

'Elgetan berbetan' mintzalagun taldeko sei partaidek Euskararen Ginkanaren finalerako txartela lortu dute. Bihar Donostiako Kutxa Ekogunean erabakiko da irabazlea nor den, baina lau finalisten gainetik euskara izango da garaile nagusia

Xabi Gorostidi ELGETA

Euskararen Ginkanaren 5. edizioa bihar amaituko da, Donostiako Kutxa Ekogunean jokatu den finalean, eta *Elgetan berbetan* mintzalagun taldeko sei kide han izango dira.

Urtarrilaren 3an hasi zuen ibilbidea aurtengo edizioak, eta Euskal Herri osoko 27 talde lehiatu dira. *Hizkuntza praktika eko-*

logikoak izan da aurtengo gaia, eta, hori lantzeko, hizkuntzen garapen iraukorrerako lagun-garriak diren ekimenak eta probak egin dituzte.

Sei proba finalaren aurretik

Partaide guztiek sei proba egin behar izan dituzte finalera heldu aurretik. "Sei horietatik lautan, hizkuntza praktika ekolo-

gikoekin lotutako galdera batzuk erantzutean oinarritu dira, eta beste bi, bideo bidez egin behar izan ditugu", azaldu du Larraitz Zeberio, *Elgetan berbetan* mintzalagun taldeko kideak.

"Horietako bat euskara ikasi berri duen kanpotar bati elkarriketa bat egitea izan zen. Bigarrenean, sormena gehiago garatua behar izan genuen, eus-

kararen aldeko kale ekintza bat diseinatu eta grabatu behar genuelako. Pankarta bat margotu genuen Elgetako hainbat eragile inplikatur; gaztelekua, tai txi taldea, musika eskola, gaztetxea, erretiratuak eta ludoteka. Ondoren, pankarta Kultura Etxetik zintzilikatu genuen, nahiz eta haize zakarrarekin ez zuen askorik iraun. Ginkanako zenbait proba egiteko laguntza behar izan dugu eta eskatu dugunean beti jaso dugu. Eskerrik asko gure probetan modu batean edo bestean parte hartu dutenei".

Sari mamitsua jokoan

Finala irabaztea lortzen duen taldeak euskara sustatzeko proiektu baterako 3.000 euro jasoko ditu. Elgetarren kasuan, mintzalagun ekintza indartzeko erabiliko dute. Lizarrako taldeak 24 orduz euskaraz ekimena 48 ordura pasatzeko asmoa du, Azpeitiko eta Goizuetako Xapo taldeak AEKri eta Sehaskari emango die eta Durangoko Itzartu taldekoek, aisialdi taldeari.

"Saria Elgetara ekartzeko asmoz goaz Donostiara, baina, irabazleak irabazle, ziur garaile nagusia euskara izango dela", adierazi du Zeberio. Finala 12:00etan hasiko da eta Tokikomeko presidente Urko Aristik aurkeztuko du. Elgetarrak ez dira bakarrik izango, herritik irteera antolatu baitute beraiek animatzeko.

Ezagutza zabaltzen

Aurtengo edizioako partaideek Twitter kontu bat zabaldu dute, euren proben berri eman, eta puntuak pilatzeko. "Gainontzeko taldeekin sortu den hartu-eman oso positiboa izan da".

OÑATIKO OSOKO BILKURA

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA URTARRILAK 30, 22:00ETAN

goiena
ZU HEMEN ZAUDE